

HERNANI2016



HERNANI 2016



Udal Artxibo Zerbitzua

23. URTEKARIA 2016
XXIII Anuario 2016

Azaleko argazkia: Marisol Yaben
Azaleko diseinua eta liburuaren maketazioa: UTS komunikazioa
Lege gordailua: SS-403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da.
Las opiniones expresadas en los artículos son responsabilidad exclusiva de sus autores.

“San Juan Jaiak direla eta, Udalak kultura arloko aldizkari bat argitara ematea nahi izan du” esaten genuen orain dela hogeita bost urte (nahiz eta eskuan duzuen hau, hogeita hirugarrena izan). Azken urteotan urte bukaera aldean aurkeztu izan badugu, **HERNANI 2016** urtekariarekin hasierako edizioetara bueltatu nahi izan dugu, egileentzat esfortzu eta “ahalegin desinteresatu” berezia suposatu arren.

Urte hauetan guztietan hamaika gai, hamaika egile eta hamaika aldaketa izan ditu argitalpenak, herriak, Hernanik, izan dituen bezalaxe; baina, azkenean, helburu bera izan du, hasiera-hasierako “bideari uko egin” gabe: Hernaniren eta hernaniarren ezagutza sakontzea.

Aurten ere, “bete-betea datorren” **HERNANI 2016** honetan, gure ONDAREA jaso dugu. Hogeitabat artikulutan beste hainbeste egilek beren ekarpena egin dute, gure herria, Hernani, eta gure herrian, Hernanin, ari eta aritu diren hernaniarrok hobeto ezagut ditzagun: historia, artea eta arkitektura; arkeologia eta etnografia; natura eta mendia; musika eta bertsoak; hizkuntza, hezkuntza eta literatura; kirola; eta kondairak eta bitxikeriak. Eta beti, esan bezala, hernaniar eta hernaniarrok egingakoa ahaztu gabe, gure artean izan edo ez, anonimoak (heldu zein gazte) edo publikoagoak izan. Azkenean, Hernanik eta hernaniarrok dugunaren (eta garenaren) ezagutza zabaltzea iza(te)n da gure xedea.

Bestalde, ugari dira, eta izan dira, argitalpen honetan “guri” buruz idatzi dutenak. Gure eskerrak horiei guztiei, azkenean, horiek baitira, aldizkaria posible egi(te)n dutenak.

Eta eskerrak zuei, irakurleoi, ere; zuek baitzarete, urteak joan urteak etorri, **HERNANI** hori zuen eskuan uzteko ahaleginak egitera bultzatzen gaituzuenak.

Mila esker, denoi!

Hernaniko Udal Gobernu Taldea

1. Zikuñagako Ama kapera.....	9-17
<i>Jose Luis Aperribai</i>	
2. "Arqueología guipuzcoana: Hernani", edo bidai bat XIX. mende bukaerako Hernanira.....	18-24
<i>Alfredo Moraza Barea eta Miren Garcia Dalmau (Aranzadi Z.E.)</i>	
3. Amonen lantxoak.....	25
<i>Eulali Aranburu Urkizu</i>	
4. Vicente Zaragüeta, adiós a un hernaniarra único.....	26-27
<i>Juan F. Manjarres</i>	
5. "Tolare", Sagardo Naturalaren Kofradia.....	28-32
<i>Ainhoa Jauregi</i>	
6. Ilunpetik argitara.....	33-42
<i>Maialen Apezetxea Lujanbio</i>	
7. Tilosetako zuhaitzak bizi-bizirik.....	43-47
<i>Ibai Olariaga</i>	
8. Arrobiyua.....	48-49
<i>Alai Zubimendi, Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Agirre Goia</i>	
9. El molino de Carapote (I).....	50-59
<i>Javi Castro e Iñaki Sanz-Azkue</i>	
10. Garai berri baten hasiera. 1966an, herrian, sona handia izan zuen kultur ekitaldia ospatu zen Aitor antzokian; Ez Dok Amairuren hitzaurre izan zen jaialdia.....	60-65
<i>Jon Odriozola eta Joxan Goikoetxea</i>	
11. Gaztetu Hernani. Gazteek gazteentzat egindako prozesua.....	66-68
<i>Beatriz Mena (Udal haur eta Gazteria teknikaria)</i>	
12. "... nere aitamenak izango dira / beste larogei urtian".....	69
13. Udal Euskaltegiak, 25 urte.....	70
14. Iñigo Legorburu Arregi (Erreterria, 1976): "Eguneroko bizimoduan badaude titularren itzalpean geratzen diren istorio txiki asko".....	71-75
<i>Leire Goñi Iradi</i>	
15. 50 años de la Txaranga Xalaparta, 1966 - 2016.....	76-81
<i>Joxan Ruiz y Mikel Ruiz</i>	
16. Mendietako buzoiak Hernanin.....	82-91
<i>Iñaxio Sanz Zalakain</i>	
17. Apustua Hernanin, bizikleta gizonaren kontra.....	92-93
<i>Joxan Goikoetxea</i>	
18. "Maialen" trainerua.....	94-98
<i>Iñigo Goñi Iradi</i>	
19. Crónica 2015eko kronika.....	99-130

ZIKUÑAGAKO AMA KAPERA

| Jose Luis Aperribai.

SAN JOAN BATAIATZAILEA ELIZA HIRI BARRUAN ERAIKITZEKIO ERABAKIA



Hernani. Garai bateko grabatua.

Duela 500 urte.

XV. mende bukaeran, antzinako parrokia, egungo San Agustin monasterioa, hirigune barrura lekuz aldatzeko asmoa azaldu zuen hiriak. Horretarako, arrazioen artean, aipa daitezke: harresitik kanpo babesik gabe gertatzea negu gogorrean zein gerrate garaian, eta behar besteko lekurik ez edukitzea hazten ari zen herritargoarentzat.

1512. urtea erabakigarria izan zen. Hain zuzen, Gaztelako armadak Nafarroa Garaia konkistatu eta erresuma zatikatu zuen urtean, hemen, Nafarroako erregegaiaren aldeko frantziar armadak, Gaztelako erregearen zerbitzura eta babesean zegoen Hernani hiria arpilatu zuen, eta su eman zion (Irun eta Oiartzunen bezala, Donostiara bidean). Ondorioz, orduko parroki eliza eraitsia eta zerbitzurik gabe geratu zen.



Agustindarren monastegia, antzinako parrokia hiribildutik kanpo.



San Joan Bataiatzailea antzinako parrokiaren atalaurrea (XIII. mendekoa).



Hirigunearen planoa. Hernani gotortua.

San Joan Bataiatzailea Parroki elizaren eraikina (1545 - 1595).

Handik 28 urtera, 1540an, bertako eliz patroia zen Karlos V enperadoreak hiriko plazara aldatzea baimendu zuen parroki elizaren kokagunea. Eta hala, 5 urte geroago, 1545ean, 13 traza desberdin aztertu ondoren, Azpeitiko hargin-maisu ziren Domingo de Olozaga, Miguel de Beramendi eta Andres de Izagirrerekin sinatu zen lanak egiteko kontratua. Hurrengo sei urtetan elizako horma guztiak jaso eta estaliko zituzten, kaperak izan ezik.

Hargin azpeitiarrak hil zirenean, ordea, bertan behera geratu zen elizaren eraikuntza, 1568an Albizturko Miguel de Iriarte maisuak jarraipena eman zion arte. Honek hitzeman zuen elizburua eta alboko bi kaperak egin eta amaituko zituela, lau urtetan arkuak eta leihoak, eta beste bi urtetan kaperak altxatuz. Baina Hernaniko Udalak eta Parrokiak kontratua bete ez zutenez, Iriartek elizlana utzi eta Nafarroara alde egin zuen.



Eliza sabaiko gurutze-ganga.



San Joan Bataiatzailea parroki elizako habeartea.



*Erretaula nagusi berria,
Bernabé Cordero arkitektoak egina
(1624-1629).*



*Lehen erretaula nagusiko sagrarioa,
Ambrosio Bengoetxeak egina
(1551-1625).*

1581ean, presbiterioko arkua erori zen, eta, ondorioz, hiru gizonezko hil ziren. Orduan, Gipuzkoako korrejidoreak eskatuta, Iriarte maisuak lanari ekin zion berriro 1582an, lau urtetan lanak bukatzeko hitza emanez. Baina sei urte ere igarorik, ez zuen eliz eraikuntza burutu. 1588an Iriarte kendu egin zuten eraikuntzatik, eta bere ordez Domingo de Legarburuna eta Francisco de Marrunica hargin-maisuak jarri zituzten. 1595. urtean hauek egindako lana, hiru kaperak ixteari zegokiona, onetsi zuten eta eraikuntza amaitutzat eman.

Azkenik, 1992an, estaldurak berritzeko lanei ekin zioten, bai eraikin nagusikoan bai alboetan erantsitako eraikinetan.

Atalaurrea (1705).

Hernaniarrak eliz aurrealde nagusia nola burutu nahi zen moduarekin ados ez zeudenez, Udalak zera erabaki zuen 1704an: elizaren apainketa, distira eta ikusmirari, eta plaza aldeko guneari zegokion neurriko atalaurrea eranstea. Udalaren beste bilkura batzuetan, gainera, eliz aurrealdean horma-hobi bat egitea hitzartu zen, lehenbiziko erretaula nagusian zegoen San Joan Bataiatzailearen eskultura zaharra bertan kokatzeko. Urte horretako uztailaren 22an bukatu ziren hainbat lan, egun horretan egokitu zuen Pedro de Beroizek santuarentzako horma-hobia; baina baliabide nahikorik ez, eta ezin izan zen osoki egin Martin Zaldia maisuaren proiektua, eta atzeratu egin behar izan zen gaur egun aurkitzen duguna osatzeko, alegia: zutabe eta horma-hobia estaltzen dituen uztai handiaren eraikuntza, eta Pedro eta Paulo santuen irudien kokatzea.



Atalaurrea.

Kanpandorrea (1764).

1593an dorrea eraikitzeke kontratu bat sinaturik bazegoen ere, kontua da eliza 1595ean bukatua zegoela, baina dorrerik gabe. 1673an hitzartu zuten Martin de Carrera eliz langintzako maisu nagusiak aurkeztutako planoen arabera dorrea eraikitzea, Frantziarako errepideko plaza batean oso itxura eskasa ematen zuelako hura burutu gabe ikusteak. Eta, azkenean, Azpeitiko Francisco de Ibero arkitektoaren diseinuaren arabera eraiki zen kanpandorrea 1764an. Geroztik, 1802an, Jose Manuel Irulegi arkitektoak berreraiki zuen dorrea.

1992an, zaharberritze eta eraberritze lanak egin ziren, kanpandorrearen barru zein kanpo aldetik.



Kanpandorrea.

ZIKUÑAGAKO AMA KAPERAKO (1610 - 2016)


Kaperaren historia.

1610ean Francisco de Marrubiza hargin-maisuak elizako sakristia ari zen egiten Miguel de Aranburu fraidearen planoen arabera. 1628an, hiriak izendatutako adituek sakristiako hargintza-lanak eta sabaia ikertu zituzten, eta ontzat eman, erabakitako traza eta izkribuen arabera bete zirelako.


1686an, sakristia zaharrean bere kaperak eraikitzeke Fermin de Sasoeta jaunak Mexikotik egindako eskabideari baldintza hauek ezarri zizkioten: sakristia berria eraikitzea, aldare nagusirako bi ate irekiz alboetatik; kaperak bera eliz aurrealdeari zegokion erara eraikitzea, material egokiak erabiliz. Eta edozein arrazoigatik kaperaren langintzak jarraitzen ez baziren, Parroki Elizaren esku geratuko zela, inongo eskubiderik gabe senitartekoen aldetik. Eta hala, emandako hitza behin eta berriro bete ez izanagatik, Elizaren esku geratu zen 1847an, eta teilatuaren konponketa-lanak egin ziren.

1963an, berogailuaren galdara hantxe instalatu zen. 1992an estaldura berri izan zen eta bertarako atea ireki Ezkiaga pasealekutik. Eta, gaur egun, elizlanak hasi zirela 500 urte eta gero, langintza burutu da Zikuñagako Ama kaperak bertan kokatuz.

San Joan Bataiatzailea zaindariaren eliza lekuz aldatu bazen, duela 500 urte, lehen parroki elizatik (agustindarren monasterioa denetik, alegia), esan behar da Zikuñaganako Ama zaindarikideari ere kulturekua egokitzea bidezko iruditu dela, hain zuzen, bera desagerrarazi zuteneko 37. urtemugako Ostegun Santu egunez.



Parroki elizaren oin-planoa. Zikuñagako Ama kaperaren kokagunea (3).



Parroki elizaren oin-planoa. Zikuñagako Ama kaperaren egitura (3).



Zikuñagako Ama kapera eraiki aurreko itxura.

Zikuñagako kapera berriaren arrazoibidea.


Kapera berria eraikitzeko orduan arrazoi eta osagai desberdinak bildu eta jaso nahi izan dira:

1. Duela lau bat mendeko sakristia zaharrean eraikitzen hasi ziren kapera bukatu gabe utzi zuten. Baditu bere baitan hainbat lan arkitektoniko eder (arku, pilare, hormakonka, kapitel, eta beste apaingarri) bistaratzea merezi izan dutenak.
2. Bada gure Hernani herriaren zaindari dugun Zikuñagako Andre Mariari historikoki zor diogun kultu-leku bat eskaini beharra gure erlijiotasun-bizitzan. Haren imajina desagerrarazi eta ermita eraitsi zutenetik hainbat urte igaro dira. Hori dela eta, kapera, behin bukatu eta gero, berari eskaintzea bidezko iritzi izan da.
3. Ikusirik hildakoen gorpuen errausketa gure artean nola ugaltzen ari den, eta errautsak non ezarri edo barreiatu auzitan dagoen, kapera honetan leku bat egokitzeari on iritzi da. Eta, modu honetan, tradizio zahar bati lotzen gatzazkio: gorpuk eliza barnean ehortzeari, alegia. Osasun eta higieen arrazoiengatik elizetatik eta herritik urrundu baziren oraingo hilerrietara, errauts-kutxategi edo kolunbarioen bidez berriro eliz barnera itzularazteko bide ematen da, bertan gure senide hilen ganako oroitzapena eta elkartasuna iraunarazteko. Ospatuko diren hiletan ondoren bertara eramango ahal dira errauts-ontziak, prozesio batean, famili artekoak lagun direla.
4. Kapera honek beste aukera batzuk eskaintzen ahal ditu: ohiko eguneroko meza toki bilduago batean ospatzea; otoizleku baten premiari erantzutea; kapera ordutegi luzeago batean zabalik mantentzea, otoitzerako zein hildakoak gogoratu eta omentzeko gunea egokitzea, etab.

Hau guztia dela eta, egoki iruditu zaigu Zikuñagako Amaren kapera berriaren proiektua martxan jartzea, eta, berariaz, egun seinlatu batean irekitzea. Hain zuzen, Zikuñagako Andre Mariaren irudia 1979ko Ostegun Santu gauez desagertu bazen, 2016ko Ostegun Santuko arratsean aldatuak izan dira kapera berrira, gaur egun parrokiaren dugun Zikuñagako Amaren irudia eta Jauna bera sakramentuan.

Zikuñagako Amaren kultuaren tradizioaz hitz bi.


Zikuñagako Amaren kultuaren tradizioa oso antzinakoa dugu Hernani herrian. Ez dugu izkribuzko dokumenturik. Zaharrenak 1529koak dira, dohaintzei eta argiztapenari buruzkoak. Baina badugu ahoz ahoko tradizioak, eta Zikuñagako Andre Mariaren argazkirik, ondoren esango duguna argitzeko.




*Zikuñagako ermitako erretaula zaharra, XVII. mendekoa.
Bertan kokatuta zegoen Andre Mariaren irudia XII - XIII. mendekoa zen.*



Zikuñagako Ama kapera bere osoan, eskuin aldetik.



Zikuñagako Ama kapera bere osoan, ezker aldetik.



Errauts-kutxategi edo kolunbarioa.



Errukiaren Ama (XVI. mendekoa).

1948. urte aldera Zikuñagako eliza eta erretaula eraberritu egin zituzten. Ordu arteko erretaula XVII. mendekoa omen zen. Eta bertan, ondoko argazkian ikus daitekeenez, XII-XIII mendeko Andre Mari zuri erromanikoa aurkitzen zen. Irudi hori estanpatxoetan Hernaniko hainbat etxeetan gorde ohi dute gure aitona-amonak. Ines Sarasua Bastidak (1924-2012) idatzirik utzi digu bere testigantza, adieraziz bera haur eta gazte zenean zuria ezagutu zuela, eta urte asko gerora, Bartzelona edo Madrilera eramane zutela irudia zaharberritzera (1949an Pedro de Anasagasti fraide frantziskotar historialariaren arabera), eta, bueltakoan, beltza ekarri zutela. Bere ahotik eta Maritxu Izagirre Esnaola (1906-2002) parroko serorarengandik gauza bera entzun nuen nik, Hernanira apaiz etorri berri nintzenean, eta irudi zaharraren estanpatxoa ere eman zidaten eskura. Eta aipatzen dute, Juan Miguel Rezola Azpiazu arkitektoak (1918-2009) argitara eman zuela prentsako artikulua bat, esanez: “XX.eko lehen menderdian tonu argiz polikromatua zegoela”. Halere, Zikuñagako “Gipuzkoako 7 Amabirjin beltzetako bat dela” dioten kontraera da nagusi historialarien artean.



Ezkerrean, XII-XIII mendeko Andre Mari erromanikoa zuria zen, argazkian ikusten dugun bezala. Erdiko estampa atzean, “1946ko irailak 8”ko data dator. Eskuinean, zaharberritzera eramane zuten 1949an, eta, bueltan, beltza ekarri.

Badirudi sona eta harrera handia izan zuela Zikuñagako Amarenganako debozioak bertakoen eta kanpotik etorritako erromesen artean. Hala, herriko apaiz-biltzarrak eta Udalak eskatuta, 1954an herriko zaindari izendatu zuen gotzaindegiak.

Geroztik, ermita botatzea eta lekuz aldatzea hitzartu zen 1986ko abenduaren 13rako. 1985eko irailaren 7an ospatu zen azken meza ermitan. Aldez aurretik, ordea, 1979ko apirilaren 12ko Ostegun Santu gauean desagerrarazi zen Andre Mariaren irudia.

Hura gertatu eta gero, ermitan egon zen eta gerora parroki elizara ekarri zen irudiaren koadroa. Koadro horretan oinarrituta, eta ermitako seroraren xehetasunak aintzat hartuz, haren erreplika bat moldeatu zuten Dionisio Garcia eskulturgile donostiarrak eta Sindy Santiago de Astarbe polikromatzaile hernaniarrak, eta 1987ko apirilaren 11n parrokiaren kokatu zuten. Gaur egun, Zikuñagako Ama kaperak berrira aldatua dago.



*Ermita zaharberrituta, azken mezako argazkia.
Desagertutako Andre Mariaren irudia haren koadroz
ordezkaturik dago.*



Zikuñagako Amaren irudia.



Zikuñagako Ama kapera, aurrealdea.

Honekin guztiarekin ez dut inondik ere Zikuñagako Amaren irudi aldaketa dela-eta, inor zapuzturik eta mindurik utzi nahi. Alderantziz, baizik. Berarekiko kultu eta tradizio erlijiosoak, aldaketak aldaketa, bizi-bizi irauten duela gure herri honetan ohartarazi nahi nuke. Eta, bereziki, neure omena eskaini nahi diet, Zikuñaga auzoan urterik urte zaindariaren festa-eguna ospatzen duten auzokideei, eta, bereziki, hain gogotsu eta xeratsu eratzen eta girotzen diharduen gazte taldeari. Bejondeiela!

*Nire eskerrona adierazi nahi diet hemendik idatzi honetarako osagai izan diren testu,
argazki eta idarokizunak eskaini dizkidaten pertsona guztiei.*

Bibliografia iturriak

- Elizondo Camio, Juan Ignacio (arkitektoa): "La Iglesia Parroquial de San Juan Bautista. Hernani" (argitaragabeko txostena). Datarik gabe.
- Aguirre Sorondo, Antxon (antropologoa): "Zikuñagako ermita".
Zikuñagako Ermitaren Aldeko Batzordea - San Joan Konpartsa. Hernani. 1999.

"ARQUEOLOGIA GUIPUZCOANA: HERNANI"

EDO BIDAI BAT XIX. MENDE BUKAERAKO HERNANIRA

| **Alfredo Moraza eta Miren Garcia Dalmau (Aranzadi Z. E.).**

XIX. mende bukaeran gipuzkoar gizartea, eta zehazki hiriburu donostiarraren ingurua, kulturaren goren aldia izan zen. Arestiko karlisten gatazkek (1872-1876) eragindako zauriak ixtearekin batera, lurraldeak garapen ekonomiko eta kultural bat bizi zuen. Testuinguru horretan intelektual talde batek abian jarri zuen Gipuzkoako Memoria Historikoa berreskuratzeko egitasmo eraginkor eta dinamikoa: Monumentu Batzordea.

Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordeak XIX. mende erdialdean jaio ziren berez, 1844 inguruan, elizaren ondasunetan (eraikinak, agiritegiak, liburutegiak...) desamortizazioak eta espekulazioak Estatua-ren Ondarean eragindako hondamena eta arpilatzeari erantzunez. Hainbat epetan (1844-1846 eta 1865-1872) huts egin ondoren, Batzorde hori Donostian birsortu zen 1891 inguruan, dinamismo eta lorpenhandiko denboraldi bati hasiera emanez. Jarduera hori gauzatu zen eraikin batzuk Monumentu Nazionala izendatzean (Getariako San Salvador eliza, Donostiako El Macho gaztelua eta San Telmo komentu ohia...), jardunaldi zientifikoak antolatzean, lurraldeko zenbait bazterreko ikerketa arkeologikoak sustatzean, eta/edo hedatze baliabideak bultzatzean. Bere lanak "*Euskal-Erria*" aldizkarian argitaratu ziren.

Talde horren kide nabarmenetako bi Antonio Arzak eta Pedro Manuel Soraluze izan ziren. Horiek 1894. urtean irteera batzuk egin zituzten Hernanin zehar, bere ondarearen balioaz jabetzeko, etxe nagusiak bisitatzeko eta herri honi buruzko datuak jasotzeko "*Arqueología Guipuzcoana: Hernani*" izenburupean.

Antonio Arzak Alberdi Donostian jaio zen 1855ean, bertan hil zelarik 1904an. Idazle ospetsua, musikaria eta kultura sustatzailea izan zen. Liburutegi Municipalaren zuzendaria izan zen, eta Donostiako Orfeoien sortzaileetako bat, hala nola antzerki sustatzaile garrantzitsua, "*Euskal Erria*" aldizkariaren zuzendari izanez hogeitau urte baino gehiagotan. Halaber, euskaltzale garrantzitsu bat izan zen, eta euskaraz egindako idatzi ugariaren egilea (olerkiak, bertsoak, kazetari-lanak). Hil zenean, bere lagunek epitafio hau eskaini zioten: "*Bera zan gure argibidea, berak gidatzen ginduan, euskal zaliak gelditu gera ume zurtzaren moduan*".

Pedro Manuel Soraluze Zubizarreta Donostian jaioa 1857an, 1919an hil zen. Nicolas Soraluze historialari ospetsuaren semea, bera ere historialari garrantzitsua, kazetaria eta kultura sustatzailea izan zen. Euskal Herriko arkeologia, biografia, agiritegi ikerketa eta/edo beste gai historikori buruz lan ugari egin zituen. 1902an zabaldu berri zegoen San Telmo Museoko lehenengo zuzendaria izendatua izan zen.

Ondorengo lerroetan zehar Arzak eta Soralucek Hernanira egindako "espedizio"ei buruz utzitako aburuak jasoko ditugu, testuak errespetatuz 1894an idatzita utzi zituzten bezala.

"El mes de Diciembre del año pasado, paseándonos en el solitario cuanto pintoresco Urgull-mendi, de nuestra querida Donostia y hablando sobre arqueología con el ilustrado y celoso Inspector de los archivos municipales de Guipúzcoa D. Serapio Múgica, nos preguntó si conocíamos ó teníamos noticia de una antigua puerta existente en Hernani y de la cual le habían hecho grandes elogios por su mérito. La puerta era el pórtico del convento de agustinas canónigas de Hernani, según supimos por nuestro consultor el inteligente arquitecto Sr. Goicoa, quien nos dijo que merecía que la examinásemos detenidamente, y más aun que se sacaran fotografías detalladas de la parte inferior de la misma".

¹ Lana "*Euskal Erria*" aldizkarian argitaratu zen, zehazki 1894ko XXX. (340-343, 377-382, 442-448, 507-512 y 572-576 orr.) eta XXXI. (172-176 eta 277-282 orr.) zenbakietan.

Jakin-minak harrapatuta bi lagunak urtarilaren 20an Oriamendiko errepidean zehar oinez abiatu ziren:



San Agustín komentuko atalaurrea.

"No bien entramos en Hernani, nos pusimos a contemplar el pórtico del convento de canónigas regulares de San Agustín, cuando nos encontramos frente á frente del precioso aunque pequeño monumento arqueológico guipuzcoano, vestigio de la arquitectura del XII al XIII. (...) Lástima grande que los aditamentos que aparecen sobre el segundo cuerpo para formar el campanario del convento, obras al parecer del siglo pasado, bastardeen aquel bello monumento románico-ojival, tanto más de apreciar y admirar en Guipúzcoa por lo raro de los ejemplares hoy en día existentes entre nosotros.

Entramos luego en el templo del Señor y al salir tuvimos el gusto de saludar al digno vicario de las Religiosas canónigas agustinas don Juan de Goicoechea, bondadosísimo sacerdote, entusiasta de las glorias y recuerdos de este noble solar. Este nos mostró también el retrato al óleo del afamado bascófilo del siglo pasado, el jesuita Cardaveraz, que se conserva en el locutorio".

Hiriburura trenez itzuli ondoren, bigarren irteera bat antolatzen hasi ziren, Goicoechea bikarioa eta bertako eskribau zen Soroaren laguntzaz jasotako datu interesgarriekin. Bigarren irteera otsailaren 6an egin zuten, Hernanira Astigarragatik helduz.

"En Hernani emprendimos la exploración por una callejuela exterior estrecha y formada por las antiguas casas de la villa, (que constituían la muralla de defensa), y las tapias de las huertas vecinas.

*Una de las primeras casas que llamaron nuestra atención por su fábrica, fué la denominada **Amarrandegi atzia**, cuyos ventanales, formados por arcos de medio punto, arcadas de fuerte y bien labrado dovelage, dan carácter al edificio.*

Súbese al primer piso, cual en las antiguas casas, por escalera exterior de piedra. Dicha finca, que perteneció á los Condes de la Vega de Sella, es actualmente de la familia de Rezola, y su mismo nombre... indica que debió ser propiedad del cabildo eclesiástico en los inolvidables tiempos forales.

Caminando por aquella desviada callejuela, continuamos examinando las fachadas posteriores de las casas de Hernani que dan á Santa Bárbara, notando con gusto algunos portales ojivales de defensa, restos de matabancos, ménsulas, saeteras, puertas góticas y de medio punto, así como trazas de edificios más característicos por sus modillones, canecillos, etc.

*Intrigados con lo que habíamos visto, volvimos á salir á la callejuela, y al notar que allí cerca había una arcada ojival, que es una de las **puertas de las murallas**² de Hernani... penetramos en el casco del pueblo por la puerta ya citada, siguiendo un estrecho*



Hirira sartzeko atea, Erdi Arokoa (Atzieta kalea – Felipe Sagarna "Zapa" kalea).

² Felipe Sagarna "Zapa" kaleko (Atzieta kaleko) atea.

y negro pasadizo. Sobre este portalón ojival militar, destacan aún varios pequeños canecillos que debieron servir indudablemente para soportar alguna ladronera ó atalaya de defensa. También en la muralla, lado izquierdo, mirando de frente á la puerta por la parte exterior, se ve una gran saetera y debajo de ella una abertura como si hubiera servido para hacer fuego con un pedrero. De lejos, ambos elementos militares parecían constituir una saetera de las llamadas de ojal.

Ya en la calle Mayor, nos encontramos con una gran mansión señorial del siglo XVII, y á ella adosado, el mismo extraño edificio en el cual nos habíamos fijado en nuestro primer viaje al pasar por el interior de la villa, y cuya fachada posterior veíamos ahora al penetrar en aquella casa de las ventanas florenzadas. Es esta casa torre una verdadera fortaleza, una de esas pesadas y fuertes construcciones militares de la Edad Media, que tanto abundan en el Norte de España y que aún conservan marcado sello del siglo XIV. Las escasas y espaciadas fenestras de esta casa-torre, mejor dicho, antiguas saeteras ó ballesteras, convertidas hoy en balcones rudimentarios, lo macizo de sus paredes, su portada central de medio punto, sus fuertes dovelas, y unas trazas como algo de extraño que se veía entre el ras de la calle y una ventana situada á la izquierda de la puerta, á pocos metros del suelo, todo nos cautivaba mas y más. Al fijarse los inquilinos en la atención con que mirábamos estos detalles, nos dijeron que, segun testimonio de ancianos, desde la calle hasta aquella ventana existió una escalera de piedra, que fué derribada por los franceses en tiempo de Napoleón I, porque dificultaba el cruce de los carros y cañones de la artillería imperial. Nos agregaron, que aún á principios de este siglo las ventanas, troneras y puertas estaban chapeadas de hierro, ó eran de hierro todas ellas, siendo posteriormente mandadas á la ferrería de Fagollaga para que utilizaran estos revestimientos. Conversando en el desván con los inquilinos sobre lo que teníamos á la vista, nos refirieron unos ancianos al ver nuestro entusiasmo por aquellas pareta-zarrak (vetustos muros), que sabían, por tradición, que dicha casa fué una fortaleza, que era mucho más elevada que lo es en la actualidad y que en lo alto tenía piedras con agujeros por donde se podía sacar la cabeza, y miradores en las esquinas. ¿Si querrán referirse á las almenas, barbaccanas, matacanes y atalayas, elementos militares tan características de la Edad Media? Este imponente y característico edificio, con marcado sello del XIV, es conocido bajo el nombre de **Amurube**³, pertenece al vínculo de Miner, allegados del marquesado de Rocaverde, y según los datos reunidos fué la mansión de la Casa Miner-Ereñozu.



Dorretxea (Kale Nagusia 13) eta Aierdi etxea (Kale Nagusia 15).

En la misma calle, un poco más abajo, conforme se va al Convento, y en la acera derecha, existe un lindo edificio, verdadero monumento en Guipúzcoa, del estilo ojival terciario en su tránsito al plateresco, y sin disputa uno de los más dignos de atención en esta provincia, por su sencillez. Nos referimos á la casa de la calle Mayor, denominada **Beroiz-enea**⁴, segun nos

³ Kale Nagusia 13.

⁴ Kale Nagusia 42.

dijeron. ¡Qué preciosidad es este pequeño monumento arquitectónico!. Consta de un primer piso, con su balconadura corrida donde toman sus luces un balcon y dos ventanas; y de otro superior, casi oculto bajo el ancho cuanto sencillo, elegante y pronunciado alero de dicha morada sostenido por airoas ménsulas. En este segundo piso existe, en el centro, un pequeño balcon, y á sus costados laterales dos ventanas. La puerta de la calle está exornada con dos pequeños escudos de armas en las contraclaves, y junto á ella, en el piso llano, se ve otra ventana. Por esta descripción, puede considerarse la sencillez de esta morada, que tanto más encanta cuanto más se la estudia, y cuyos bonitos arcos canopiales, trazados con la pureza y elegancia del gótico flameante correspondiente al siglo XV y una parte del XVI, coronan tan esbeltamente sus puertas y ventanas. El conjunto todo, realizado por los perfiles de los arcos canopiales llamados también florenzados, hacen que indudablemente sea dicha aristocrática morada, de principios del siglo XVI, uno de los monumentos más dignos de llamar la atención entre los de Guipúzcoa.

Lindante con esta misma casa existe, según se va hácia la plaza principal, un pequeño edificio, de fuertes paredes, cuya fachada, aunque muy reformada, acusa la arquitectura del XIV-XV. Es digna de estudio una gran portada de medio punto que tiene debajo otra, formando especie de arco inglés ojival. Resaltan en la dovela central, formando clave, un escudo con el monograma de N. S. Jesucristo y una pequeña inscripción que no pudimos descifrar por estar recubierta con un baño de cal. Esta casa, que se llama **Alceaga**⁵, según nos dijeron, es la célebre derribada por Enrique IV, y bien merece que sus propietarios manden limpiar cuidadosamente su pórtico y escudo.

En la acera opuesta, y adosada á la casa-torre del siglo XIV, que ya hemos descrito, llama la atención por su ampulosa grandiosidad aquella otra soberbia morada, un palacio, donde se refleja la arquitectura del siglo XVII, de los últimos Austrias (...) Al primer golpe de vista, al mirar dicha morada con sus salientes y trabajados aleros, sus artísticas ménsulas, carcomidas ya algunas, sus exornadas balconaduras, sus gigantescos blasones, donde resalta el mote heráldico **Egino**⁶, todo fabricado á lo grande, quedan la imaginación y el pensamiento



Egino etxea (Kale nagusia 17).

⁵ Kale Nagusia 38.

⁶ Kale Nagusia 17 (Egino etxea).

completamente maravillados. Pero lo que sí hay que examinar y aplaudir con cariño y hasta con entusiasmo, es lo acabado de la construcción material, en cuanto á la fabrica y á lo notable de los trabajos del hierro en puertas, balconaduras y ventanas, todo lo cual enaltece más y más la habilidad y el sentimiento artístico de los canteros y cerrajeros de este noble solar, cuya fama ha sido y es siempre tan justamente celebrada.

Entre las moradas señoriales estilo fines siglo XVII, solo haremos mención, por su valor histórico, de la casa situada en la calle del Urumea, número 27, y llamada **Apolenea**⁷, que es donde nació el insigne bascófilo, jesuita R. P. Agustín de Cardaveraz, en 29 de Diciembre de 1703, y de quien dice D. Nicolás de Soraluze en su Historia general de Guipúzcoa (tomo I), que fué varón ejemplar y célebre misionero, autor, entre otras obras, del Tratado de la Retórica bascongada, impresa en Pamplona en 1761, obra donde tanto enaltece y prueba con reglas y ejemplos la grandiosidad y ventajas del bascuence para toda clase de elocuencias. Dicha casa-palacio del P. Cardaveraz consta de dos pisos, y por su fábrica con balconaduras, cerrajería y alero típico es, en su estilo, de lo mejor, por ser más sencilla la inspiración arquitectónica que allí impera, sin nada de esas fastuosas ampulósidades de las casas grandes del XVII. En el piso alto existe una capilla. La morada toda se halla actualmente cerrada por no haberse hecho las particiones entre la familia Aplazaola, propietaria de dicha finca.

Al bajar la calle del Urumea, en el extremo oriental de la plazuela-mercado allí existente, destacanse dos construcciones medioevales denominadas **Portalondo**⁸ y Garro. Examinando detenidamente Portalondo se ve en seguida que fué una casa fuerte, obra, la cimentación y basamento, del siglo XV, y la parte superior reformada de á principios del XVI; constituyéndose perfecto cuadrilátero el conjunto todo. El terreno que rodea esta casa, donde se halla una efigie de Nuestra Señora del Rosario, según nos manifestó D. Carmelo de Echegaray, ha debido sufrir indudablemente una gran elevación, como lo comprueban, entre otras razones,



Jentilen dorretxea edo Portalondo etxea (Andre kalea 46).

⁷ Andre Kalea 25.

⁸ Andre Kalea 46.

las saeteras llamadas de ojal, que aparecen hoy, harto rebajadas, en su lienzo septentrional y otros detalles arquitectónicos. El edificio es todo de sillería, fuerte y de bien construida masa de piedra. En el interior pudimos estudiar con toda detención una especie de alféizar existente en la planta baja que da á la plaza. Lleva dos sillares á los costados que servirían indudablemente de asiento á los saeteros que desde allí vigilaban y disparaban sus flechas, arcabuces y materias ígneas, sin presentar blanco alguno. Este edificio, con sello militar de fines de la Edad Media, si bien con ciertos resabios, que indican el tránsito al Renacimiento en su parte alta, servía indudablemente, como lo prueban su nombre y posición, de defensa de la puerta allí existente que daba al valle del Urumea y también de entrada á la villa.

La otra casa es la llamada **Garro**⁹, cuya portada de arco de medio punto, con sus robustas dovelas, el partido ventanal gótico, y demás detalles de su frente que mira á la citada plaza del mercado, dan al edificio un marcado sello peculiar de esas arcaicas caserías solariegas euskaras”.

Gune Historikoaren eraikuntza nagusien azterketa sakona egin ondoren, bidaiariak San Agustín komentura bueltatu ziren bidaia amaitzeko.

“Vamos á ocuparnos ahora del convento de las Señoras Religiosas Canónigas de San Agustín y de su linda portada, estilo transición, románico ojival (XII al XIII); una de las pocas manifestaciones de dicho arte, que se conocen hasta ahora en Guipúzcoa. El actual Monasterio de Religiosas Canónigas Regulares del Orden de Nuestro Gran Padre y Doctor de la Iglesia Cathólica San Agustín, en la villa de Hernani, fué fundado en 1544 por D. Juan Martín de Ereñozu (según unos documentos, y Juan Martínez de Herezeñu según otros) en el solar que ocupó la primitiva iglesia parroquial trasladada á la actual de San Juan Bautista, fábrica de fines del XV y principios del XVI cual otras muchas de Guipúzcoa. El acaudalado propietario D. Juan Martínez de Ereñezu y su mujer, señores dueños y poseedores de la casa de Ereñezu, según aparece en la documentación, dotaron espléndidamente á dicho Capítulo de Damas, en el cual ingresaron siete de las más principales de Hernani, y también dos de sus hijas, D.^a Mariana de Ereñezu (Priora) y D.^a María Lopez de Ereñezu, así como luego varias señoritas de la ilustre familia de los almirantes Oquendo y otras nobilísimas del solar euskaro. La Comunidad por concordia con la villa de Hernani, hízose propietaria de la primitiva parroquia, y para perfeccionarse más en su vida y santidad, pidió la Regla de San Agustín.

El conjunto de la fábrica de la actual iglesia y monasterio, no obstante las muchas transformaciones que ha sufrido, lleva en sí el sello del siglo XVI-XVII como se comprueba con examinar detenidamente las paredes maestras y otros detalles arquitectónicos, aunque á primera vista las renovaciones sucesivas le han hecho perder el sabor de la época. El monasterio se quemó en tiempo de la francesada, y sirvió de almacenes á ambos bandos durante la primera guerra civil. El interior de la iglesia, tanto por sus detalles como por el conjunto, estilo de los altares, etc., se ve ha sido restaurado al gusto del siglo pasado, habiendo desaparecido del todo á la vista, cuantos vestigios románicos ú ojivales pudieran haberse conservado de la parroquia matriz. La estructura, el interior del templo de una sola nave y la alineación de las fábricas, verdaderas murallas, prueban que se ha seguido la traza primitiva de la iglesia, y sobre todo se nota cómo el ábside, según el ritual de la primitiva Iglesia, se halla lo que se llama orientado, es decir, que el eje de aquel sagrado lugar está colocado aproximadamente en la dirección de Oeste á Este. El pórtico principal no se halla aquí en el imafrente (ó sea la fachada del pie de la iglesia), ni creemos que nunca haya estado allí, á no ser en pleno período románico, por su relación al eje longitudinal de la iglesia y de la cual no hay traza alguna, salvo una puerta de arco de medio punto, hoy del todo tapiada. El pórtico del actual Monasterio presenta el característico sello de la época de transición, tipo de la arquitectura románico-ogival, de las

⁹ Andre Kalea 40.

construcciones de fines del XII y principios del XIII (...) La torre en que se asienta el pórtico, masa que sobresale del plano general del edificio pocos metros, consta de cuatro cuerpos, rematando el último una especie de espadaña á la manera de las que se notan algunas iglesias de los Pirineos franceses. En el tercer cuerpo, separado por una banda, se ven tres ventanas apersianadas, existiendo allí, en los costados de la central, cual adorno y refuerzo, dos columnas dóricas, sacadas no sabemos de donde. El remetido pórtico con todos los caracteres de la época de transición del románico al ojival, consta de cinco órdenes de archivoltas con sus correspondientes columnas. Los perfiles de las archivoltas, donde se ve ya iniciada la ojival pero presentando el conjunto resabios del arco románico, son muy sencillos, cual corresponde á la época ojival del siglo XIII. El segundo cuerpo de la torre, situado entre la portada y el tercero, donde hemos dicho existían aquellas dos anacrónicas columnas dóricas, presenta igualmente el sello de la época; está separado de los cuerpos citados por dos bandas, llamándonos la atención que en su centro no exista ni haya traza de haber habido el típico rosetón, la fenestra arcular con que en el estilo románico principalmente decoraba el alto de los pórticos, sirviendo á la vez para dar luz al interior del templo” (...) A la izquierda del pórtico, mirando nosotros de frente, existe el piso alto, bajo el alero, en el cuerpo general del edificio, ó sea al costado de la torre, una ventana con una verja, trabajo de cerrajería muy notable y que honra á los herreros de Guipúzcoa”.

Bere deskribapenekin ikusi ahal izan dugu nola gure adituek kaskoko eraikuntza nagusienak aztertzen dituzte. Eskaintzen duten kontaketa eta deskribapenekin ikusi dezakegu eraikin horietako batzuk gaur egun zutik dirautela, eta nahiz eta aldaketa ugari jasan izan, miretsi ditzakegula oraindik ere. Beste batzuk, ordea, betirako desagertu dira, edo aldatuak izan dira 1894an Arzak eta Soraluek aipatutako elementuak galduz. Testu hau gera dadila oso aberatsa, eta, era berean, oso ahula den Ondare Kultural baten lekukotasun bezala. Hernaniarrentzat eta bertako agintarientzat askotan ohartu gabeko ondarea izanik, gure txangozaleen hitzok gera daitezen oroigarri gisa.

Koadro hauek denboran atzera begiratuta aspaldiko Hernaniko xaharren kontutxoek testigantza ematen diguten oroigarriak dira, niri atsegin zaizkidanak.

AMONA guztiak moñoñak dira, errespetua merezi dute, lanean asper-ezinak, eta sukaldeko epeltasunean ondo-rengoei dakiten guztia erakusten baitiete.

Hemen dakarzkit ehun urte dituzten koadro hauen kondaira edo istorio horien nondik norakoak.

Bost bat urte badira Andre kaleko etxe batera, joan eta sukaldean zeukaten koadroak ikusmina sortu zidala. Hain polita iruditu, bi galdera egin nizkion etxekoandreari:

- Noizkoa da koadro hau?
- Ene! Nik beti hortxe ezagutu det, gutxinez ehun urte baditu gure sukaldean.
- Nork egiña da?
- Ez dakit.

Nik orduan, lotsagabe, eskatu egin nion, kopia bat ateratzeko. Horrela, koadroa etxeratu, dena askatu, kopia atera, txukundu, berritu eta berriz ere jabeari eraman nion.



Handik bi edo hiru urtera, Kale Nagusiko etxe baten sarreran sartu nintzen nagusiaren baimenarekin, eta eskuinetara begiratzuz, hantxe zintzilik ikusi nuen bigarren koadroa. Zein amonatxo polita, guapa, ilobatxoari ilea orrazten! Liluratu nintzen, eta bide berdina hartu nuen: eskatu, kopia atera, berritu... Nagusiarri bi galdera egin eta iritsi nuen erantzuna: *"Hori Andresenekuak nere izeberi emana"*.

"Andresenea"n Elkar liburu denda dago orain, baina hor, aspaldian, okindegi bat zegoen, ogia bakarrik saltzen zuten bi emakumek, bat alarguna eta bestea ezkongai; hau zen pintatzen aritzen zena, eta oso ona omen zen.

Nik nire baitan bi koadro horiek lotu egin ditut. Orain eredu-zko Amonak dira.

Harridura sortu zitzaidan hainbeste urtetan nola jaso izan diren. Horregatik, maitasunez, koadroak jaso dituztenei, nire eskerrak.

VICENTE ZARAGÜETA

ADIÓS A UN HERNANIARRA ÚNICO

| Juan F. Manjarres



En el mes de diciembre del año pasado nos dejó una de las figuras más importantes que ha tenido Hernani en la última época. Vicente Zaragüeta fue un empresario que tocó muchos sectores con éxito, pero que si algo fue, fue un hernaniarra de pro. Aunque cuando se casó, con 30 años, dejó su Hernani natal para marchar a la capital guipuzcoana, la realidad es que siempre dejó bien claro de dónde venía, y mostró con orgullo un “ser de Hernani” que nunca quiso olvidar. Zaragüeta no fue un hernaniarra más, sin duda alguna, pero tampoco Hernani fue un lugar más para nuestro protagonista.

Incontables son las veces que Vicente Zaragüeta ha abierto las puertas de la casa familiar, en la calle Mayor, para mostrar orgulloso a todo el que lo quiso ver y disfrutar lo que acabó convirtiéndose en un pequeño museo. Si de algo estaba orgulloso era de eso, de su pasado hernaniarra y de una casa familiar que le traía especiales recuerdos. Una casa famosa por su emblemática armadura, y espectacular ya su vista exterior. El que fuera presidente del Aquarium donostiarra no dejaba pasar unas fiestas de San Juan sin abrir sus puertas e integrarla en la calle.

Una vez que Vicente se ha ido, hemos podido acercarnos a lo que fue para él Hernani de la mano de su hija, Blanca Zaragüeta. Junto a su hermana Kontxu y su madre Teresa Zulaika, mantienen el recuerdo de Vicente, que siempre estará muy unido a la localidad. *“A nosotras nos transmitió ese amor por Hernani. Lo cierto es que venir con el Aita a Hernani suponía no poder avanzar diez pasos sin pararte. Era muy conocido y creo que muy querido por la gente. Él quería a la gente de Hernani y la gente también a él”.*

Si algo resume a la perfección la figura de Vicente Zaragüeta son las palabras respeto y amor. *“Él siempre respetó, entendía la cultura como una manera de entenderse y llevó esta idea hasta el final. Una prueba es que se ha llevado bien con Ayuntamientos de todos los colores”.*

Algo que ha dejado en Hernani es una casa, la ubicada en la calle Mayor, con mucha historia. Es la casa familiar, en la que vivió con su familia un Vicente Zaragüeta niño, que con apenas 7 años quedó huérfano de padre. Allí residió hasta los 30 años, cuando salió de Hernani para marchar a Donostia tras casarse. Pero siempre regresaba. Era impensable pasar unos ‘sanjuanés’ sin verle en la calle. *“No era mucho de fiesta y sociedades, pero sí que es verdad que disfrutaba de manera especial con la azeri dantza, el paso de la Banda de Música o la Misa Mayor”.* Y anécdotas no le faltan, desde la ocasión en la que le pilló el toro, allá por el año 1978, en la entonces concurrida plaza de toros que se colocaba en la Plaza de los Gudaris, donde se celebraba un festejo todavía recordado por muchos, como otras vividas junto a la puerta de su casa.

Pero regresando a una vivienda única... allí se terminó de escribir el cancionero vasco del Padre Donostia o se conserva la biblioteca de Juan Zaragüeta o Vicente Arnáez. Un lugar por el que pasaron literatos, artistas o pintores de renombre, y que ha sido incluso utilizada por las instituciones, como la última recepción que se ofreció a los inversores japoneses que entonces acudían a Hernani para visitar las instalaciones de la empresa de refractarios AMR.

Pero dentro de ese respeto y amor hacia Hernani, a él le gustaba remarcar los muchos recuerdos que conservaba de sus 30 años viviendo en la localidad. Fue de los primeros en poseer una motocicleta en

Hernani, y algunos recordarán todavía los paseos que daba a todos aquellos que se lo reclamaban. O su mirada a lo alto del campanario de la iglesia San Juan Bautista, en su gusto por contemplar a vista de pájaro la localidad. Muy ligado a la naturaleza, siempre mantuvo una importante ligazón con Hernani y los hernaniarras.

Persona reconocida en muchos sectores, dos de los homenajes más bonitos los recibió en su Hernani natal. Primero fue nombrado cofrade de honor de la sidra por la recientemente desaparecida cofradía, y luego fue nombrado alcalde de honor del Casco Histórico, en una celebración que vivió de manera muy intensa.



Vicente Zaragüeta fue nombrado cofrade de honor de la Cofradía de la Sidra Natural "Tolare" en 1999.

Está claro que con su fallecimiento San Sebastián y también Gipuzkoa ha perdido a uno de sus grandes embajadores, y a un hombre irreplicable. Vicente Zaragüeta, vicepresidente de El Diario Vasco, presidente de la Sociedad Oceanográfica de Gipuzkoa y miembro de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, fue el artífice del fulgurante resurgimiento del Aquarium donostiarra y un firme defensor de Euskadi por encima de ideologías.

Uno de sus grandes amores fue el Aquarium, museo que comenzó a presidir en 1996. Desde entonces ha logrado convertirlo en uno de los centros más importantes de Europa, dedicado a la investigación del medio marino, a la docencia y al ocio cultural. Lo hizo con un tesón indomable que tuvo sus frutos en 1998 con la inauguración del gran oceanario con su túnel de 360 grados, y la creación de un master europeo en Biología Marina. Fue también su perseverancia la que hizo posible imágenes impensables, como la presencia de Carolina de Mónaco en Donostia, en noviembre de 2009, y la visita, dos años después, de su hermano Alberto.



Vicente Zaragüeta, alcalde de honor del Casco Histórico (2011-07-16).

Vicente Zaragüeta nació en 1926 en Hernani, en el seno de una familia con raíces navarras y gasconas. Huérfano de padre siendo aún niño, siempre consideró como sus mentores a su abuelo, Vicente Laffitte Obineta, primer presidente del Aquarium; su tío Pedro Zaragüeta, alcalde de San Sebastián entre 1920 y 1922, y su también tío Juan Zaragüeta, sacerdote y uno de los más relevantes filósofos del siglo XX en España. Este último sostenía que «solo son razonables los métodos que se ajustan a la realidad en todos sus aspectos». Es una idea que Vicente, sin duda, hizo suya y guio sus pasos a lo largo de su vida.

“TOLARE” SAGARDO NATURALAREN KOFRADIA

| **Ainhoa Jauregi.**

**TOLARE GIPUZKOAKO SAGARDO NATURALAREN HERNANIKO KOFRADIA
DESEGITEA ERABAKI DUTE, 20 URTEREN OSTEAN. DIRU-LAGUNTZA
FALTA ETA SEGIDARIK EZ IZATEA IZAN DIRA KOFRADIA
BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOI NAGUSIAK.**



“Tolare”, Sagardo Naturalaren Hernaniko Kofradia (1996 mar. 24).



Kontxi Zubeldia

1996an sortu zen TOLARE Kofradia, Hernaniko BERRIAK Merkataritza Elkartearen babespean. Urte hauetan guztietan, jende askok parte hartu du, bai Kofradian, baita Kofradiako kideek antolatutako ekintzetan ere; nabarmenenak: Sagardoaren Kapitulua eta Sagarraren eta Sagardoaren Eguna.

Azken urteotan TOLAREko lehendakaria izan den Kontxi Zubeldiarekin lasai hitz egiteko aukera izan dugu. Urte hauetan guztietan, primeran pasatu duela antzematen da, eta Kofradiaren desegiteak pena handia ematen diola ere bai.

Noiz eta nola sortu zen TOLARE Sagardo Naturalaren Kofradia? Zein helbururekin?

Orain dela hogeitazortzi urte sortu zen Kofradia. Orduan, ni ez nengoen, baina herriari “txispa” jartzeko helburuarekin sortu zela badakit. Ondoren, hori lortu zenean, sagardoari protagonismo gehiago ematea erabaki zen, edari goxo hau nabarmendu behar genuen. Inguru honetan, sagardoak eta sagardotegiekin sortzen baitzuten giroa. Gaur egun bezala.

“Herriari txispa piska bat jartzeko helburuarekin sortu zen kofradia”.

Nolako bilakaera izan du?

Pixkanaka-pixkanaka, herritar gehiago gehitu ginen hasierako talde horretara, eta sagardogileekin batera, sagardoren defentsan lanean hasi ginen; 90 pertsona inguru elkartu ginen. Urtero, martxoko hirugarren igandean Sagardoaren Kapituluak ospatzen hasi ginen. Bertan, ohorezko kofradiakide berriak izendatzen genituen. Egun horretan, kanpoko beste kofradia batzuk etortzen ziren beren ohiko jantziekin apainduta, eta herriko kale garrantzitsuenetan zehar desfilea egiten genuen, Udal Bandaren doinuek lagunduta. Ondoren, kofradiakide berrien tronuratzea eta juramentua egiten zen, eta, azkenik, Hernaniko sagardotegi batean anaitasun-bazkaria egiten genuen.

Nola aukeratzen zenituzten ohorezko kofradiakide berriak?

Kofradiako kideak elkartzen ginen, eta pertsona ezagun edo ospetsu desberdinetan pentsatzen genuen. Gero, leku batera eta bestera deitzen hasten ginen, pertsonai horien kontaktua lortu arte. Lagun edo ezagunen bitartez ere lortu izan ditugu kofradiakide berri batzuk ere.

OHOREZKO KOFRADIAKIDE BERRIAK

Zeintzuk izan dira, urte hauetan guztietan, kofradiakide berri horiek?

Arlo desberdinetan adituak diren pertsona ugari izendatu ditugu ohorezko kofradiakide berri.

Sagardoaren munduarekin lotuta:

- Rosario Zapiain.
- Rufino Izagirre.
- Luis Gorrotxategi.
- Juan Goikoetxea.
- Miguel Zubeldia.
- Jose Izagirre.
- Martiartu anaiak.
- Iñaki Larrañaga.
- Martin Garmendia.
- Jose M^a Irizar.
- Jose Manuel Iradi.
- M^a Carmen Uranga.
- M^a Jesus Setien.
- Joxe Angel Gaztañaga.
- Joxe M. Bereziartua.
- Ascensio Iguaran.
- Elixabete Arrillaga.
- Antonio Eguzkitza.
- Ascensio Intxauspe.
- Angel Alvarez.
- Pedro Santa Cruz.

Bertsolariak eta bere mundua:

- Andoni Egaña.
- Pablo Zubiarraín.
- Juanjo Uria.
- Txomin Garmendia.
- Julian Ezeiza.
- Antxon Garin.
- Hernaniko Bertso Eskola.
- ...



Hilario Arbelaiz, Miguel de la Cuadra Salcedo, Vicente Zarágüeta, Paulo Zubiarraín "Hernani Txikia", Amaia Zubiria eta Kantuz Abesbatza (1999).

Sukaldariak eta gastronomia mundukoak:

- Juan Mari Arzak.
- Elena Arzak.
- Martin Berasategi.
- Pedro Subijana.
- Hilario Arbelaiz.
- Isaak Salaberria.
- Luis Irizar.
- Jose Juan Castillo.
- Tatus Fombellida.
- Juan Mari Izagirre.
- Josetxo Lizarreta.
- "Atxen".
- Ricardo Remiro.
- Joxe Mari Gorrotxategi.
- Joxe Maria Aizega.

Kirolariak:

- Joxan Tolosa.
- Miguel M^a Etxebarren.
- Jesus Mari Zamora.
- Edurne Pasaban.
- Josune Bereziartu.
- Txomin Perurena.
- Orioko trainerua.
- Juanito Oizatzabal.
- Jose Luis Korta.
- Maider Unda.
- Eva Esnaola.
- Jose Mari Garin.
- Maider Telleria.
- Rosi Talavera.
- Hernaniko Errugbi Taldea.
- CD Hernaniko Pilota Saila.
- DVko Kirol Erakundeak



Txaro Arteaga eta Luis Irizar (2002)



Juan Jose Castillo, CD Hernaniko Pilota Saila, Jose M^a Bereziartua, M^a Carmen Uranga, Tito Irazusta eta Edurne Pasaban (2003).



DV Kirol Erakundeak, M^a Jesus Fombellida, Josune Bereziartu, Joxe Angel Gaztañaga, Fermin Muguruza eta Patxi Apezetxea (2004).



Hernaniko Bertso Eskola, Nikolas Segurola eta Aizpea Goenaga (2014).

Pertsonaia ospetsuak eta artistak:

- Ainhoa Arteta.
- Mariano Ferrer.
- Anne Igartiburu.
- Vicente Zaragüeta.
- Miguel de la Cuadra Salcedo.
- Tito Irazusta.
- Antonio Mercero.
- Toti Martinez de Lezea.
- Julen Madina.
- Julian Iantzi.
- Kontxu Odriozola.
- Josetxo Lizartza.
- Patxi Bisquert.
- Andoni Aizpuru.
- Yolanda Alzola.
- Amaia Zubiria.
- Itziar Gurmendi.
- Patxi Odriozola.
- Felix Ares de Blas.
- Fermin Muguruza.
- Patxi Apezetxea.
- Ricardo Ramos.
- Txaro Arteaga.
- Jose Luis Alonso.
- Juan Mari Beltran.
- Miriam Molina.
- Xabier Laskibar.
- Elixabete Garmendia.
- Esther Esparza.
- Maite Arostegi.
- Luzio Urtubi.
- Aizpea Goenaga.
- Maria Jesus Iturbide.
- Nikolas Segurola.
- Juan Ignacio Querejeta.
- Modesto Lasas.
- Angel Alkain eta Wazemank-eko kideak.



Ozenki Abesbatza, Eva Esnaola, Ainhoa Arteta eta Maria Jesus Iturbide (2015).

Kultura eta gizarte taldeak:

- Hernaniko Txistulari Banda.
- Hernaniko Musika Banda.
- Hernaniko odol emaileak.
- Hernaniko Parrokiako Koroa.
- Kantuz Abesbatza.
- Ozenki Abesbatza.
- ...

Egindako lanagatik, kofrade berezirik aipatuko zenuke?

Ba, ez dakit. Denekin pasatu dugu primeran, eta denen parte hartzea eskertzen dugu. Bai herri mailan, baita anaitasun-bazkarian ere, arrakasta handia izan zuten Ainhoa Arteta eta *Wazemank*-eko aktoreek, adibidez. Oso giro polita sortu zuten. Baina, agian, egindako lanagatik Vicente Zaragüeta edo Miguel de la Cuadra Salcedo nabarmenduko nituzke. Azkeneko hau ekartzea izugarri kostatu zitzaigun, baina ekarri genuen.

"Egindako lanagatik, Vicente Zaragüeta eta Miguel de la Cuadra Salcedo nabarmenduko nituzke".

SAGARRAREN ETA SAGARDOAREN EGUNA

Sagardoaren Kapituluaz gain, zein beste ekintza antolatu izan dituzue?

Urtero ere, irailean, sagardogileekin batera, "Sagarraren eta Sagardoaren Eguna" antolatu izan dugu. Bertan, sagardotegi desberdinetako sagardoak dastatzeko aukera egoten zen, taloa, ogitartekoak etab.-ekin batera, eta plazan, erromeria txiki bat ospatzen zen. Zizar gozoa ere edan zitekeen, eta arrakastatsua izaten zen hainbat sagar-motaren erakusketa ere bai: 120 sagar-mota baino gehiago egoten ziren ikusgai.

Eta orain, zer gertatuko da "Sagarraren eta Sagardoaren Eguna"rekin? Ospatuko al da?

Ba, egia esan ez dakit zer gertatuko den egun horrekin. Ezin dizut ezer argitu. Gu sukaldean egoten ginen, pintxoak etab. egiten eta saltzen. Eta, ni, Kofradiako zuzendari moduan, zegokionari saria ematera joaten nintzen. Oso festa polita izaten zen.

Nolako arrera izan zuten, herri-mailan, zuek antolatutako ekintzek? Parte hartze handia egon zen?

Oso arrera ona eduki dute beti, eta giro paregabea sortu zen. Eta, ez herri-mailan bakarrik, kanpotik etorritzen ziren Kofradiak ere oso gustura ibiltzen ziren. Belgikako eta Frantziako Kofradiak etortzen zirenean, primeran pasatzen zuten. Txotxaren errituala oso kurioa baita kanpotarrentzat.

Hogei urte hauetan zer lortu du Kofradiak? Gustura geratu zarete egindako lanarekin?

Adiskide eta lagun asko egin ditugu. Jende ospetsu asko ere ezagutu dugu, eta hori herriarentzako eta sagardoarentzako oso ona izan da. Pertsona ezagunen presentziak, beti ere, oihartzun handiago du.

“TOLARE” DESEGITEKO ARRAZOIAK

Zeintzuk izan dira “Tolare” Sagardo Naturalaren Kofradia desegiteko arrazoiak?

Bi izan dira Kofradia desegiteko arrazoi nagusiak. Batetik, segidarik ez izatea, eta, bestetik, diru-laguntza falta. Denborarekin baja asko egon dira, eta bukaera arte gelditu garen gehienak jubilatuak gara. Adin honekin, ezin ditugu horrenbeste irteera eta bidaia egin, edaria eta janariari dagokionez zaindu egin behar dugu, eta ez dugu lanean ari gineneko diru-kopuru berdina ere.

“Segidarik ez izatea eta diru-laguntza falta dira Kofradia desegiteko arrazoi nagusiak”.

“Denborarekin baja asko egon dira, eta bukaera arte gelditu garen gehienak jubilatuak gara. Ezin dugu Kofradia gu bakarrik aurrera atera”.

Bestalde, Udaletik jasotzen genuen diru-laguntza oso txikia zen Kofradia aurrera ateratzeko behar dena kontuan izanda. Enpresa batetik jasotzen genuen diru-laguntzarik gabe ere gelditu ginen, eta bidaia, bazkariak, jende ospetsua ekartzea, lokalaren alokairua etab. ordaindu behar ziren. Kofradiako kide bakoitzak 200 euroko kuota ordaintzen genuen, eta, bukaeran, gehiago. Oso gustura egon gara urte hauetan guztietan gauza desberdinak antolatzen, jendea ezagutzen, sagardoa eta gure kulturaren bertuteak gorosten, leku batetik bestera Hernani eta sagardoaren izena eramaten... baina, adin batetara iritsi gara, eta gorputzak ezin du erritmo horrekin jarraitu.

Horrenbeste denbora eta gero, Kofradia bertan behera uzteak ez al dizu penarik ematen?

Bai, izugarri. Urte hauetan guztietan, jende asko ezagutu dugu Kofradiaren bitartez. Primeran pasatu dugu, eta oroitzapen oso onak gordeko ditugu. Baina, ezin denean ezin da.

Kofradiaren desegitea 2015eko uztaillean ospatutako Batzar Nagusian erabaki zenuten. Zergatik ez duzue ezer esan orain arte?

Ba, egia esan, ez da intentziorik eginiko zerbait izan. Uztailaren 14an egin genuen Batzar Nagusian erabaki genuen ezin genuela Kofradiarekin aurrera jarraitu, eta berehala hasi ginen tramite guztiekin. Hala ere, abenduaren 18ra arte ez genuen ofizialki elkartearen deuseztapenaren berri eduki.

Eta orain, nork defendatuko du sagardoa? Nork zabalduko du edari goxo honen izena mundutik?

Sagardogileek, dudarik gabe. Denbora askoan beraiek egin dute lan hori, eta ez dira atzean geratuko. Gurekin hartu-eman ona izan dute, eta elkarrekin lanean gustura egon gara. Baina, ziur nago, “Tolare” Kofradiarik gabe aurrera jarraituko dutela inongo arazorik gabe.

“Ziur nago, “Tolare” Kofradiarik gabe sagardogileek aurrera jarraituko dutela, inongo arazorik gabe”.

Hemendik urte batzuetara, zuen testigantza hartu eta Kofradia berriz ere osatuko duenik egongo dela uste duzu? Gustatuko al litzaizuke?

Gustatuko litzaidake, baina ez dut esperantzarik. Jendea ez dago horretarako eta ulertzekoa da. Denbora, gogoa eta dirua behar dira. Gainera, Kofradia desegin aurretik, epe bat utzi dugu ea norbait animatzen zen jarraitzeko, eta ez da inor azaldu.

**Maiz entzun ohi dugu emakumeek orain gutxi hasi garela lanean. Baina hori horrela al da?
Jarri al gara inoiz pentsatzen gure ama eta amonek zer nolako lanak,
eta zein baldintzatan egiten zituzten? Eta zeri deitzen diogun lana?**

Berdintasun Kontseiluak eta Udal Berdintasun Arloak, emakumeek historian izan duten lekua eta zereginak ezagutu eta aitortzeko helburuz, hainbat ikerketa beka jarri dituzte martxan azken urteotan. Argitaratu den *"Ilunpetik argitara. Emakume langileak iruditan. Hernani 1939-1975"* azken ikerlan honen xehetasunak azalduko dira ondorengo lerroetan.

Liburu bilakatu den ikerlan honen helburua izan da, izenburuak berak dioen moduan, ilunpean zegoen errealtate bat argitara ateratzea. Kasu honetan, frankismo garaian (1939-1975) emakumeek lan eremuan egin duten ekarpena jaso nahi izan da ahoz eta irudiz, emakumeei eurei ahotsa emanaz, eta Hernaniko historia osatu nahian.

Ikerlan honen ezaugarri garrantzitsuenetakoa bat da "lan" kontzeptuaren inguruko ikuspegi zabala eta konplexua hautatu izana. Izan ere, sarritan, lana enpleguarekin nahasten dugu; badirudi lana etxetik kanpo eta diruaren truke egiten den hori dela. Baina lana, hori baino askoz gehiago da; etxe barruan eta ordain-saririk gabe egiten direnak ere, zaintza eta etxeko lanak kasu, lana baitira. Horrexegatik ikerketa honetan lan alor ezberdinak aukeratzean, lanaren ikuspegi zabala hartu da ardatz. Horren isla dira testu honetan biltzen diren lan arlo, enplegu eta eginbehar ezberdinak (industria, merkataritza, ostalaritzari loturikoak, baina, baita, baserri eta etxeari loturikoak ere); emakumeek denetan parte hartu baitute, denetan ekarpena eginez.

Testuinguruari dagokionez, garai honetan hernaniarren bizitzetan aldaketa handiak eman ziren. Frankismo garaia zen, diktadura aldia, gerra ondorena: debekuak, errepresioa... Garai gogorak izan ziren. Demografikoki ere, Hernaniren itxura aldatuz joan zen, industria-lantegi asko zabaldu ziren; eta inguruko herrietatik, nahiz Espainiatik ere, jende asko etorri zen lanera. Populazioa laukoiztu egin zen denbora gutxian; eta, beraz, honek beste hainbat arazo ekarri zituen: etxebizitza eta azpiegitura falta, identitateen arteko talka, aurretik zeuden baloreetan aldaketa sakonak...

"Con siete años vino la guerra... nos fuimos a Francia. Allí estuvimos dos años, y, bueno, nos toco de todo. Hicimos travesías en barco de aquí para allí; primero a Francia, luego volvimos a Bilbao, porque mi aita estaba en Bilbao ejerciendo... Luego, ya nos volvimos a Hernani".

(Loli)

Emakumeen kasuan, bereziki azpimarratu behar da Francoren erregimenarentzat emakumea azpitik zegoen izakia zela; ez jendarte, eta ez politikan lekurik ez zuena; eta, beraz, etxekoandre eta ama izatera bideratua zegoen. Gizonen menpe egon behar zuten (lehenengo aitaren menpe eta, ondoren, senarraren menpe), eta beren helburua "etxeko aingeruak" izatea zen: ama onak eta etxekoandreak. Hori lortzeko, hainbat tresna erabili zituen erregimenak; etxetik kanpoko lanak debekatzetik lan pedagogikoa egitera... hori guztia Sección Femenina erakunde frankistaren laguntzaz. Ondorioz, aipaturiko "etxeko aingeruek" emakume idealaren eredua garatu zuten. Hemen horren adibide pare bat:

"A través de toda la vida, la misión de la mujer es servir. Cuando Dios hizo el primer hombre, pensó: No es bueno que el hombre este solo. Y formó a la mujer para su ayuda y compañía, y para que sirviera de madre. La primera idea de Dios fue el hombre. Pensó en la mujer después, como un complemento necesario, esto es, como algo útil".

(Formación Político-social del primer curso de Bachillerato, 1963. Régimen franquista).

"En especial prohibirá el trabajo nocturno de las mujeres y niños, regulará el trabajo a domicilio y libertad a la mujer casada del taller y de la fábrica".

(Fuero del Trabajo, 1938)



Falangistak, guardia zibilak eta bando nazionalako kideak Hernanin desfilatzen, San Juan Bataiatzailea elizan izandako ekitaldi erlijioso bukatu ostean, 1936an (arg.: KUTXA Fototeka).

Hala ere, ideologia eta eredu honek ez zuen eragin maila berbera izan jendarte klase guztietan. Horren isla da, adibidez, Frankoren erregimenak bultzatutako hainbat legeren gaintik, emakume askok etxetik kanpoko lanak egiten jarraitu zutela, bizirauteko beharrezkoa baitzuten.

Ondoren, hainbat arlotan lan egindako emakumeen bizipenak eta argazkiak jaso dira, liburuaren oinarri direnak.

INDUSTRIA

Industriako lana gizonezkoei atxikitzen bazitzairen ere, guda aurretik, eta ondoren, emakumeek industrian lan eskerga egin dute. Euskal Herrian, eta baita Hernanin ere, sekulako garapen industrialia eman zen; hainbat lantegi zeuden bertan kokaturik, gerra aurretik, eta baita gerra ondoren ere. Hauek, horietako batzuk: Zikuñaga eta Papelera del Norte paper fabrikak; Policloro S.A., Electroquímica de HERNANI, Denak bat, Transpacar S.A., Orbegozo y Cia... Beraz, eskulana behar zen. Hernanik immigrazio tasa handiak jaso zituen, baina gerra ondorenak utzitako egoera krudela medio (erbesteratuak, hilak...) familia asko oso egoera larrian geratu ziren, eta lan egin beharra zuten, nola edo hala. Industria izan zen askoren hautua, aipaturiko garapen industrialia medio; emakumeak ere kontratatu ziren. Hala ere, sexuan oinarritutako lan banaketa ematen zen, frankismoak bultzaturiko arrazoi biologikoei jarraikiz. Emakumeek soldata baxuagoak jasotzen zituzten, eta lan baldintza kaskarragoak zituzten. Orokorrean euren lanek prestigio txikiagoa zuten. Hezkuntza sistematik ere sistematikoki kanporaturik zeuden; ez zuten garapen profesionalerako aukerarik izaten; eta beraz, nagusiki lan kualifikatu gabeak egiten zituzten. Hona hemen garaiko emakumeen hainbat bizipen.



Papelera del Norte fabrikaren inaugurazioa; autoritateak lantegia ikusten, tartean bi emakume lanean.

"Así que a la escuela nada... fui hasta los trece, ¡a los trece ya kitto, a trabajar! Me pusieron un banquito porque no llegaba a la plancha, y allí estuve hasta que me pude defender yo".

(Loli)



REMY almidoi fabrikaren kanpoaldea: Carmen Etxezarreta Genua, Manolo Olano Garayar, Xilberio Ezeiza, Inaxi Ruiz eta Benita.

"Con trece años empecé en la galletera, íbamos cantando y nos dicen, ¿queréis venir a trabajar? ¡Jolín que si! Al día siguiente a trabajar... Estuve poco tiempo, luego nos fuimos a coser a Carrero, nos gustaba más".

(Carolina)

"Aitak fabrikan itten zun lana, almidoian fabrikan ta aita hil zanian (1937), nik hasi izandu nun hamazazpi urte nitula. Hogeita hamahiru urte arte ibili nitzan fabrikan, ezkondu arte. Ez zituzten emakume ezkonduak admititzen fabrikan".

(Ixabel)

"Las condiciones no eran igual para hombres y para mujeres en la fábrica, para nada: trabajo específico de la mujer, trabajo específico del hombre. Electricistas, mecánicos, todos esos se contemplaban absolutamente de hombres, las maquinas absolutamente de hombres, y mujeres más o menos (...) O sea otra categoría, tenía otro prestigio el trabajo de los hombres... Y hoy en día, posterior que he trabajado en la limpieza, todavía".

(Maite)

BASERRIA

Baserriak, bere baitan, berezitasun batzuk ditu beste esparruekiko; etxea eta lantokia bat izatea, ekonomia formalarekiko harreman txikiagoa izatea (soldatarik ez, eta diru sarrerak produktuen komertzializazioaren baitan), garraiobideak mugatuagoak eta distantzia/denbora handiagoak behar izatea (baserrien artean alde nabarmenak bazeuden ere), lana kanpoan ere egin behar izatea (eguraldiaren eta urtaroen eragina) eta lana "lotua" izatea (animaliekin eta produktu freskoekin lan egitearen ondorioz), esaterako. Era berean, guda ondorengo frankismo hartan, eguneroko elikadura bermaturik izateko aukera handiagoa zuten, estatuak baserrietan eta baserri auzoetan eragiteko aukera gutxiago izan baitzuen, eta euskararen transmisioa eta erabilera mantendu ziren, besteak beste. Jendarteko beste esparru guztietan bezalaxe, frankismoaren eragin handiagoarekin eta txikiagoarekin, aurretik eta ondoren, gizon eta emakumeen artean sortutako desorekak nabariak dira, baita baserrian ere. Sexuen arteko lan banaketa, aisialdiaren erabilera desorekatua, maiorazkoa edota harreman sozialak, horren lekuko dira.



Bertxako merkatua (arg.: KUTXA Fototeka).

"Ni amakin jutenintzan; ama berdurak saltzen gelditzen zan ta ni esnia partitzea, 6 litroko marmitekin etxez etxe, ta geo bueltan Astiarra eskola".

(Ereñotzuarrak)

"Tranbiaino juteko astuan ordubete; goizeko seiak laurden gutxi jaiki eta... Beti izaten nun inbidi bat zortizak arte lo itekua; ezintzan! Baño ayatu zait e!".

(Ereñotzuarrak)

"Baserrin ne amak eta jende askok behiak bildu ta dana, baino ne amak, esaten zuten ne ahizpak, etziotela beiñe utzi ez segan... Ez ikasteko segan ta ezta behiak biltzen e! Zeatikan bestela gizonak feria jun ta etziala etortzen".

(Arantxa)

"Baserrikok goseik ez genun pasa. Bestelakoko behar genitunen Donostia jun ta kanbiatu itten ginuzen. Arrautzak saldu ta sardin zaharrak hartu, atuna...Ogia genunian bokadiyuan atuna ta maihonesa jaten ginun".

(Ereñotzuarrak)

"Gure etxian emakumiak eman bihar du etxeko martxa, bestela alperrik da gizonak lana ittia ez bakizu ondo administratzen. Ganadua, o holako zerbait zanian, pues hau ingo deu hola, hoi ya gizonana zan".

(Arantxa)



*Inaxi Urkizu Altuna, eta Estebantxo eta Eulalitzo
(1962an, "Mallus", Laubidieta inguruan).*



*Manuela eta Maria Agirre Zugasti, eta Luis Antonio
Lizeaga Agirre (Bezkitia baserria).*

ETXEA

Erregimen frankistarentzat etxea andrazkoen tenplua zen, eta emakumea bertako aingerua. Ideia hau tradizionalismo katolikoan, eta biologian oinarritzen zen; emakumezko eta gizonezkoen arteko ezberdintasun biologikoak oinarrian jarritz, emakumeek ama izatera mugatu behar zutela defendatzen zuen, bestelako alor ekonomiko, juridiko edota sozialetatik kanpo utziaz. Etxetik kanpo lan egin ala ez, emakumeak ziren etxe barruko kideen zaintzaz, eta bertako lanez arduratu zirenak. Eztabaidagai jartzen ez zen gaia zen emakumeari zegozkiola lan horiek egitea, emakume izanagatik soilik, guztiz normalizatuak eta naturalizatuak egonik ardura hauek. Mota askotako jarduerak egiten ziren etxeetan: elikagaiak eskuratu, familia guztientzat egun osoko otorduak prestatu eta, ondoren, guztien harrikoa egin; arropak garbitu, lehortu eta lisatu; haurrak izan eta horietaz arduratu; adineko pertsonen, gaixoen edota menpekotasunen bat zutenen arduratu; arropak egin eta josi; etxea txukundu; etxe ondoan lurak izanez gero, baratzak zaindu eta berdurak jaso... hori guztia ikergai den garaian zeuden baliabideak kontuan izanik. Lan hauek aldiz, ez ziren lantzat hartzen; ez zuten ez balio ez prestigiorik, ez erretirorik, ezta soldatarik ere.

"Etxeko lana gogorra da, inork ez du apreziatzen (...) nik ez banizuke jarriko, nik ez banuke arropik munituko, nik ez banuke umeik haziko...in dezagun truk!"

(Ihintza)

"Nik bi anai ni baño zaharraguak ditut baño etxian beti izan naiz ni, la mayor de las chicas esaten dan bezela, eta dana nik in bihar nun: batek miña hartzen bazun hanketan indiziyua jartzea a donde la comadrona ni juten nintzan, hamaika hamabi urtekin! Klaro, ne amak lan asko zakan, ta ni negarrez, baño juten nintzan. Ta dena nik inbiar nun, enkarguk ta dena (...) eskolatik etorri eta oyak in ta dena, txikitatik bai".

(Maritxu)



Consuelo Moya Gascon.

"Yo tenía diez cuando nació el hermano pequeño, a los nueve meses se puso enferma (la ama), y me quedé sola con otro hermano, eso tampoco se me va a olvidar nunca. Vino una tía, y me dijo que me haría cargo de mi hermano, tendría dos años, que vendría la amona a la tarde. Yo no sé lo que le di de comer, cuidar ya sé que le cuide, porque se cago en las escaleras y limpie todo. Y el niño en brazos, y el niño no hacía más que llorar... pasé toda la tarde en Zinkoenea dando vueltas esperando a la amona, y amona no venía, todo el rato llorando... Por fin, llegó a las 6 de la tarde. Venía con un cesto en la cabeza, vendría andando seguramente la pobre, ay... se me abrió el cielo".

(Juani)



Maria Pilar Luanbio Olano, Manoli Olano Garaia, Joaquín Lujanbio Olano, Martín eta Juan Carlos Lujanbio Olano (1967, Sarasketako terrenoan).



M^a Kristina Ugalde Mendizabal eta Kristina Korella Ugalde (1967ko uda).

"Si a la casa, a los hijos... a coser, a planchar, a limpiar... ama de casa que no me han pagado nunca. Pero sueldo hacía! Ahí sí que deberían de pensar... cuidar de tus hijos en casa es un trabajo bonito, y la vida de la casa es muy bonita, porque puedes atender las cosas mucho mejor, sobre todo a los hijos (...) Que va, no, no se valoraba nada ni ahora tampoco. Eso es un trabajo que no se valora. Ahora, no te ayudaba nunca el marido, si estas en casa... Claro y no se daba cuenta que era mucho trabajo".

(Dominique)

MERKATARITZA

Hernani saltoki ugariko herria izan da. Jadanik 1931. urterako era guztietako komertzioa zegoen herrian: abarketa dendak, bizartegiak, ikaztegiak, aroztegiak, harategiak, drogeriak, mertzeriak, oihal dendak... Hala ere, guztien gainetik janari denak gailentzen ziren. Hauetariko asko aurrera ateratzearen ardura emakumeena izan zen. Gainera, komertzio hauetara eguneroko beharrak asetzerantz gerturatzen ziren bezero gehienak emakumeak izan ohi ziren; bereziki emakumeei atxikita egon diren jardueren lotutako komertzioak izanik: mertzeria, oihal dendak, ile-apaindegiak... Gizonezkoak gailentzen ziren, ordea, burdindegia eta aroztegiak bezalako jardueretan. Izan ere, merkataritza alorrean, beste hainbat esparrutan bezala, sexuen araberako lan banaketa argia zen. Beste jarduera batzuetan, aldiz, bi sexuetako pertsonak elkarrekin egiten zuten lan: ezkon bikoteak, oro har; baina baita bestelako bikoteak ere, aita-alabez osatutakoak, adibidez. Jarduera hauetan pertsonak elkarrekin egiten zuten lan, biltegi eta jendaurreko lan eremuak aldizkatuz.



Peluqueria Juli, 1969: Juli Ayerra Gomez eta Arantza Etxarri (laguntzailea).

Frankismo garaian legedi zorrotza ezarri zitzaizen emakumeei etxera itzularazteko ahaleaginean. Horren adibide izan zen, erregimen frankistak, errepublika garaiko legeak indargabetu, eta 1889ko Kode Zibileko hainbat artikulua eta titulu ezarri izana:

Art. 60: *"El marido es el representante de su mujer. Ésta no puede sin su licencia, comparecer en juicio por sí o por medio de procurador..."*.

Art. 61: *"Tampoco puede la mujer, sin licencia o poder de su marido, adquirir por título oneroso ni lucrativo, enajenar sus bienes, ni obligarse, sino en los casos y con las limitaciones establecidas por la ley".*

Mota honetako legedia indarrean, normaltzat jo genezake, tailer, denda... gehienak gizonen izenean ego-
tea; nahiz gizon izen horien atzean emakumeak egon (ezkutatuak). Txiki txikitatik atxikitzen zitzaizkien
etxeke eta zaintza lanak egiteaz gain, emakume askok, etxetik kanpo ere egin zuten lan, nahiz eta datu
ofizialetan langile hauetariko askoren izenak ez ageri.



*Ixiar Etxeberria Balerdi, Marina Cuevas Dañobei-
tia eta Maritxu Almorza
Jaunarena, Cuevas farmazia aurrean,
1960 inguruan.*

*"Mi padre era peluquero y alpargatero y de ahí empe-
cé, y luego termine haciendo tienda (...). Mi padre ha-
cía alpargatas y yo cosía".*

(Felixia)

*"Erosten gendun lenteja, garbantzua ta dena zakutan,
ta geo iten gendun kilua jarri beharrian hartu gendun
genero hobia baño kilo erdika, azukria ta galletak, geo
enpaketatzen genitun denda itxi ta geo".*

(M^a Angeles)

*"Teníamos lencería, y entonces las mujeres no iban a
comprarle sujetadores y bragas a un hombre, no... eso
era así (...) hacía falta estar una mujer".*

(Francisca)

*"Petxua ematen nion hor atzian, (denda barruko al-
mazenian) hotza itebazun goien ematen nion petxua
umiei, ta ama jaisten zan dendara, ta telefonotik "la
lejía ¿cuánto es?".*

(Mertxe)

*"Tuve a mi hija a los dos años de casarme, cuando era
chiquitita le engañaba sentadita en la peluquería con
una mantita mientras yo trabajada".*

(Loli)



*Consuelo Moya Gascon eta Mari Cruz Moya Gascon, gozokiz beteriko karroaren atzean
(mostradore izango balitz bezala) garaiko Plaza de Españan.*

OSTALARITZA

Hernaniko historian oso ugariak izan dira taberna eta sagardotegiak. Taberna eta sagardotegien jabeak gizonak ziren, alargunak salbuespen; nahiz eta bertan lan egiten zuten langile asko emakumeak izan. Taberna batzuk txikiteorako izaten ziren soilik; beste batzuek otorduak ere eman ohi zituzten. Jende gehien eguerdi aldean eta arratsaldean, seietatik aurrera ibiltzen zen, gizonak lanetik ateratzen zirenean. Emakumeak ez ziren hain erraz sartzen tabernetan; agian otorduren bat edo beste egitera bai; baina emakumeak txikiteoan ikustea ia ezinezkoa zen frankismoak iraun zuen urte luzeetan.



Azurmendi taberna, 1960 inguruan: Adeli Erdozia eta Joxe Azurmendi (barra barruan).

Ostalaritzaren esparruak merkataritza alorrarekin antzekotasun ugari ditu; biak ere jendaurreko jardunean oinarritzeaz gain, bezeroekin oso harreman berezia izaten baitzuten. Kasu honetan, ordea, ezberdintasun handi bat zegoen: generoa. Hain zuzen ere, ostalaritzan zebilen bezeroa gizona zen. Esanda dago garai hartan ez zegoela batere ondo ikusia emakumeak tabernetan ibiltzea, eta egitekotan, senarrarekin edo gizon batekin batera egin behar zuten. Tabernak eta sagardotegiak gizonen egunerokotasunean oso presente zeuden, ohitura handia baitzegoen horretarako. Aldiz, barraren beste aldean ez ziren gizonak bakarrik egoten, Hernaniko taberna askotan emakumeek egiten zuten lan; zerbitzatzen, sukaldean, barra atzean... neska gazte asko gurasoei edota bestelako familiakoei laguntzen hasi ziren tabernan lanean, txikitatik ikasiz gerora jardungo zuten lanbidea. Garai hartan hainbat tabernaren jabeek ezin izaten zituzten kanpoko langileak kontratatu (ez baitzen nahikoa diru ateratzen guztientzat); eta, beraz, etxeko edo inguruko neskak "hartzen" zituzten lanerako. Beste batzuek, etxean diru falta egonik, tabernetan bilatzen zuten bizirauteko modua:

"Laguntzen beti mucho o poco, baina ama gaixo jarri zanen, ordun hartu non la batuta! Teniamos cocinera y yo la que menos se creían que mandaba pero... etxekoandria".

(Joxepa)

"Poteuan? Gizonak bai, emakumezkuak gizonakin juten bazan igandetan e kanpuan, atian onduan geatuko zan emakumia, gizona sartu eta baxo erdi bat hartuko zun".

(Rosi)

"Y luego por la tarde, cuando terminaba de comer y arreglar un poquito la cocina y eso, me iba a casa, que vivíamos ahí cerca, me iba a casa y hacer cosas de casa, tenía que poner la lavadora, hacer las camas, tenía que limpiar... cuando daban las siete de la tarde, me bajaba otra vez (al bar), tenía que hacer las tortillas. Y cuando sacaba las tortillas, a la barra".

(Antonia)



Juana Aranburu Oyarzabal eta Anttoni Egaña Aranburu Egaña tabernan.

"Behin emakume bat etorri zan ta: honako aulki honek asko balio al du? Ta zeba, balio al dun? Ez baldin bado oso gaizki etxea emangoet, aber hola ne gizonak hemen aulki hontan aiña denboa etxian pasatzen dun!".

(Arantxa)



Juli Alberdi, M^a Dolores Peña Iradi eta Mercedes Iradi Cinco-Enea taberna aurrean.

"Haurdun ta gelditzen nintzanen, poner unos vestiditos flojitos para que no te notaran, porque siempre estaba en estado, con esos delantalitos y así..."

(Joxepa)

Ezkiaga pasealekuak edo "Tilosak" hernaniarrentzat duen garrantziaz ez gara hasiko hitz egiten artikulu honetan. Zuetako asko, egunero-egunero igaro da bertatik, baita udazkena, negua, udaberria edo uda noiz den igarri ere. Pasealekuaren paisaia urtaroen eta garaiazen arabera aldatuz joaten baita, ezkien erritmora. Ezki hauei, ordea, nekez erreparatzen diegu. Ezki bakoitzaren baitan mundu txiki eta misteriotso baten bizileku da. Zuhaitz bakoitza unibertso txiki bat da, izaki bizidun ezberdinez osaturikoa. Gure begiek, ongi erreparatu gabe, lupa baten laguntzaz ez bada, ikusiko ez luketen mundu misteriotsoa. Saia nadin artikulu honen bidez, mundu ezkutu horren zati bat erakusten.

Ezkiaga pasealekuko zuhaitzak ezkiak dira, bi espezie desberdinetakoak hain zuzen.



Tilosetako ezki zaharrak zenbait liken, goroldio eta onddoren bizileku dira, nahiz eta hala ez iruditu (arg.: Xabier Zubitur).

Zuhaitz zaharrenak eta gazteenak, ezki hostotxikiak (*Tilia cordata*) dira, Euskal Herrian bertakoa dugun espezie bat. Jatorriz Ezkiaga pasealekuan aldatutako ezkiak dira. Tartean, ordea, ezki zilarkarak (*Tilia tomentosa*) ere badira tamalez, gaur egun tamaina ertaina dutenak. Tamalez diot, ezki zilarkara bertakoa ez dugulako, Europa hego-ekialde eta Asia hego-mendebaldekoa baizik, eta ez da, beraz, orain gizaldi batzuetako hernaniarrek herriko plazan aldatzeko hautatu zuten espezie bera.

Ezki hauetako bakoitza, batekoa edo bestekoa izan, hiltzear dagoen zuhaitz zahar bat baino askoz gehiago da. Beraien sinbologiaz eta Hernaniko plazari ematen dioten itxura bereziaz gaindi, artikulu honetan ezki hauek beste izaki bizidun txiki zenbaitentzat duten garrantziaz ariko gara. Izan ere, zuhaitzak, beste izaki askorentzat ezinbesteko bizileku dira, eta goroldio, liken (Hernanin "gooldiyo zuiya" ere deitua) eta onddo-espezie ugari erabat desagertuko lirateke zuhaitzik ez balego. Lehenengo biek, argia behar dute bizitzeko, hots, klorofila bitartekari dutela, euren materia organikoa (hots, janaria) ekoizteko gauza dira. Onddoek, berriz, materia organikoa beste izaki bizidun batzuetatik lortzen dute, gure kasuan, ezkietatik. Espezie hauetako asko, ordea, oso txikiak dira eta nekez ikus genitzake arreta berezirik jartzen ez badugu.


Zuhaitzen enbor eta azaletan bizi diren goroldio eta liken asko oso baldintza berezietan bizi dira. Batzuek argi asko behar dute, besteek, gutxi; batzuek enbor leunak behar dituzte, besteek, zakar eta zimurrak; batzuek ur gehiago behar dute eta euria egitean gehien bustitzen diren tokietan hazten dira, besteak, berriz, toki lehorretan, etab. Beraz, baso natural batean, eta Hernaniko plazako zuhaitzetan bizi diren goroldio, liken eta onddoak aski desberdinak dira, baldintzak ere desberdinak baitira. Bi dira Tilosetako zuhaitzek dituzten baldintza bereziak. Batetik, ezki gehienak zahar xamarrek dira eta azal oso zimurra dute. Bestetik, hirigune baten erdian dira kokatuta, eta gure autoen kutsadura pairatzen dute, baita enbor azalean dagoen nitrogeno kontzentrazio handia ere. Izan ere, autoek, zakurren hondakinek eta gure bestelako zakarrek enbor azaletan nitrogeno kopurua pilatzea eragiten dute, eta liken eta goroldio askoren hazkuntza eragotziaz. Beraz, gure ezkietan bizi diren goroldio eta likenak enbor zimurretara egokitutako eta kutsadura eta nitrogeno kontzentrazio altua pairatzeko gai diren izaki bizidunak dira.

Ezkiaga pasealekuko ezkietan bizi diren izaki bizidun txiki hauek ikusteko asmoz, martxoko arratsalde euritsu batez, txango txiki bat egin nuen, hernaniarren batek enbor azalei argazkiak ateratzeagatik zorotzat hartuko ninduen susmoz. Ordu erdi eskas bat nahikoa izan zen 10 espezieren bilduma txiki bat osatzeko. Ikusitako espezie gehienak goroldioak dira, 7 hain zuzen. Hasi eta berehala ikusi nuen, ezustean, *Leptodon smithii* espeziea da.



Leptodon smithii goroldioa zuhaitz zaharretan goroldio bat da, Tilosetako zenbait zuhaitzetan bizi dena. Irudian lehortutako indibiduoak kiribildurik, bustita direnak, aldiz, berde eta zabaldurik. Behe ezkerrean, luparekin ateratako irudia.

Ezustekoa diot, ez nuelako behin ere hirigunean batean ikusi, mendialdean baizik, gehienetan, mugarratutako enbor lodi eta zaharretan. Goroldio hau lehortzen denean, kiribildu egiten da, eta horrela hilabeteak eman ditzake, urik gabe. Bustitzen denean, berriz, zabaldu eta oso bestelako itxura hartzen du. Irudiz, kutsadura ongi pairatzen duen espeziea da. Bigarren ezustekoa zuhaitz zaharrei atxikirik bizi den bigarren espezie bat izan zen, hau ere hirigune barruan ikusi gabe nengoena, *Ortotrichum lyellii*.



Ortotrichum lyellii goroldioa zuhaitz zaharretan bizi ohi den goroldioa da, zuhaitz bakarrean ikusi dena. Irudi nagusian ugal egitura sexuala ikus daiteke txano moduko babes eta guzti. Behe ezkerrean, handipen handiagoz ateratako argazkia, ezti koloreko kozkorak dituzten hostoak erakusgai. Hosto bakoitzak milimetro inguru neurtzen du.

Ezagutzen oso erraza da lupaz begiratuta, bere hostoen gainean ezti koloreko kozkor txiki edo tanta moduko batzuk dituelako. Hauek, bere ugal egitura asexualak ditu, horrelako ezti koloreko kozkor batetik indibiduo berri bat sor daiteke, alegia. Ugal egitura sexualak ere baditu, 16 ildo dituen txano batez estalirik, eta berezi-bereziak, beraz. Oso ugaria den beste espezie bat *Tortula muralis* da. Harritzko hormetan oso arrunta izan arren, oso gutxitan hazten da goroldio hau enbor gainean. Bere hostoek hari zuri baten moduko muturrak dituzte, eta ugal egitura sexualek, berriz, txano zorrotz bat dute.



Tortula muralis ezkien azalean bizi den goroldiorik arrunt eta ikusgarriena da behar bada, bere ugal egiturak direla eta. Behe ezkubian ugal egitura sexuala, gutxi gora behera 3 mm neurtzen duena.

Hauetaz gain, *Frullania dilatata*, *Homalothecium sericeum*, *Metzgeria furcata* eta *Bryum* generoko espezie bat ere ikusi genituen. Irakurleak eskura ditu sarean hauen argazki on ugari.

Gatozen orain gure ezkietan bizi diren likenak ikustera. Likenak bizitzeko algak behar dituzten onddoak baizik ez dira. Horregatik, liken gehienek kolore berdea, edo berde antza, izaten dute, algen kolorea dela eta. Lan handirik ez dugu hartuko Ezkiagako likenekin, bi besterik ez baintuen topatu, biak ere txiki samarrak. Hau ez da harrigarria, kutsadurarekiko oso sentikorrak izaki, hiriguneetan oso liken gutxi egon ohi baitira. Bertan dugun liken ikusgarriena *Phyiscia tribacioides* da, zentimetro bat izatera nekez iristen dena, eta nitrogeno ugari dagoen enbor azaletan bizi ohi dena.



Phyiscia tribacioides zentimetro inguruko liken bat da, ikusi ditugun bi liken espezieetatik bat. Likenak zentimetro bat inguru neurtzen du. Goi ezkerrean dagoen akaroak likenaren ugaltze egitura daramatza itsatsita ipurdi aldean. Akaroak mm erdi baten tamaina du, gutxi gora behera.

Erdialdean dituen kozkorretan asexualki ugaltzeko egitura ditu. Baina, nork eramaten ditu egitura hauek zuhaitz batetik bestera? Zuzen-zuzenean ikusteko aukera izan nuen, 8 hankadun akaro bat likenaren gainetik pasako zen, behar bada bertan elikatu ere bai, eta nahi gabe, edo nahita, hara non daramatzen ipurdian itsatsita liken hazi batzuk. Liken eta goroldio artean, beste zenbait animalia txiki ere bizi direla ikusi nuen, zeinak nekez iristen diren mm bat luze izatera. Gutxienez, bi akaro eta batetik bestera saltoka zebiltzan kolenbolo more ugari ere ikusi genituen.

Ezingo dugu artikulu txiki hau onddoez apur bat hitz egin gabe bukatu. Ziurrenik onddo espezie askotxo bizi dira Hernaniko ezkietan, baina ikusten errazena, zalantzarik gabe, *Ganoderma adpersum* ardagaia da.



Ganoderma adspersum da ikusten errazen den onddo espeziea, bere ardagai moduko fruitu gorputzek hainbat urtez irauten baitute (arg.: Iñaki Sanz-Azkue).

Ardagai hau gure basoetan arrunta da oso. Espezie hau zuhaitzen bizkarroia da, hots, parasittoa. Zuhaitzen beheko aldean bizi ohi da, eta azkenean enborren oinarria usteldu ohi du, eta baita zuhaitza hil ere. Ikuspuntu antropozentriko batetik, gure ezkiak hiltzen dituzten onddo hau txarra dela iruditzen zaigu, noski. Baina, *Ganoderma adspersum* bezalako ardagaiak naturan oso garrantzitsuak dira. Eroritako zuhaitzen egurra deskonposatuz elikatzen diren milaka eta milaka onddo espezie eta animali txikiez hizketan hasiko bagina, irakurlea luzez aspertu behar genuke. Hurrengo baterako utziko dugu, beraz, gai hau.

Honenbestez, hemen bukatu beharra dugu gaurko txango txikia. Orain badakizue, Ezkiagako ezkiak hiltzeaz dauden zuhaitz zaharrak baino, bizi-bizirik dauden zuhaitzak dira. Arratsalde batez Ezkiaga pasealekura joan, eta bertako enborrei zuzen-zuzen begira ikusten baduzue norbait, agian ez da zoro bat, ezkieta izaki bizidun txiki horiek arretaz begiratzen ari den norbait baizik.

ARROBIYUA

| Komikiaren gidoia eta egilea: **Alai Zubimendi**.

| Kondairaren bilketa eta interpretazioa, eta komikiko natura eta euskarari dagozkien atalen adaptazioa: **Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Agirre**.

Marra hori eta beltzez jantzia, basoan, hosto artean, mantso-mantso ibiltzen dena: *Arrobiyua*. Ezagutzen duenak ez du sekula ahaztuko ikusi izana. Ezagutzen ez duenak, ez du sinetsiko Hernanin badenik. “Hau zer dek, dokumentaletako animalin bat?” galdetu izan digute.

“Burbunak eta etsayak” proiektua aurrera eramane dugunok segituan sumatu genuen hori. *Arrobiyua* animalia berezia da. Baserriz baserri ibili gara Hernanin, naturari loturiko hitzak, esamoldeak, ipuinak, mitoak eta kondairak biltzen. Eta bertan jaso ditugu naturari lotuta bizi izan diren, eta bizi diren, pertsonen kontakizunak eta jakituria.



Arrobiyua Etxolaberri baserriaren azpialdeko errekan (arg.: Iñaki Sanz-Azkue).

Txoriak, zomorroak, landareak, arbolak, arrainak, piztiak, narrastiak eta anfibioak, *arrobiyua* (salamandra) bezalako anfibioak ere izan dira hizketagai elkarriketetan. Santa Barbaran ezezaguna, eta Ereñotzu inguruan, ordea, oso ezaguna dute *arrobiyua*. Basoetako *arrobiyua*. Basomutilak hil zituen *arrobiyua*!

Nola ez dute ezagutuko ba!

Ereñotzu inguruko baserrietan ahoz aho igaro da, belaunaldiz belaunaldi, *arrobiyua* janda hil ziren basomutilen istorioa. Eta hortik denek atera dute ondorio garbi bat: “*Arrobiyuak benenua dik!*”.




Ezteizar: Etxolaberri alboko pagadi-hariztia. Basomutilek urtetan lan egindako basoa (arg.: Iñaki Sanz-Azkue).

Arrobiyuaren istorioa baserriz baserri ezberdina da detaileetan, baina berdina oinarrian. Guztietan badira errepikatzen diren basomutilak, sukaldaria, *arrobiyuak*, eltzea, babak...

Jarraian duzuen komikiaren bidez, Hernaniko baserrietan bilduriko kondaira bat erakutsi nahi da. Bertsio ezberdinetan oinarriturik, moldatu dena eta Hernaniko kontestuan jarri dena. Zenbateraino sinistu zuk zerrorek erabaki. Zuk erabaki zer den egia, zer gezurra. Hori baita kondairek duten sekretua. *Arrobiyuak* inoiz kontatuko ez digun sekretua!

ARROBIYUA

"HERNANIKO BASERRIETAN BILDUTAKO KONDAIRA BATEAN DINARRITUTAKO 'PUNK'"



*HORREGATIK ESATEN DA "ARROBIYUAK" POZOIA (BENINGA) DUELA

EL MOLINO DE CARAPOTE (I)

| **Javi Castro e Iñaki Sanz-Azkue** (Aranzadi Zientzia Elkarte)

Sinesgaitza eta harrigarria badirudi ere, XXI. mende honetan oraindik ere, gure inguruan kokatuak zeuden erroten aurkikuntzak ari gara egiten. Harrigarriagoa da, bestalde, aurkituriko errota horietako bat Hernaniko erdigunetik gertu zegoela jakitea, hain zuzen ere, Florida auzotik ez oso urrun. Artikulu honetan, Karapote izeneko gunean aurkitzen zen izen bereko erroteren aurkikuntzaren berri emango dugu. Karapote izeneko gunea Urumea ibaiaren erriberan zegoen kokatua, eta XVII. mendean baserri batez, errota batez eta ibai-portu batez zegoen osatua. Egun, hauek guztiak lur azpian geratu dira, pabiloi, errepide eta eraiki berriak diren etxebizitzaren azpian, ahaztuak, agian, betirako.

Resulta difícil creer, y ¿por qué no decirlo?, hasta curioso pensar, que en pleno siglo XXI todavía estamos realizando hallazgos de antiguos molinos que funcionaron en nuestro entorno. Y resulta aún más curioso pensar que uno de esos molinos estaba ubicado en la villa de Hernani, no muy lejos de Florida auzoa. En este artículo daremos cuenta del hallazgo de un molino que tomó el nombre de la zona donde se encontraba: Carapote. Un lugar situado en la ribera del Urumea, que estuvo compuesto en el siglo XVII por un caserío, un molino y un puerto fluvial, que hoy en día han quedado enterrados y olvidados, tal vez para siempre, debajo de pabellones, carreteras y viviendas de nueva construcción.

El molino de Carapote

¡Quién lo diría! ¿Un molino cerca de Florida auzoa? Pero, ¿dónde? preguntará cualquiera que intente localizar un molino en el paisaje que componen hoy Florida auzoa y la pista de atletismo de Sagastialde. Una zona totalmente urbanizada, con vías de tren, fábricas, carreteras, pabellones, parques y bloques de viviendas contruidos sobre los cursos de arroyos y regatas que antiguamente conformaron el paisaje.

Sin embargo, no hay que remontarse mucho en el tiempo para descubrir que donde hoy están las pistas de atletismo y el parque que las rodea, existieron antaño pequeñas acequias y canalizaciones que daban a una regata llamada *Larrabide* o *Carapote*, hoy desaparecida. Regata que recogía las aguas procedentes de *Latsunbe*, *Antziola* y la falda sur de Oriamendi, así como de *Iturizoko*, un riachuelo cercano al caserío *Sagastiya*. La regata desembocaría en el río Urumea, en la zona donde se ubican hoy los campos de rugby de Landare.

Con estos datos, y dibujado en nuestra mente el paisaje original que mostraba el enclave, nos resultará más fácil entender que la existencia de un molino en el antiguo *Carapote*, no solo fuera algo muy probable, sino hasta consustancial al lugar.

El hecho de ser una zona muy cercana al casco urbano de Hernani no ha impedido, sin embargo, que el recuerdo del molino que albergó se haya mantenido oculto hasta tiempos recientes, sin que los trabajos de molinología, ni los estudios realizados en el Urumea, a excepción de uno sobre el que más abajo nos extenderemos, se hayan percatado de su construcción. Oculto hasta que la revisión de un documento del Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa - Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa (AHPG-GPAH) de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sito en Oñati, hizo saltar la liebre, propiciando la búsqueda de nuevas pistas que, a la postre, confirmarían y certificarían la existencia de este antiguo molino.



Situación de la zona de Sagastialde en los años 1954 y 2015 (GeoEuskadi).

Primeras pistas del molino de Carapote

En julio de 2015, revisando documentos sobre la posible localización de canteras moleras en el Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa (Oñati), se localizó una referencia de 1647 sobre una carta de pago de cuatro piedras de moler para un molino de Hernani llamado Carapote. La referencia decía así:

AHPG-GPAH 3/1152, A: 211 r.-211 v. Escribano: Sebastián de Sasoeta. Hernani. *Carta de pago de Antonio de Ondaldagorri, vecino de Usurbil, a favor del capitán Francisco de Ayerdi, vecino de Hernani: 64 ducados por 4 piedras de moler que le hizo para el molino de Carapote.*

La referencia contenía información interesante sobre las piedras de moler, pero era el nombre del molino lo que más nos llamó la atención: “molino de Carapote”.



Carta de pago, 1647: Detalle del folio 211 r. (AHPG-GPAH 3/1152, A: 211 r. - 211 v.).

Entonces, comenzamos la búsqueda de dicho molino, recurriendo a la bibliografía existente. El molino de Carapote no era nombrado en el *Tratado de Molinología* de Antxon Aguirre Sorondo (Eusko Ikaskuntza, 1988), que citaba nueve molinos en Hernani (Pagoaga errota, Bekoerrota, Pikoaga errota, Ereñozu errota, Epele-errota, Osiñagako errota, Eziago errota, Karabel errota y molino Franco), ni en el Diccionario Geográfico-Histórico de la Real Academia de la Historia del año 1802; tampoco, en el Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico (Tomo IX) de Pascual Madoz (1847), que citaba únicamente cuatro molinos.

También contactamos y consultamos con personas de la zona, pero éstas no dieron resultados positivos. Ante ello, decidimos indagar en diversos archivos provinciales, para, así, intentar recabar nuevos datos sobre tan enigmático molino. Obtuvimos la pista de la hernaniarra familia Ayerdi, dueña del ingenio en la época referida, en el s. XVII; lo que nos llevó a la consulta de más de un centenar de documentos en el mencionado archivo de Oñati. Estas consultas fueron dando poco a poco sus frutos.

La posterior consulta del libro publicado por María Lourdes Soria, y titulado *"Los hombres y los bienes de la villa de Hernani entre 1585 y 1650"* (Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1982) nos facilitó algunos datos sobre el inédito molino de Carapote: *"La documentación nos habla de la existencia de, por lo menos, cinco molinos, cuatro de los cuales estaban directamente en las orillas del Urumea y el quinto en uno de sus afluentes. Remontando el río desde Astigarraga, el primero que se encontraba era el de Carapote. Pertenecía al capitán Francisco de Ayerdi, a quien en el año 1645 se le cobraban, por parte del concejo, ciertos robles que había cortado para la fábrica del molino de Carapote"* (HUA/AMH//C-2-9, fol. 23 vto.). Esta autora aporta otros datos, también inéditos, sobre el cercano puerto de Carapote y un puente existente en la zona, además de referencias varias localizadas en el Archivo Municipal de Hernani (HUA/AMH//A-1-4, folios 27 rto. y 236 vto.). También, sobre inundaciones y crecidas del río Urumea durante el periodo de tiempo objeto de su investigación. Sitúa al molino de Carapote en la orilla derecha del Urumea, aguas abajo del molino de Franco.

El molino en 1647

La carta de pago del 17 de noviembre de 1647, origen de esta investigación, lo dejaba muy claro: en Hernani, en la zona de Carapote, había un molino. El referido documento así lo confirmaba: *"Sepase por esta carta de pago como yo Antonio de Ondaldagorri vecino de la villa de Usurbil confieso aver recebido de mano del capitan Francisco de Ayerdi vecino desta villa de Hernani sesenta y quatro ducados precio por que le vendi y truje quatro piedras de moler çeveras para el molino questa fabricado en Carapote jurisdizion de la de Hernani los quales e recebido a saber la mitad del preçio al tiempo que truje y entregue dichas piedras y la otra mitad despues aca por San Miguel pasado y agora de presente ante el presente escribano y testigos diez y seis ducados y medio y sobre la entrega de las pagas echas como dicho es antes de agora renunzio las leyes de la execcion de la non numerata pecunia ..."* (AHPG-GPAH 3/1152, A: 211 r.- 211 v.).

Era la factura por el pago de una mercancía. La otorga el que cobra, Antonio de Ondaldagorri, vendedor de la mercancía y cantero de Usurbil, que fabricó las piedras de molino, y se las entrega al comprador y pagador, que es quien guarda la mercancía ante posibles reclamaciones por impago. El capitán Francisco de Ayerdi se queda con las cuatro piedras, y con la carta de pago, documento por el que se reconoce que se finiquita la deuda (era tan formal la transacción que se hizo escritura pública ante escribano público, hoy, notario). Gracias a este documento se ha podido conocer la existencia de este molino, además de confirmarse que ya estaba construido en Carapote, y que las piedras eran para moler ceberas (sinónimo de trigo y otros diversos cereales).

Cada piedra costó 16 ducados, que en reales eran 176, o 5.984 maravedíes, lo que suponía el coste de unas 4.500 a 5.000 tejas, en el precio de la época. Para hacernos una mayor idea de los costes de la época, una yunta de bueyes costaba 42 ducados, una vaca con su cría novilla 12 ducados, lo mismo que 10 ovejas con sus crías.

Obras en el molino. ¿Cuál es la causa?

Comprar cuatro piedras de moler a la vez no era lo habitual. Tal inversión únicamente la podría hacer una persona adinerada, y en una situación poco común: la hipótesis más razonable es que el molino fuera nuevo o por que, por alguna razón, se estaba reconstruyendo.

Dicha hipótesis fue cogiendo fuerza a medida que se acumulaban las referencias sobre el molino de *Carapote*, referencias relacionadas con obras en él realizadas. Por ejemplo, las que nos hablan de las obras llevadas a cabo en él entre 1645 y 1649, en las que se citan muchos de los elementos nuevos colocados, o que se repararon.

Existen cartas de pago y recibos relacionados con los robles que se cortaron para el molino (1645 y 1649) y del acarreo del maderamen (1648 y 1649), así como cartas de pago al cerrajero (1648 y 1649), al acarreador de tejas y ladrillos (1648) o al achicador de hierros (1648) y entallador de las medidas (1648); cartas de pago de la “clavazón” (1649) o del albañil (1649) por las obras que hizo, o de los *buyerizos* y canteros por componer las piedras molederas (1649). Sin embargo, es en uno de los documentos de 1649 donde se indica el motivo de las obras. La zona de *Carapote* había sufrido una inundación: “*por quitar el embarazo del aguaducho en la estolda*” (AHPG-GPAH 3/1154, A: 72 r.-73 v.), es decir, quitar el “impedimento” que causó la inundación en la parte baja donde están las turbinas del molino. En el mismo documento se dice que se pagaron 1.526 reales por las 294 peonadas trabajadas en la obra del molino y sus acequias, presa y estolda, siendo que la orden y traza de dichas acequias y presa fue realizada por un maestro francés, y que duró dos meses, de modo que en la obra pudo trabajar un grupo de seis personas. La cita en plural de “*acequias*” nos induce a pensar que el molino tomaba agua de diversos lugares cercanos.

Las obras anteriormente citadas no son las únicas. En un escritura de obligación de 1656, se indican con todo detalle las obras que se ejecutaron en el molino; en dicha escritura (AHPG-GPAH 3/1167, A: 232 r.- 241 r.), interviene el capitán Francisco de Ayerdi por la cesión de determinados bienes al matrimonio entre Juan López de Arratia y Ana Francisca de Ysasa. Además, en dicho documento, se citan otros conceptos de las obras en el molino, sobre los que no se indican fechas concretas pero que serían coetáneos o incluso previos a los ya citados, como las ocupaciones en reconocer y nivelar el puesto del molino y por “*tablas de fino que se truxieron para Carapote y su acarreto*”.

Aunque no se conoce el año concreto de la inundación que afectó al molino, ya que la documentación consultada no lo indica expresamente, se sabe que en verano de 1636 hubo una gran riada en el Urumea, con grandes destrozos en la ferrería de Fagollaga, afectando al molino Franco y que, incluso, derribó el puente de Carabele (Tratado de Molinología, pág. 563, 1988), así como otras ocho avenidas o crecidas del río madre que María Lourdes Soria describe entre 1638 y 1648. De ello deducimos que la compra de cuatro piedras por parte de Ayerdi, y la reedificación del molino fue probablemente consecuencia de obras mayores que se debieron ejecutar por verse afectado por una o varias de aquellas continuas catástrofes.



Escritura de obligación, 1656. Detalle de los folios 238 v. y 239 r. (AHPG-GPAH 3/1167, A: 232 r.- 241 r.).

Hoy es conocido que las antiguas tierras de *Carapote* se encontraban en zona inundable, como muestra el corte de 180 cm de potencia de una de las laderas, con decimétricos cantos de río, situado a 580 metros de distancia del actual cauce del río Urumea, en la parte trasera de Sagastialde auzoa. No sería raro, por tanto, que una riada como la de 1636 fuera la causante de semejante destrozo.



Cantos de río en la zona baja de Sagastiya.

De todo lo anterior se concluye que las obras del molino eran de reedificación, lo que implica que el molino ya existía antes de producirse la riada que lo destruyó.

El molino de Carapote y sus dueños

Todas las pistas obtenidas dan pie a pensar que los terrenos del molino le llegaron al capitán Francisco de Ayerdi en 1634, por enlace matrimonial con Maria Arano de Sassoeta, formando parte de las propiedades del primer marido de esta, Juan de Ysasa, fallecido el 13 de agosto de 1626. Se han encontrado indicios en un dato algo más antiguo, del año 1625, referidos a un terreno sembradío llamado *Yerasoro* que Juan de Ysasa arrienda a Domingo de Alcega y Ramos de Aristi. El significado de dicho topónimo podría hacer referencia a "heredad del molino" (*Eihera-soro*), pero no tenemos la certeza documental de que se trate de la misma zona de *Carapote*, aunque todo apunta a ello (AHPG-GPAH 3/1108, A: 38 r.-39 r.).

En 1672 el molino ya pertenece a Juan Lopez de Arratia, que lo arrienda por cuatro años: "*El capitan Juan Lopez de Arratia vezino de la dicha villa y dueño del molino de Carapote sito en jurisdizion de ella y dixo que dava y dio en renta y arrendamiento a Juan Lopez de Yparraguirre vezino de esta dicha villa que esta presente el dicho molino, su casa de habitacion, huerta y dos yugadas poco mas o menos de tierra sembradia, junto al puerto llamado de Carapote anexas al dicho molino y las mesmas que Francisco de Çapiain vecino de esta dicha villa y arrendador hultimo del dicho molino a tenido en arrendamiento, con reserva de la fruta de la parra y demas arboles frutales y manzanales del dicho molino por tiempo y espacio de quatro años corrientes desde el dia de San Martin onze de noviembre primero venidero de este presente año en adelante, por preçio y quantia de noventa y cinco ducados de vellon al año pagados a fin de cada uno*", siendo que las obras mayores las debe realizar el propietario, quedando para el arrendador las obras menores, tales como picar las piedras moleras y otras "menudencias" como la limpieza de las acequias (AHPG-GPAH 3/1215, A: 211 r.-212 v.).

Al fallecimiento de Joan Lopez de Arratia en 1676, siendo alcalde Agustín de Justiz, se procede a la apertura del testamento, y podemos comprobar que el molino sigue arrendado a Juan Lopez de Yparraguirre, pero que ese mismo año se dará por finalizado por llegarse al término del plazo el mismo día de San Martín (AHPG-GPAH 3/1219, A: 297 r.-304 v.).

La zona de Carapote

“Carapote”, como se nombra en los archivos consultados, o “Kapote”, como es conocido actualmente por los hernaniarras, era un caserío situado muy cerca de la moderna rotonda localizada en frente de la iglesia de Florida auzoa. Las referencias obtenidas nos dicen que ya a mitad del siglo XVII el caserío estaba en pie (AHPG-GPAH 3/1171, A: 126 r. - 127 r.), y fue a mediados del siglo XX cuando se derribó y se construyó un nuevo edificio de viviendas llamado “Karapoteberri” (1957), que todavía existe.



El edificio “Karapoteberri”.

Sin embargo, en el siglo XVII *Carapote* no sólo era un caserío, sino todo un lugar constituido por el mismo caserío, el molino, una ribera con zona sembradía, una regata, un manzanal con árboles frutales, bosque para obtener madera y un puerto fluvial (AHPG-GPAH 3/1143, A: 181 r.-182 v.; AHPG-GPAH 3/1089, A: 194 r.-194 v.; AHPG-GPAH 3/1171, A: 100 r.-103 v.), que se encontraba no muy lejos de la villa, por lo que no es de extrañar que ante una zona tan estratégica los dueños de estas tierras fueran familias de mucho poder en aquella época.

Para que el lector pueda situarse mejor, diríamos que el lugar de *Carapote* hoy estaría ubicado entre los campos de rugby de Landare y Florida auzoa, sin que se sepa de una manera muy detallada cuáles eran sus límites reales.

¿Dónde estaba exactamente el molino de Carapote?

La ausencia de vestigios, y el desconocimiento de su ubicación por las personas encuestadas hace prácticamente imposible conocer dónde estuvo realmente situado el molino de *Carapote*. Sin embargo, las pistas que nos dan los documentos históricos nos permiten acercarnos, poco a poco, a la posible ubicación del mismo.

En el documento de 1672 que hemos rescatado, se indica que entre el molino y el puerto de *Carapote* había casi dos yugadas de terreno, que son las que se alquilan junto con el citado molino. Teniendo en cuenta que una yugada era la superficie que una yunta de bueyes podía trabajar durante una jornada, y que se estima en unas 0,3 hectáreas (AHPG-GPAH 3/1215, A: 211 r.-212 v.), calculamos, por lo tanto, que la distancia aproximada entre el molino y el puerto sería de unos 110 metros lineales.

Se entiende que el puerto de *Carapote* estaría en la orilla izquierda del río Urumea, cerca de la desembocadura de la regata *Carapote* o *Larrabide*, lugares en los que solían establecerse los puertos fluviales, aprovechando las zonas de menos corriente, donde se acumulaban los sedimentos aportados por los ríos, creando playas que facilitaban la zona de desembarque (Iñaki García de Vicuña, observación personal). Las referencias actuales de un puerto fluvial en la zona de *Carapote* no van más allá del primer tercio del siglo XVIII, salvo la escueta cita que ya hemos apuntado de María Lourdes Soria (1982).

El molino debía estar a unos 110 metros del puerto, no muy lejos de la regata que descendía de *Antziola* y *Latsunbe*, y que se unía para crear una única regata que, según un plano de 1793 del libro *"Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa"* (pág. 191, DFG, 1994), pasaría cerca del caserío *Carapote* que, aun no apareciendo en él consignado, sí coincide con la posición del caserío *Carapote* nombrado en los mapas de 1852 / 1858 (*"Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa"*, pág. 211) y en el mapa de 1900 que se ha consultado. Un documento de 1655, además, nos da más pistas sobre la ubicación del molino, al detallar que el manzanal de *Goibireta* se encuentra enfrente del molino de *Carapote* (AHPG-GPAH 4-0593, A: 154 v.-155 r.).



Situación de la zona de Carapote en 1852 (mapa DFG).

"Carapote", el topónimo perdido

Nadie pone en duda la importancia de la zona de Carapote allá por el siglo XVII. No todas las riberas del Urumea tenían un molino y un puerto fluvial en la misma zona. Los molinos eran necesarios, al depender de ellos la economía cerealista, incluida la del maíz. Los cereales panificables y el maíz, así como los piensos para el ganado necesitaban ser molidos. El puerto, por otro lado, controlaba las mercancías que venían desde río arriba o río abajo. En esa época llegaba mucho trigo por mar a Gipuzkoa procedente de la costa atlántica francesa.

Hoy en día el nombre de "Carapote" ha quedado relegado a una parte integrante del topónimo "Karapote-berri", por lo que el topónimo original de la zona se ha reducido hasta tal punto que resulta prácticamente desconocido para la mayor parte de hernaniarras.

Además del de "Carapote", los más de un centenar de documentos examinados han aportado gran cantidad de topónimos, detalles, costumbres e información de las familias y vida de los hernaniarras del siglo XVII. Información ésta que será facilitada al Archivo Municipal de Hernani.

Los documentos del archivo de Oñati nos han ayudado a entender un poco mejor la vida de la zona de *Carapote*; una zona que perteneció al menos a dos familias con mucho poder en aquella época: los Ayerdi y los Justiz (de Hondarribia). Dos familias que entroncaron posteriormente, que terminarían uniéndose en 1679 con el matrimonio de Ana María de Arratia y Agustín de Justiz, por lo que los terrenos de la zona de *Carapote* se convirtieron en propiedad de una única familia.

Resumen de los documentos del Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa (Oñati)

1645: Reçivo de Juan Lopez de Yrigoi en de quatroçientos reales de los robles que se cortaron para el molino de Carapote firmado del mismo en treçe de otubre de mill y seisçientos y quarenta y cinco.

1647: Carta de pago de Joanes de Echeverria tejero de los materiales que se llevaron al molino de Carapote en veinte y dos de deziembre de mill y seisçientos y quarenta y siete ante Sevastian de Sasoeta.

1648: Carta de pago de Sevastian de Echeverria de los acarretos del maderamen del molino de Carapote en veinte y uno de diciembre de mill y seisçientos y quarenta y ocho signado de Sevastian de Sasoeta. Carta de pago de Domingo de Arraçain çerrajero de las obras que hiço para el molino de Carapote fecha a veinte y seis de deziembre de mill y seisçientos y quarenta y ocho signada de Sevastian de Sasoeta. Reçivo de Joanes de Larramendi de los acarretos de la teja y ladrillos para Carapote firmado de Gaspar de Oguillurreta en veinte de deziembre de mill y seisçientos y quarenta y ocho. Reçivo de Josep de Ansa achicador de los fierros que dio para pesas palenque para el molino de Carapote firmado de Juan de Sasoeta en veinte de junio de mill y seisçientos y quarenta y ocho. Reçivo de Phelipe de Lecunberri entallador de las medidas que hiço para el molino de Carapote fechado y firmado en veinte de junio de mill y seisçientos y quarenta y ocho.

1649: Carta de pago de Antonio de Unanue de los robles que se cortaron para Carapote a onze de abril de mil y seisçientos y quarenta y nueve ante Sevastian de Sasoeta. Carta de pago de Sevastian de Echeverria y su hermano Adrian de los acarretos del maderamen de Carapote firmado a seis de abril de mill y seisçientos y quarenta y nueve ante Sevastian de Sasoeta. Recibo de Pedro de Irigoyen çerrajero de las obras que hiço para Carapote firmado de Estevan de Oguillurreta en tres de henero de mill y seisçientos y quarenta y nueve. Carta de pago de Nicolas de Olloquiegui de la clabazon que hiço para el molino de Carapote (por valor de 347 reales) ante Sevastian de Sasoeta en onze de abrill de mill y seisçientos y quarenta y nueve. Reçivo de Domingo de Lasarte Sagasti albanil de las obras que hiço en el molino de Carapote firmado del mismo y de Sevastian de Sasoeta escribano en seis de febrero de mill y seisçientos y quarenta y nueve. Carta de pago de Pedro de Soroa y consortes de las ocupaciones que tuvieron en abrir las acequias y estolda del molino de Carapote en seis de abrill de mill y seisçientos y quarenta y nueve ante Sevastian de Sasoeta. Reçivo de Catalina de Garmuno de la costa que hiçieron los buyeriços y canteros en conponer las piedras molederas de Carapote firmado de Domingo de Sasoeta en veinte de septiembre de mill y seisçientos y quarenta y nueve. Conocimiento de maese Martin de Ayçalde por las ocupaciones que tubo en reconoçer y anivelar el puesto del molino de Carapote quando se trato redificar firmado de Francisco Ybañes de Herquiça escribano.


NOTA

Cuando este artículo se encontraba ya redactado, encontramos nuevas pistas, pistas que dejan abierta la investigación para poder conocer más la historia del molino de Carapote.

En un documento de 1774 se cita el partido de *Becoerrota* ("llamado así en la villa"). Zona que sería lindera al camino real que se dirigía a Francia, a las paredes de la huerta y jardín del convento de las Agustinas y a las tierras de dos propietarios particulares (AHPG-GPAH 4/0593, A: 54 r. - 54 v.). En un documento de 1775 se nombra la casería llamada "Becoerrota", que tienen en propiedad Josepha María y Francisca Ignacia Manuela de Arratia (AHPG-GPAH 4/0593, A: 119 v. - 120 v.), nietas del último dueño conocido del molino de *Carapote* en 1676, Joan López de Arratia. La cercanía de la casería de *Becoerrota* a la casería de *Carapote* (aproximadamente unos 200 m), el nombre "Becoerrota" ("molino de abajo"), que es como lo llamarían en la villa (el molino quedaba en la parte baja de la misma), y que fuera propiedad de la misma familia que tenía el molino de *Carapote*, nos da indicios para pensar que el molino de *Carapote* pasó a ser casería, y llamarse *Becoerrota* (homónimo de otro molino situado en Pagoaga, también citado por Antxon Aguirre Sorondo en el libro "*Hernani y los hernaniarras*").

En un plano de 1861 realizado por el agrimensor Jose María Múgica se comprueba perfectamente que el arroyo que viene desde *Latsunbe*, hoy enterrado bajo las casas, se llamaba *Becoerrota* y que se uniría a la regata *Sagastia* para convertirse en la regata *Carapote*. Esta regata se situaría a unos 200 metros al suroeste del caserío de *Carapote*, encajando perfectamente con la descripción que realizan en el documento de 1774 (AHPG-GPAH3/3281, A: 193).

Esta nueva hipótesis, sin embargo, deberá ser contrastada con la búsqueda de más documentos que acrediten el cambio de nombre y el abandono del molino como tal. Siendo así, resultaría mucho más fácil acertar la ubicación exacta del molino, cosa que se intentará resolver en la segunda parte de este artículo.



Detalle del plano de 1861, donde se aprecia a la izquierda “Banco de Carapote” y a la derecha el caserío Carapote.

GARAI BERRI BATEN HASIERA

1966AN, HERRIAN, SONA HANDIA IZAN ZUEN KULTUR EKITALDIA OSPATU ZEN AITOR ANTZOKIAN;
EZ DOK AMAIRUREN HITZAURRE IZAN ZEN JAIALDIA

| **Jon Odriozola eta Joxan Goikoetxea**

Hirurogeiko hamarkadan (1960-69), Gipuzkoan, herritarren ia %60ak industrian egiten zuen lan. Hamarkada bat lehenago izandako migrazioaren ondorioz, populazioa nabarmen ugartu zen. 1966an, bestalde, turismoak gorantz egin zuenez hizketarako bidea eman zuten orduko moda tendentzia berriek.

Urte hartan, Espainiako telebistak (TVE) bigarren katea –UHF– jarri zuen martxan; ETB jaiotzeko urteak falta ziren (1982). Musika alorrean, Donostiako Trinitate plazan Jazzaldiko lehen edizioa ospatu zen, eta 'goateke' askotan *Los Brincos* pop taldeko *Black is black* kanta entzun zitekeen. 1966ko abuztuan, bestalde, Donostiako Radio Popularreko zuzendaritzak, *The Beatles* taldeko partaide batek egindako ustezko adierazpen batzuegatik –Jainkoa baino famatuagoak gara– taldearen kantak irratan emateari utziko ziotela jakinarazi zuen.

Euskal Herria Francoren diktadurapean bizi zen. 1966an, 'Fragaren Legea'k lehen urratsak eman zituen, hau da, Prentsa eta Inprenta legeak. Manuel Fraga Iribarne (1922-2012) eskuindar politikari galiziar ezaguna izan zena, 1962tik Informazio eta Turismo Ministerioko (MIT) burua zen. Legea, zenbaitzuk, liberalizat jo zuten. Aurretiazko zentsura ezabatzen bazen ere, liburu bat kaleratzeko prozesua kontrolpean izaten jarraitzen zuten espainiar agintariek.

Eta giro honetan, zein zen euskal kulturaren egoera?

Bertsolari txapelketa batzuk jokatzear gain (1960, 1962, 1965 eta 1967), adibidez, 1962an, Auñamendi editoriala legeztatua izan zen. 1963an, *Zeruko Argia* aldizkaria astekari bihurtu zen euskal kazetaritzari bultzada emanez. 1964an, berriz, Donostian, *Jarrai* antzerki taldea jaio zen Iñaki Beobideren (Zumaia, 1934) eskutik. Taldeak antzerki berrizalea egin zuen: euskal autore gazteen lanak ezagutarazteaz gain, Ameriketako eta Europako autore garaikideen obrak antzeztu zituen.


Jai-aldi berezia

Jarrai taldeko gidaria, Iñaki Beobide, antzerki munduan ezaguna zen, eta erlazio handia zuen Jesus Mari Olano hernaniarrarekin: *"Bere osaba, Juan Olano, Santa Barbara elkarteko presidentea zen. Hantxe egiten genituen bilerak. Beti zeuden biok laguntzeko prest, guk, Hernaniko Aitor antzokian antzeztu genezan"*, dio Beobidek.

"1965ean, istripu baten ondorioz Donostiako Antigua auzoko Gurutze Gorriko ospitalean nengoela, Joxan Artze (Usurbil, 1939) etorri zitzaidan bisitan jaialdi bat antolatu nahi zuela esanez. Gure ibilbideagatik, eta saltseroak izanik, 'Iñaki, muntatu ezak zerbait', esan zidan. Ondoren, beti bezala, Jesus Marirengana jo nuen, eta martxan jartzen hasi nintzen guztia. Mikel Laboarekin, adibidez, hartu eman handia nuen: elkarren ondoan bizi ginen Antigua auzoan. Bere haurrak gure etxean sartuta maiz ibiltzen ziren. Julian Lekuona, seminarioan ezagutu nuen. Beraz, pertsona askokin nuen harremana". Jarrai antzerki taldeak Hernanin eta Donostian antolatu zituen jaialdiak.

"Garai hartan, Hernanin, euskal mugimendu handia zegoen, eta horrek bultzatuta erabaki genuen emanaldi bat bertan egitea. Gure antzezlanetan, beti betetzen zen aretoa", gogoratzen du Iñaki Beobidek. "Aitor antzokia alokatu, eta sarrerekin gastuak ordaintzeko adina diru ateratzen genuen".

1966ko *ilbeltzaren* –urtarrila– 9an, igandea, eguerdiko 12:15etan, ekitaldi kultural ezohikoa ospatu zen herriko Aitor antzokian: *Jai-aldi berezia*. Egun gutxi batzuk lehenago, Luis Gorrotxategi Mirandak, Santa Barbara Elkarteko batzordeko presidentea, eskari bat egin zuen udalean "jaialdi artistiko" bat ospatzeko baimen eskatuz.



"Esker beroenak 'Jarraiko' antzestaldeko neskatx-mutilleri, gure eskaerari, ain gogoz ere, erantzun eder au eman diotelako Ernani'ko erriari eskeiñiz jaialdi eder eta txalogarri au. Eskerrak ere, biotz-biotzez, ain ederki gure asmoak bete dituzten abeslari, dantzari eta ereslari aipagarriari. Azkenik, eskerrak ere Ernani'ko erriari, ziur gaude ba igandean, AITOR antzokian bilduko dala bere txalo beroenakin, merezi duten ongi-etorria egi-tera gure lagunei", zioen jaialdiko egitarauaren hitzaurreak.

Ilbelta - Urtarrila

Joxe Mari Iriondok (Azpeitia, 1938), kulturalki, Euskal Herrian izan den boladarik garrantzitsuen 1960-1968koa izan dela deritzo: euskararen batasuna, euskal argitalpenak asko ugartu ziren... Hernaniko jaialdiko entzuleetarikoa bat izan zen Iriondo. Ordurako herria ezaguna zuen: San Joan jaietan Elur-Txori Elkar-teak Txantxilla futbol zelaian antolatzen zuen herri-kirol jaialdietako aurkezle lanetan aritzen zen.

"Aitor antzokia lepo bete zen", gogoratzen du azpeitiarrak. Bertan, *Izarti* baletak, Mikel Vicondoak, *auspo-soiñulariak* -akordeoilariak-, Josean Villarre, Mikel Laboak, Julian Lekuonak, *Kemen* hirukoteak eta *"Biarriak"* taldeak parte hartu zuten. *"Pelotari"* zine-pelikula ere eman zuten. Ordurako, Iriondo partaide zen Loiolako Herri Irratian, Lourdes Iriondoren, Julian Lekuonaren, Jose Antonio Villarren... kanten grabaketak maiz ematen zituzten uhinetatik barrena.

Bere emanaldia eskaini zuen *Izarti* baletak: uda hartan, uztailan, Caceresen ospatu zen Jaialdi Folkloriko Hispanoamerikarrean parte hartu zuen. *"Harrez gero ez dut talde donostiar honen berririk izan",* dio Iriondok. Mikel Bikondoa akordeoilari ospetsuak ere egin zuen bere saioa. Gero, abeslarien txanda iritsi zen.

Egitarauaren arabera, lehena kantatzen, Arrasate eta Bergarako orkestra batean jotzen zuen Joxan Villar izan zen. *"Kantari ona izateaz gain, gitarra jole hobea zen",* gaineratzen du azpeitiarrak. *"Bere bakarlari ibilbidearen hasieran Iparragirreraren kantak kantatu arren, Juan Mari Lekuonak eginiko lanak kantatu zituen gerora".* Ondoren, Mikel Laboa aritu zen. Ostean, berak egindako protesta kantak abestu zituen Julian Lekuonak. Bere atzetik, euskal musika tradizionala kantatzen zuen sanjuandar *Kemen* Hirukoa aritu zen. Eta azkenik, *Biarriak* taldea. Gurmendi anai-arrebek -bi neska eta bi mutil- osatzen zuten laukotea, eta ye-ye musika euskaraz kantatzen zuten. Taldeko partaide batek, Arantxa Gurmendik, *Zeruko Argian* 'Gazte naiz' sailean idazten zuen, eta Londresen barrena ibilia zenez ye-ye musikaren defendatzailea zen. *"Hernaniko jaialdiak, zentzu guztietan, hasiera bat markatu zuen",* eransten du Iriondok.

YE-YE

Marian Arregik, Arantxa Gurmendik eta Ramon Saizarbitoriak aurkezle lanak egin zituzten bi ekitaldietan. *"Orduan, Jarrai antzerki taldeko partaidea nintzen. Garai hartan ez zegoenez laguntza publikorik, eta taldeko lanak Hernaniko Aitor antzokian antzezten genituen. Lagun batzuk bagenituen Hernanin; Santa Barbara elkartera, adibidez, dezentetan joan izan ginen"*, dio Ramon Saizarbitoriak (Donostia, 1944).

"Iñaki Beobide, antolatzaile ona eta asko mugitzen zen pertsona langilea zen. Kantariak bakoitza bere aldetik ari zirela ikusirik ekitaldi batean batu zituen. Gero, kantariak elkartu eta beraien aldetik sortu zuten Ez Dok Amairu".

Euskal Abesti Berriaren izenburupean egin ziren Hernani eta Donostiako jaialdiak: *"Garai hartan dena zen berria edo berrikuntza. Hau da, euskara kaleratzea zen helburu nagusia: antzerki zaharrak, baserri kutsukoak gainditu eta kaleko egitea. Modernizatzea. Orduan, adibidez, inork ez zekien txalaparta zer zen. Akordatzeko naiz, Zuaznabar anaiek traje eta gorbatarekin jo zutela txalaparta Donostiako jaialdian. Euskararen maila duintzeko helburuarekin, bi emanaldiak ez ziren plaza irekietan egin, antzokietan baizik. Kontuan hartu behar da, orain gezurra badirudi ere, garai hartan zenbait jenderi lotsa ematen ziola euskara kalean erabiltzea; euskarak ez baitzuen batere prestigiorik"*. Donostiakoa saioaren amaieran, aurkezleak, Saizarbitoriak, *"Gazteok, izan zaitezte yeye edo nahi dezutena baina lehenen eta beti euskaldunak"*, esan zuen.

Saizarbitoriak, garai hartan, Zeruko Argia aldizkarian idazten zituen artikuluak, eta erabiltzen zuen janzkera hausleak ziren. *"Ni, donostiar kume normala nintzen. Idazten ere uste dut horregatik hasi nintzela; gazteleraz edo frantsesez irakurtzen nuena euskaraz aurkitu nahi nuelako. Hau da, normaltasunez euskaldun izan nahi nuen. Hori izan zen nire helburu xumea"*.

Emanaldien ondorioz, aldeko eta kontrako jarrerak azaldu ziren. *"Garai haietan, ile luzeak, bizarrak... hizpidea ematen zuten. Tradizionalista asko zegoen abertzale edo euskaltzaleen lerroetan. Batzuk, uste zuten euskarak eliz eta sukalde txokoan iraun behar zuela. Guri, berriz, iruditzen zitzaigun kalera irteten ez bazen, akabo! Gu euskara batuaren aldekoak ginen, eta euskarak modernotasunaren ospea hartu behar zuela defendatzen genuen. Uste dut neurri handi batean asmatu genuela"*, azpimarratzen du idazleak.

Saioaren amaieran, 1964an Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquertek eginiko *Pilotari* filma ikusi ahal izan zen. Egitarauak zihoen bezala, esaleak -aurkezleak-, Arantxa Gurmendi *andereñoa* -*Biurriak* taldeko kidea- eta *Jarrai* antzerki taldeko partaidea zen Ramon Saizarbitoria aritu ziren.

Saioaren ostean, Iñaki Beobidek, emanaldia serio samarra izan zela ikusirik, egun batzuk geroagoko Donostiako Victoria Eugeniean egingo zen jaialdiari begira -urtarrilak 23- *Biurriak* taldeari gitarra elektronikoe-kin kanta *martxoso*ak prestatzeko eskatu zion.

Burrumba

Hernaniko ekitaldiak ez zuen hiriburukoak adina oihartzun izan garai hartako hedabideetan baina Zeruko Argia aldizkarian aipamen bat argitaratu zen Ernani atalean:

"Lengo igandean ilbeltzak bederatzi Aitor antzokian 'Santa Barbara' gizartea'ren bitarteko dala, Donostiako 'Jarrai' taldiak antolatuta puntzio eder bat izan zan.

Aitor antzokia asko xamar bete zan 'Jarrai' taldekoak atera dizkigute eltzatik babak, gure euskera maitea nun agertuko digute, eta oraingo patata zamorro edo, 'Beatles' dalako oiek abesten dituzten abesti obetan.

Bejondaizuela, auek etxerako. Oso gogozkoa izan tzan jendearen tza, eta guziak ao batez txalotu genituan.

Egun batzuen buruan, hedabide berean, *"Euskal kanta berriak aidean"* albistea plazaratu zen bi jaialdiei -Hernani eta Donostia- gain-begirada emanez:

MODERNITATEA: ESTETIKAREN IRAULTZA

Mari Karmen Garmendia (Ormaiztegi, 1947) irakasle ohia 'Miren Orreaga' goitzenpean idazten aritu zen *Zeruko Argia* aldizkariko 'Gazte naiz' atalean. Bere sailari 'Emakumearen jasokundea' izena jarri zion.

"Gitarra zartxo bat det, nik nire laguna", dio Joxe Mari Iparragirre urretxuarraren kanta ezagunak. Halere, Ez Dok Amairuren hasierako garai haietan, gitarra ez zegoen ondo ikusia zenbait sektore euskaltzale eta abertzaleetan. "Gitarraren etsai bat Elbira Zipitria (1906-1982) irakaslea izan zen", dio Mari Karmen Garmendiak. "Gitarra, flamenkoarekin erlazionatzen zuelakoan nago. Oso espainola eta ikaragarri modernoa iruditzen zitzaion: gitarra, txistuaren aurkakotzat zeukaten berak zein beste batzuk. Adibidez, ikasle nintzela, irakasleen egoitzako arduradunak, Pakita Arregik, bere lagun bat ekarri zuen, guk, ikasleok, gitarra jotzen ikasi eta gero hurrekin ikasgeletan erabili genezan. Zipitriak ez zuen batera ondo hartu egitasmo hura".

Nemesio Etxaniz (1899-1982) txanponaren beste aurpegia izan zen. "Apaiz euskaltzale eta abertzalea pertsona irekia zen", gaineratzen du Garmendiak. "Sena handia zuen musikarako. Tangoak ere idazten zituen. Beraz, egoera hauek guztiak aintzat hartuz gero, Hernani eta Donostiako kontzertuak modernitatezko jauziak izan ziren".

Musikak ez ezik, estetikak ere pauso handia eman zuen. "Lehen, kaikua -euskal arropa tradizionala- janzen bazen, orain erabiltzeari utzi zitzaion; mototsa erabiltzeari utzi eta adats luzeak azaltzen hasi ziren; lehen, 'flekilorik' erabiltzen ez bazen, orain, bai. Mutilek ez zuten txapelik eramaten. Ez aurka zeudelako, euren estetikarekin bat ez zetorrelako baizik".

Horren adibide bi jaialdietan parte hartu zuten aurkezleak izan ziren: "Arantxa Gurmendi 'flekilodun' neska liraina zen. Minifalda eta bota luzeak janzen oso ausarta izan zen. Ramon Saizarbitoriak, berriz, orrazkera berezia izateaz gain dotore janzen zuen. Orduko modernitatearen bi kimu".

Beste muturrean, berriz, Iñaki Eizmendi 'Basari' zegoen. "Antza denez, joera hauek ez zituen ondo ikusten nahiz eta bera 'bertsolari gorbataiduna' izan", gaineratzen du Garmendiak. "Jarrera horren beste muturrean, hau da, estetikarekin hautsi zuen beste norbanako bat Xabier Lete kantaria izan zen. Ile kalpar, kizkur doma ezinaren irudia. Beraz, gizarte eta mundu euskaltzale berberean, bi joera edo ikuspuntu kontrajarri agertu ziren".

"Ernani'n Ilbeltza'ren 9'an eta Donosti'ko Victoria Eugenia Antzokian 23'garrenean, garaipen aundia izan du gure izkuntzak.

Egun oietan izan ere, lenengo aldiz antolatu da Euskal Abesti Berrien Jaialdia. Gure gaztedia, nexka ta mutil, bildu dira gaurko giro berriko kanta sail bat abesten. Erriak, berriz, ederki erantzun du, ta kantarien lana gogoz txalotu ere.

Kitarra ta pilarmonikaz lagunduak batzuek; orkestinaren laguntzataz besteak, gaurko telebistan erderaz entzuten ditugun abesti berrien giro ta aidetan, euskerazko itzekin abestuak entzun ditugu alako kanta atsegiñak. Euskerak gaur arte lur berria zuan kanta sail ori. Gaurtik euskerak beretzako irabazi du katan berrien saila".

Parte hartzaileen nondik norakoa ere azaltzen du albisteak:

"Kemen izeneko neska irukotea, pilarmonikaz lagunduta agertu zitzaigun kanta arin eta atsegiñez. Mikel Laboa, mediku gazteak, kanta zarrak berrituta bezela erakutsi zizkigun Ernani'n. Bere diskoa ezaguna da Euskalerrian, eta aurrera dijoa diskoak gertatzen.

(...) Arantxa Gurmendi'k bere era berria erakutsi zigun dotore ta txairo orkestinaz bere doiñuak apainduaz. J. Lekuona apaiz jaunak, oster, abesti sakonak eta zirrarakorra ixuri zizkigun kitarra eskuetan zuala".

Bikondoa “auspo-joille -akordeonista- yayoa”ren aipamenik ere egiten da kronikan:

“Españia’ko txapeldun eta Europa’n boskarrena gelditu danak, bere soiñuaz goza du bildutari-riko jendetza”.

Jaialdiaren amaieran eman zen filmaren berri ere informatzen du albisteak:

“Jaialdia bukatzeko PELOTARI pelikula, euskeraz azaldua ikusi genduan arri ta zur. Alako zine ederrik eta ikusgarririk! Gure pelota jokoa zoragarri esnaera pozgarria gure gazte ta agertzen du. Orra Jaialdi berria ta gure izkuntzarentzako”.

Gonbita bat ere luzatu zuen idatziak:

“Orain ekin beste gazteok ere, zuen gaitasuna sail onetan erakusten. Sortu kanta berriak, lengo zaarrekin batera kanta ditzan Euskalerriak. Iparragirre’renak bere sasoian bezela, barreia ditezela aide berriok Euskalerrri guzian!”.

Saioek sona handia izan zuten, aldeko eta aurkako iritzi mordoxka jaso zituzten. Maria Elena de Arizmendik, adibidez, zera idatzi zuen hedabide batean Donostiako Victoria Eugenia antzokian antolaturiko ekitaldiaren harian:

“Esto no es más que una triste prueba de resquebrajamiento en la personalidad; un desprecio irresponsable a la solera que debemos respetar. Mucho menos grave sería vestir a Frank Sinatra con boina y blusa y ponerle a cantar un zorziko en inglés”.

Karlos Santamaria (1909-1997) irakasle eta idazleak ere bere iritziaren berri eman zuen:

“Cuando en nombre del folklore tradicional, del que nos viene del pasado, se trata de condenar el folklore vivo, el que está naciendo ahora, importando quizás de América —todo ha sido importado de alguna parte— entre estruendo de guitarras electrónicas, creo que se comete un error. Porque sin fecundación no hay multiplicación de la especie. No veo por qué la entraña popular vasca vaya a ser incompatible con el ritmo «yeyé». Al contrario, me felicito de que la vieja lengua de Aitor haya sido capaz de encontrar ahí un campo de expresión, porque esto significa que está aún viva y que en ella subsiste aquella capacidad de adaptación que algunos, como Unamuno, habían pretendido negarle definitivamente. Nuestros jóvenes no quieren saber nada de un «folklore» que huele a naftalina. Y en esto no hay más remedio que darles la razón”.

Ĺñaki Beobidek gogoan du emanaldiek sortu zuten saltsa: “Pasa egiten ginela; euskararen aldetik arauz kanpo ibiltzen ginela; oso ezkertiarak ginela... leporatzen ziguten euskaltzaleek ere. Egoera honetan inork defendatu bagintuen Karlos Santamaria izan zen; aurpegia atera zuen gure alde”, azpimarratzen du zumaitarrak. “Kalera atera, aditzera eman, eta talde bezala jaialdiak eman nahi zituztenez, gero etorriko zenaren abiapuntu izan ziren bi kontzertuak”, dio Ĺñaki Beobidek. Hautsak harrotu arren, Aitorren hizkuntza zaharrak eta joera ezberdinek, Aitor antzokian etorkizunerantz pauso sendoa eman zuten.

EZ DOK AMAIRU ABIAN

Nahiz eta 1966ko Hernaniko eta Donostiako jaialdietako partaideak ez ziren izen jakin batepean aurkeztu, ordurako hasiak ziren zenbait lagun mugitzen. *"1965ko, urriak 13an, bilera bat egin zen Zarauzko Euromar hotelean"*, gogoratzen du Joxe Mari Iriondok. *"Joxan Artzek eskatuta, Lourdes Iriondok hots egin zidan elkartu gintezkeen galdezka: hirurok bildu ginen Zarautzen. Handik hamabost egunera beste bilera egin genuen Azpeitian aurrekoari jarraipena emateko. Eta handik beste hainbestera hirugarren bat egin zen Donostian"*.

Ez Dok Amairu izenaren inguruan teoria asko daude arren, hiriburuan egin zen bigarren bileran zehaztu zen; San Martin kaleko Iturrioz tabernako sotoan. *"Aurretik nire etxean, Joxan Artzek, Resurrección Maria de Azkue euskaltzalearen 'Euskalerraren Yakintza' liburua topatu zuen. Donostian egin zen bigarren bilerara, liburuan ageri den 'Martintxo errementari'aren ipuinaren pasarte bat eraman zuen taldeko izen-proposamen gisa: Ez Dok Amairu. Izena aho batez onartu zen"* azpimarratzen du Iriondok.

Ez Dok Amairu, berez, euskarazko musika bultzatzeko sortu zela dio azpeitiarrak. *"1964-1965 urte alde-
ra korrante ezberdin asko sortu ziren; antzerki taldeak asko ugaritu ziren, ikastolak indartzen ari ziren...
Eta eremu horretan jaio zen Ez Dok Amairuren ideia"*. Taldeak Irungo Bellas Artes aretoan ekin zion bere ibilbideari. Bertan, 1966ko martxoaren 6an, lehen aldiz, Ez Dok Amairu izenarekin aurkeztu zen.



Ez dok Amairu taldea sortu zela 50 urte dira. 1960ko hamarkadan ateratako argazkia: Koldo Antero, Julian Beraetxe, Mari Jose Fernandez Etxabe, Itziar Maritxalar, Nekane Oiarbide, Jose Luis Treku, Iñaki Maritxalar, Jexux Artze, Mikel Laboa, Jose Angel Irigaray, Jose Mari Zabala, Joxean Artze, Juan Miguel Irigaray, Benito Lertxundi, Xabier Lete. Lourdes Iriondo eta Kepa Garbizu.

GAZTETU HERNANI

GAZTEEK GAZTEENTZAT EGINDAKO PROZESUA

| **Beatriz Mena (Udal Haur eta Gazteria teknikaria).**

2014ko martxoa eta 2015eko urtarrila bitartean AZTIKER Kooperatibak, Hernaniko Udalaren eskariari erantzunez, prozesu parte-hartzaile bat abian jarri zuen herriko gazteekin batera, euren interesak, gogoak, kezkak eta ametsak aztertzeko. Horietan oinarrituta, gazte politikak zertan eragin beharko lukeen, eta erronkak zeintzuk liratekeen azaleratu eta aztertu zen. **GAZTETU HERNANI** izenarekin zabaldu zen prozesua bera.

Prozesua 15 eta 30 urte bitarteko gazteengan zentratu zen, parte-hartzaileen perfila honako hau izanik: 16 eta 21 urte bitarteko gazteak, gizonezkoak nagusi nahiz eta aldea oso handia ez izan. Partaidetza kopuruak ez zuen behera egin prozesu osoan zehar, eta lan saioetan 22 eta 39 pertsonen artekoa izan zen.

Prozesu parte-hartzaileak metodologikoki fase ezberdinak izan zituen:

- Gazteen errealitatearen argazki bat ateratzeko, bigarren mailako datuen ustiaketa burutu zen, iturri ezberdinak aztertuz: Udal Errolda, Eustat, INE, SEPE,... Diagnosiaren beste zatia, gazteria egoeran eta gazte politiken azterketan, adituekin elkarriketak eta udal ordezkariekin lan-saio bat egin zen.
- Sakoneko elkarriketak, Hernaniko gazteei zuzendutakoak, banakakoak (8 emakume eta gizon) eta talde-elkarriketak (3 talde, adin-tarte ezberdinak kontuan harturik, guztira 14 neska-mutil). Gazteen aukeraketa egiteko, neska eta mutilak, antolatuak eta antolatu gabekoak, hizkuntza ohitura ezberdinak eta klase ekonomikoa izan ziren aldagai nagusiak
- GIAP talde dinamizatzailearen eraketa: prozesuko saioetan erabiliko ziren dinamikak, eta berta tik ateratako ekarpenekin, prozesuaren gidaritza egin, eta urrats bakoitzaren ezaugarriaketa zehaztasunak erabaki zituen, behar besteko moldaketak eginez. GIAP taldeak (Ikerketa, Ekintza eta Parte-hartzerako taldeak) prozesuaren zailtasunak identifikatzea, horiei alternatiba posibleak bilatzea, eta komunikazio-estrategiak definitzea ere bere funtzioen artean izan zituen.
- Aurkezpen-saioa: WORLDKAFFEA. 2015eko urrian prozesuaren aurkezpen publikoa egin zen, diagnosiaren lanketa kolektiboaren abiapuntua, alegia. **“ZER DA GAZTE IZATEA 2014ko HERNANIN?”** galderari erantzuna ematen hasteko ekimena izan zen.
- Gaikako saioak: 4 saio egin ziren, gaiak honako hauek izanik:
 - **Espazio publiko nahiz pribatuen erabileraren gaineko ohiturak.** Erabilitako teknika “Rule mapeatuta” izan zen. Gazteak taldeetan banatu, eta herriari buelta bat emanez, gazteak zein eremuetan bildu eta egoten diren identifikatzea izan zen helburu nagusia. Gune erabilienak: kaxkoa, kirol instalakuntzak, plazak, tabernak, lokalak eta gaztetxea.



- **Gazte eta gazte koadrilen arteko harremanak.** Harremanak mediatizaturik agertzen dira teknologi berriengatik, kuadrilak beren artean nahasteko ohiturarik ez dute (Gazte Olinpiadetan salbu), eta harreman hori ahalbidetzeko ekintzak edo ikastaroak egiteko proposamenak jaso ziren.



- **Gazte Politika baten balizko lan-lerroak.** Gazte guztien interesekoak diren hiru esparru zehaztu ziren: aisialdia (adin guztietako interesa), enplegua eta etxebizitza (adinez nagusiagoak direnen interesa). Aisialdiaren esparruan gazteek beren ekimena eta autonomia aldarrikatzen zuten, Udala beraiek antolatutako ekintzen laguntzaile eta babeslea izanik.
- **Gaztea eta administrazioaren arteko elkar-lanerako balizko espazioak.** Elkarrengandik gertuago sentitzeko, eta zuzeneko harremana ahalbidetzeko foro iraunkor bat proposatu zen, gazteak eta Udalaren artean: GAZTETU HERNANI gazte-kontseilua.



Prozesuaren ondorio zuzena eta ukigarriena **gazte-kontseilua sortzea izan zen**, hasiera batetik gazte ezberdin eta askotarikoentzat erabilgarri izateko helburuarekin sortutakoa. Jorrazteko lehenetsi zituzten gai edo egitekoak hauek izan ziren:

- Etxebizitzaren gaiarekin alokairu soziala bultzatzea.
- Lanaren eremuan gazteei aukerak eskaintzea.
- Gazteen arteko harremanetan bestelako ereduak saiatzeko bitartekoak jartzea.

GAZTETU HERNANI prozesua abiapuntua izan zen Hernaniko Udalak Haur eta Gazteria Politika garatzeko hurrengo urratsak emateko. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin epe ertain - luzeko hitzarmen bat sinatu zuen, Hernanin Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemari (GAZTEMATIKA) esku-hartzeko planteamendua garatzeko.

Oinarrian Gazteria Politikak herriko haur, nerabe eta gazteei arreta egonkorra eta etengabea eskaintzea du helburu, bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa.
- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanakako emantzipazio prozesu bat izateko; hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa-gisa.

Helburu hauek betetze aldera, adin-tarte bakoitzari zerbitzu iraunkorrak eskaintzea proposatzen da, beraien artean lotura izango dutenak. Helburuak berdinak izanik, adin-tarte bakoitzarekin planteatzen den metodologia egokituta dago adin-tarte bakoitzaren ezaugarriei eta beharrei.



Hernaniko herrian Gazteekiko politikak garatzeko estruktura bat sortzea beharrezkoa ikusten zen aipatutako esku-hartze planteamenduan: aurrekontu bateratua, arduradun teknikoaren funtzioak eta ardurak argi definituak, zerbitzuen eta beste sailekin koordinatuta, bai eta zerbitzu eta komunikazio sare bat sortuta ere. Horrela, aurrera begira lan dinamika propioa eta iraunkorra sortu ahalko litzateke.

2015eko irailean Haur eta Gazteria teknikaria kontratatu zen, esku-hartze proposamen hori aurrera eramateko. Lehenbiziko zeregina izan zen GAZTETU HERNANI gazte-kontseiluak lehenetsitako gaietako bat jorratzea: etxebizitzaren alokairu soziala bultzatzea. 2015erako aurrekontu parte-hartzaileetan adostutako ekimenetako bat ere bazen, gazteei nahiz helduei zuzendutakoa, eta finantziario-iturria hori izan zen. Horretarako, deialdi berezi bat zabaldu zen Hernaniko herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko diru-laguntzak banatzeko. Baldintzak gazte-kontseiluan landu eta adostu ziren. Deialdira 74 eskari aurkeztu ziren, eta behin betiko ebazpenean 57 eskari onartu ziren, guztira 96 herritarrengana iritsiz. 57 eskarietatik 42 gazteenak izan dira (18-35 urte bitartekoak), eta 15 izan dira 36 urtetik gorako herritarrek egindakoak. Diru-laguntza hauek 12 hilabeteetarako ziren, eta kopuruen batz bestekoa urtean 2.300 eurokoa izan zen.

“...nere aitamenak izango dira beste larogei urtian”.

| Txirritaren lendabiziko bertso-lagunak

Milla zortzireun irurogei ta
amalau urte urrian,
lenengo plazan kantatu nuen
nik Ernani'ko lurrian,
San Antonio deitzen diyogun
ermita baten aurrian,
lagunak alkar ixtimatuaz
lengo oitura zarrian.

Joxe Migelek atera zuan
oso izketa leguna:
«Au da, gaztiak, prezisamente
guk egin biar deguna:
altxa dezagun San Antoniyo,
gaur da beraren eguna!».
Gaur Goiatz-txiki'n dago itxututa
orduko nere laguna.

Orduko ango bertsolariyak
lau lagun giñan guziyak,
Ernani'n bertan bataiatuak,
barriyu ortan aziyak:
Joxe Migel da Erramun illak,
ni ta Juan Mari biziya,
San Antoniok merezi du ta
eman zaizkagun graziyak!

Irurogei ta amar bat urte
badaduzkat bizkarrian,
kargamenturik txarrena au da,
eziñ utzi baztarrian;
anka batetik kojoka nabill,
reuma daukat ixtarrian,
baño baditut laguntzalliak,
ez nago modu txarrian.

Gazte-gazterik asi nitzan da
orañdaño bitartian
zenbait umore eder jarri det
Kantabria'ko partian;
pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lur-pian,
**nere aitamenak izango dira
beste larogei urtian.**



UDAL EUSKALTEGIAK, 25 URTE



1991, urriak 28, goizeko 9:30ean Biteri kultur etxean. 139 ikaslek, 5 irakaslek eta bulegariak hasi genuen udal euskaltegiaren ibilbidea. Lau ikasgela eta bulegoa, horixe zen euskaltegia Biteri barruan.

Hasi eta berehala eskean. Gure lehen eskea irakasle-gela, ez baitziguten irakasle gelarik ere aurreikusi! Bulegoan ginen denok: bulegaria, zuzendaria eta irakasleak, txoko batean zegoen mahai baten bueltan eskolak prestatzen. Bai, mahai bakarra!

Laster lortu genuen irakasle-gela. Ikasturte gutxi batzuk egin genituen han. Baina euskaltegian handitzen ari zen, irakasle gela txiki eta ikasleentzako gelak ere eskas. Beheko solairura orduan. Bertan irakasle gela eta beste bi gela. Horrela poliki-poliki kultur etxean eman genituen 12 ikasturteetan, hainbat gela *konkistatu* genituen, han-hemenka, euskaltegiaren artxipelagoa osatu arte. 2003an etorri zen jauzia, bete genuen ametsa: eraikin bat guretzat! Ordutik Karobietan gaude, garai bateko anbulatorioan. Izan zen, ordea, aurretik beste proiektu bat, gauzatu ez zena, proiektua egina bazegoen ere: Villa Manolitara joatea, gaur egun osasun zentroaren parean zegoen etxe polit batera.

Atzera begira jarri, eta harritu egiten gara nola ematen genituen eskolak. Ordenagailu bakarra genuen, eta hura bulegariak. Irakasleontzat idazmakina bat, bakarra. Ezin txandarik hartu idazteko, eta jarduera asko eta asko eskuz idatzi eta fotokopiatu egiten genituen. Gaur egungo ikaslerik gazteenei konta tzen diegunean, artean jaiotzeko, begiak zabal-zabal eta sinesgogor aurpegia jartzen dute. Materiala ere urri: HABEk argitaratutako karpeta urdinak ziren oinarri. Oraindik ere hor egongo dira nonbait biltegia! Euskarazko egunkaria sortzeko, aldizkari gutxi batzuk... Grabazioak ziren gure salbazioa, geure artean egiten genituenak, alde batetik. Baina horretarako ere ez zegoen gaur egungo smartphonik, irrati kasete beltz haiek ziren geure teknologiarik aurreratuenak. Beste aldetik, ETBn edo Euskadi Irratian zerbait interesgarria sumatuz gero, hortxe arituko ginen etxean garai haietako bideoekin eta kaseteekin grabatzen. Kalitatea, imajinatu!



3.400 inguru ikasle pasa dira 25 urtetan euskaltegitik, adin guztietakoak, eta arrazoia desberdinak izan dituztenak. Baina, azkenean, haiek izan dira euskaltegiaren motorra.

Eta ikasi egiten zuten ikasleek! 3.400 inguru pasa dira urte hauetan guztietan. Hamaika arrazoi direla medio hurbildu dira euskaltegira: batzuk hutsetik hasi eta euskara ikastera, beste batzuk etxean ikasitako euskara janztara, azken urteotan asko lana lortzen lagunduko dielakoan titulazioaren bila... eta ikasleak gogoan, nola ahaztu hasierako urte haietako udako 5 orduko ikastaroetan izaten genituen gaztetxoak eskolan gainditu ez zuten ikasgaia irailan gainditzeko etortzen zirenak, gurasoak ondoan; gaur egun, zorionez, desagertuak. Aldatu dira, bai, gauzak 25 urtetan! Ikasleak dira euskaltegiaren motorra, horiei laguntzea izan da gure helburua eta horretan jarri dugu geure onena urte hauetan euskaltegitik pasa garen 35 irakasleok. Ez da guretzat poz handiagorik gurekin ikasitako ikasleekin kalean topo egin eta euskaraz aritzea baino. Horrek ematen dio balioa eta zentzua gure lanari.

Eta irakasleak aipatu ditugunez, ezin aipatu gabe utzi euskaltegian bizi izan dugun unerik gogorrena, gaixotasun luze baten ondoren Lourdesek utzi gintuenekoa, ikasleei eta euskarari erabat emana bizi izan zen irakaslea. Gure artean jarraituko du beti.

IÑIGO LEGORBURU ARREGI (Erreterria, 1976)

| Leire Goñi Iradi.



*“Eguneroko bizimoduan badaude titularren itzalpean
geratzen diren istorio txiki asko”.*

Erreterriatik Hernanira etorri, eta Urumea ibaiaren xuxurla apala bezala iritsi da denon belarrietara Iñigo Legorbururen izena. Bertsolaritza mundua gertutik jarraitu izan du beti, baina erosoago sentitzen da paper artean, aurrez aurrekoan baino. Bertso-paperak idazteak eraman du, hain zuzen, egunkarietako orriak betetzera.

Zer ematen dizu zuri, idazteak?

Hasteko da, gaur egun daukadan afizio gutxi horietako bat. Bestetik, mundua interpretatzeko era bat. Hor gertatzen diren istorio txiki horiek paperean eta zure ikuspuntutik azaltzeko aukera polita da idaztea.

*“Istorio txiki horiek paperean eta zure
ikuspuntutik azaltzeko aukera polita da idaztea”.*

Zer dauka Iñigo Legorburuk orain, esku artean?

Ari naiz egiten bertso sorta bat, eta gaia ez da oso originala. Ari naiz Siriako immigrazioaren bueltan, Lesbos eta Lampedusa, eta...

Askok idazten duzu?

Alper xamarra naiz, aktibatzea kostatzen zait. Behar dut presioa, eta presioa izaten dira, normalean, epeak. Izaten ditut buruan ideiak, baina gero, behar dut entregatzeko epe bat, bestela ez naiz aktibatzen.

Nola antolatzen zara? Nondik ateratzen duzu denbora?

Oso sprinterra naiz. Ordubete idatzi eta kitto. Normalean denbora hilak aprobetxatzen ditut. Ez naiz orri baten aurrean eseri eta hiru-lau ordu idazten pasatzen dituenena. Ordubete, eta aspertu egiten naiz.

Nolatan hasi zinen idazten? Ofizioak badauka loturarik afizioarekin?

Ia bi mundu aparte dira. Ni, berez, galdaragilea naiz. Idaztea da mundutik apartatzeko era bat. Nola hasi nintzen? Nahiko jolas kutsuarekin. Aurreneko lanak izan ziren bertsoak, eta izan nuen ikaragarritzko zortea. Aurreneko sorta idatzi, eta izan nuen aurreneko premia. Eta ez dakit horrek autoestimua igotzen dizun edo... laguntzen dizu. Hortik aurrera hasi nintzen bertso gehiago egiten, eta gero, atrebentzia gehiagorekin, prosan, eta, pixka bat, poesian. Baina hor ez nabil horren seguru.

Bertsotarako ohitura gehiago daukazu, orduan?

Bai, baina paperean. Xenpelar Bertso Eskolan aritzen ginen helduak gure artean, baina jendaurrean sekula ez. Hor konturatzen ginen batzuek ez genuela balio jendaurrean abesteko!

Bat-batekoak urduri jartzen zaitu?

Bai. Paperean, teoriarik behintzat, nahi duzun denbora guztia daukazu, eta bat-batekoan eduki behar duzu ideia berehala, errima eduki behar du... Ni behintzat ez nintzen erritmo horretara egokitu.

Aurrenekoan aurkeztu, eta saria. Zein izan zen?

Lazkao Txiki izan zen, 2002 inguruan, eta oso xelebrea izan zen! Aurreneko saria hutsa geratu zen, bigarren niri eman zidaten, eta hirugarrena ere hutsa geratu zen.

Hainbeste sari irabazita, badaukazu baten bat kuttunagoa?

Gerora eduki duen eraginagatik, 2010ean irabazitako Errenteriako *I. Mariasun Landa*, biografien lehiaketa; herriko edo herriarekin zerikusia duen emakume baten figura azaleratzea zen helburua. Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena, Xenpelarren ilobari buruz idatzi nuen. Nik bere izena aurreneko aldiz entzun nuen barra baten ertzean. Hasi nintzen begira, eta oso gutxi zegoen. Egon nintzen Mintzolan, Maialen Lujanbio-rekin... Egin nuen lau orrialdeko artikulua xume bat. Horrek irabazi zuen lehiaketa, eta, gero, Udaletik eman zioten bultzada. Biografia askoz ere osoago bat egin zuten, eta hirugarren fasean, Bertsolari Elkarteak sartu da tartean, eta ikastetxeetan sartu dute: 6.000 haurrei iritsi zaie. Ia-ia anekdota edo kasualitate hutsa izan zen, eta, azkenean, begira ze bola egin den. Polita da, eta, gainera, itzalpeko jende horri ematea, betidanik gustatu izan zait. Badago jendea itzalpean dagoena, eta merezi duena bere momentua eta bere fokua.

Modus operandis zehatzik badaukazu, ala presio hori behar duzu beti?

Nere burua definitzeko, esango nuke nahiko kaotikoa naizela. Askotan inpresioa edukitzen dut: *"Badaukat dena baina ez daukat ezer"*. Ideiak edukitzen ditut, baina gero, horri forma ematen gehiago kostatzen da. Eta askotan ideia bat eduki, eta behar izaten dut: *"Hau zertarako?" Bergarako Maitasun Gutunen* lehiaketan parte hartzeko, bertso sorta baterako, poesia bat egiteko... Eta hortik abiatzen naiz. Ez naiz batere antolatua, batere metodikoa.

Ikerketa lana eskatu dizutenak egin dituzu gehiago?

Xenpelarren ilobarenaz gain, ez. Hori ondo egon zen, azkenean, hor polita izan zena bidea izan baitzen. Gauzak deskubritzea eta harriduraz hartzea. Baina bestela, sormena da nire alderdi fuertena, edo.

Sormena aipatuta, zerk inspiratzen zaitu?

Eguneroko bizimoduak, nik uste dut. Aktualitatea gustatzen zait: prentsa irakurri, informatua egon. Uste dut eguneroko bizimoduan badaudela titularren itzalpean geratzen diren istorio txiki asko. Uste dut hortik ateratzen ditudala ideiak. Inpresioa daukat lehen begiratzen nuen lekuetan orain ikusi egiten dudala.

"Inpresioa daukat lehen begiratzen nuen lekuetan orain ikusi egiten dudala".

Sentitu duzu gertukoren bati, semeari, idazteko grina kutsatzeko gogorik?

Nik pertsonalki eduki nuen bolada bat idazteari ia mespretxua eta guzti izan niona. Gerora bueltatu zait idazteko grina. Nik uste dut badirela boladak, eta hori izan behar dela norberak aurkitu behar duen zer edo zer. Askotan, gainera, guraso eta seme-alaben artean, nahikoa da esatea, *"Hau egin ezazu"*, ez egiteko.

Badirudi letrek garrantzia galdu dutela ikasketetan...

Nik ikastolan izan dudana esperientziagatik, uste dut erakusten dela zuzen idazten. Eta zuzen idaztea, niretzako, ez da bertute bat; idazkera ofizial bat ikastea da. Ni saiatzen naizena da, zuzen idazten baino, egoki idazten. Hau da, zer komunikatu nahi dudana, horren arabera idazten. Uste dut belaunaldi berrietan, igual, hori galdu dela. Azken finean, jendeak sekula baino gehiago idazten du baina twitter formatuan eta... Nahiko pobre ikusten dut asuntia.

"Zuzen idaztea, niretzako, ez da bertute bat; idazkera ofizial bat ikastea da".

Ezagutzen dituzu, hala ere, idazteko grina duten gazteak?

Askotan egiten dut topo, bertso paperetan, heldu eta gazteekin. Hor belaunaldi berriak badatoz. Beste formatuetan, poesian eta horrela, ikusten dut jende gaztea, baina uste dut gehiago kostatzen dela, bai prosan eta bai poesian. Izan daiteke, bertsoa gaur egungo gizartera gehiago egokitzen dela. Bertsoak pilulak dira; oso aktualak, oso bisualak. Bertsolaritzan gauza asko ikusi egiten dira, eta prosa eta poesia, badirudi belaunaldi zaharragoen edo beste gizarte baten arrastoak direla. Ez luke hala izan behar, baina ematen du.

"Bertsoak pilulak dira; oso aktualak, oso bisualak. Bertsolaritzan gauza asko ikusi egiten dira, eta prosa eta poesia, badirudi belaunaldi zaharragoen edo beste gizarte baten arrastoak direla".

Zaharragoen estiloa dela eta... Horregatik ari zara orain horietan saiatzen?

Urte dezente daramazkit bertsoekin. Batzuetan, gauza berdina esateko modu desberdina probatzeko gogoia ere izaten dut. Poesiak ematen dit hori. Prosan gutxiago ibiltzen naiz. Saiatu beharko nuke gehixea, baina! Poesia, oraintxe bertan, bertsolaritzatik nahiko gertu ikusten dut, eta horrek estimulatzen nau.

Badaukazu idazle edo bertsolariren bat erreferentzia moduan? Asko irakurtzen duenetakoa zara?

Ez naiz, horretan ere, oso diziplinatua. Zalea bai, baina oso zalea ez. Eta erreferentziak, bai. Maialen Lujanbio baten erreferentzia, gaur egun, ezinbestekoa da. Maialen begiekin kantatzen duen bertsolaria da. Bere bertsoak oso bisualak dira. Bertsolaritzara ekarri dituen bere formak eta bere sortzeko erak... Uste dut ez daukagula nahikoa perspektiba epaitzeko Maialen Lujanbioren figurak ekarri duen aurrerabidea. Urteak pasa direlako, Amuriza edo Andoni Egaña batekin perspektiba badagoen bezala, Maialeni, uste dut oraindik ez zaiola eman daukan garrantzia. Eta prosan, gazte baina ez hain gazte diren idazleei begiratzen diet: Harkaitz Cano, Karmele Jaio, Jasone Osoro... Hezkuntzarekin ere aritu gara lehen, eta Bernardo Atxagaren segun zer liburu txar irakurri beharra, edo Garoa... Hori kastigua da! Estimulatzen, behintzat, ez da. Eta ni bezala, uste dut jende asko dagoela traumatizatua! Ez dakit beharrezkoa den hori irakurtzea, baina segun eta zein adinetan... Guri, gainera, esaten ziguten: *"Hau irakurri behar da, eta kitto"*. Ez ziguten esaten motiboa. Argumentua zen: *"Hau azterketara dioa"*.



"Uste dut ez daukagula nahikoa perspektiba epaitzeko Maialen Lujanbioren figurak ekarri duen aurrerabidea".

Izatez oreretarra zara, eta han ezagunak dira Ereintza Sariak. Gehiago sustatzen da literatura? Badago diferentziarik Erreteriatik Hernanira?

Agian proportzio kontua da, baina bertakoak dira Lander Garro, Eider Rodriguez.. Ez da sekula egon literatura fabrika bat edo belaunaldi bat, baina puntualki gauzak atera dira. Uste dut dela herri bat, herri baten barruan beste herri bat dagoena. Erreterian, Beraun Erreteria da, baina, aldi berean, ez da. Bizitzeko era oso zentrikoa da. Hor badaude periferia batzuk erreteriar batek sekula ezagutu ez dituenak: Beraun, Galtzaraborda... Horretan, Hernanirekin nahiko diferente ikusten dut.

Bertsolari epaile lanetan ere bazabiltza. Nola hasten da bat, horretan? Bat-batekoa ez omen da zure terrenoa...

Interesa eduki, mundu horretan zale moduan sartu, epaile eta gai-jartzaileak behar zirela jakin... 2000 urte inguruan antolatu zuten ikastaro bat, epaile lanetan aritzeko; hara hurbildu eta engantxatu egin nintzen.

Horrek laguntzen dizu inspiratzen? Freskotasuna lortzen?

Bai. Bertsolaritza gaur egun oso gauza bizia da, eta gauza asko ari dira gertatzen. Istorio dezente sortzen dira bertso saioetan. Batzuetan onak, besteetan topikoak eta besteetan txarrak. Baina uste dut oso arte aktiboa dela, bere aje eta bertute guztiekin.

Kantatzera, ordea, ez zara animatzen...

Ez. Horrek estutasuna sortzen dit. Ni orrira moldatu naiz, eta gustura!

Orri zuriak beldurra ematen dion horietakoa zara?

Batzuetan oztopo da, eta besteetan, aukera. Bertigoa eman diezazuke, baina aukera ere bada, zerbait ateratzekoa.

Aukera izanda ere, lortuko duzun emaitzak kezkatzen zaitu?

Emaitzen munduan bizi gara, baina, batzuetan, bideari ere garrantzia eman behar zaio. Nik uste dut zer edo zer egiten duzunean bi aukera daudela: sortu ahala, idatzi eta bidali, edo erreparasatu, tajutu, findu... Eta nik uste dut bigarren klase horretakoa naizela. Gustatzen zait erreparasatu eta fintzea. Badago hor emaitzak lortzeko gogo bat. Baina zerbait sano bezala.

Emaitza onak eman dizkizula, ezin ukatu! Hori ote, trukua?

Zorte kontua bada, asko. Hau kultura da, eta kultura ez da zerbait objektiboa. Ez da 100 metro edo maratonia bezala. Hor irabazten duenak, objektiboki irabazten du. Baina kultura ez da objektiboa. Ez dakit. Egokitze ahalmena daukat, sena. Horrelako zerbait izan daiteke. Sari bat ateratzeak ez du esan nahi onena izan zarenik. Norbaiti gustatu zaiola bai, argi dago. Baina onena izan zarela, batzuetan bai, baina ez du zertan.

Hainbeste irabazteak ordea, objektibotik ere izango du.

Hasteko, egin egin behar da. Aurrena egin, eta gero, zorte kontua edo...

Denboraldi batean utzia izan zenuela esan duzu. Zerk ekarri zintuen bueltan?

Hasi nintzela nire pentsamenduak orrian jartzen, inongo aspiraziorik gabe, eta behin eginda zeudela, lehiaketara bidali, saria lortu eta gupila berriro martxan jarri zen. Gero, pixka bat espresuki hasten zara egiten.

Etorkizunari begiratuta, erronka bereziren bat jarria diozu zure buruari?

Erronka... Diziplinatuagoa izan nahi nuke. Hortik aurrera, poesia gehixeago egin nahi nuke. Prosa ere egin nahi nuke. Baina uste dut hori lan handiagoa dela, eta gehiago naizela bertsolaritzako piluletakoa.

Buruan badaukazu libururik argitaratzea? Bilduma bat agian?

Bai. Bertso sortak buruan dauzkat. Baina ez dakit zer egin nahi nukeen. Dakidana da, ez nukeela nahi bertso sortak bata bestearen atzetik pilatu eta kitto. Zerbait berezia egin nahiko nuke. Baina horretarako ere, beharko nuke denbora.

Hasten ari den norbaiti zein gomendio egingo zenioke?

Idatzi. Askotan, hasi zerbait idazten, eta izan behar duzu gaitasuna zure buruarekin oso zorrotza ez izatekoa. Zure buruari barkatzekoa. Nik ere, batzuetan, atzera begiratu eta ikusten dudanean zer egin nuen pentsatzen dut: *"Kaka hau idatzi nuen?"* Baina idatzi nuen! Uste dut zure buruari barkatu behar diozula. Eta idatzi.

50 AÑOS DE LA TXARANGA TXALAPARTA, 1966-2016

| **Joxan Ruiz y Mikel Ruiz** (cofundadores y participantes en la Txaranga estos 50 años).

Fue un domingo, 26 de junio de 1966, cuando en plenas fiestas de San Juan, a las 11 horas de la mañana, bajo la sólida batuta de Agustín Peña *Titín*, y a los sones de la Marcha “Kabi Alai”, la Txaranga Xalaparta atravesó el arco del ayuntamiento, pisó la “arena” de la actual Gudarien plaza, y se lanzó a animar las calles de Hernani con la alegría, ilusión y vitalidad de unos jóvenes que hasta entonces habían construido carrozas, y que se pasaron al mundo del txarangeo.



1966-06-26. Primera fotografía de la Txaranga Xalaparta.

Previamente se hizo la primera foto (histórica) de la Txaranga en Portale-Txoko, junto al desaparecido Bar Yaben, bajo el amparo de las ramas del todavía existente y frondoso sauce llorón. La foto fue obra del fotógrafo Joxe Joakin Etxarri, miembro de esta cuadrilla que por motivos profesionales no pudo tomar parte en este evento. En la foto faltan algunos componentes que se “despistaron” en el momento de realizarla. En primer plano, en la parte inferior, aparecen cinco niñas y niños que por este orden, de izquierda a derecha son: Toñín Palacian (con la bandera), Juan M^a Peña (con el tambor), Maria Ignacia Peña, Mariví Aurtenetxe (con flauta) y Aitor Peña, de mikelete.

Antes de comenzar a relatar la historia de esta Txaranga, es importante recordar sus orígenes. En el año 1958, un grupo de amigos decide participar en un campeonato comarcal de fútbol en el desaparecido campo de Txantxilla, del que, por cierto, resultaron campeones. Después vinieron los recordados torneos de Atsegindegí, donde los equipos del Xalaparta hicieron historia, y cuando por motivos obvios esta cuadrilla dejó el fútbol, ese grupo de amigos, llenos de inquietudes y de ilusiones, se “lió” a construir carrozas para, así, animar las fiestas patronales. Fue entre los años 1963 y 1965, y en 1971. Ese último año, en 1971, se hizo doblete, ya que, además de la participación de la Txaranga durante los San Juanes, se sacó una carroza reivindicativa: “Homenaje al Salmón del Río Urumea”.

Y es que, mientras estábamos “enrollados” en la construcción de aquellas carrozas, nos fue entrando el gusanillo del “txarangeo”, y así es como en 1966 se decidió formar una txaranga.

En aquellos años las txarangas de Hernani eran todo un referente para todas las poblaciones cercanas. Eran los tiempos del Beti Ola, Beti Jaten, Beti Gezur, Beti Lagun y Txatarra.

En 1966, los componentes de aquella primera Txaranga de Xalaparta fueron: Agustín Peña (primer director), Joxan Ruiz, Juan M^a Aurtenetxe (†), Juanjo Zelaieta (†), Andoni Eguren, Javier Doval, Joxan Zuazo, Mikel Ruiz, Mañel Olano (†), Luis M^a Arratibel, Tomás Velez, Juan Luis Zabaleta, Iñaki Santamaría, Juan Miguel Eizmendi, Iñaki Zabala, Juanan Azurmendi, Carlos Palacían (†), Joxe M^a Zuza, José Antonio Soriazu, Floren Mendizábal, Valentín Mendizabal, Joxe M^a Etxeberria y Xabier Armendariz.

En la actualidad Joxan Ruiz y Mikel Ruiz son los únicos “supervivientes activos” de aquella primitiva Txaranga.



1966-06-26. La Txaranga Xalaparta pisando la “arena” de la actual Gudarien plaza, bajo la batuta de Agustín Peña “Titín”.

Como es lógico, previamente hubo mucho trabajo de trastienda. Las reuniones generalmente se celebraban en el merendero “Buscando”, almuerzos y meriendas especialmente atendidos por Miren Aranburu (en ese caserón estuvo depositada y expuesta la primera foto de la Txaranga, hasta que en 1982, al fundarse la Sociedad Xalaparta, pasó a su ubicación actual). La maquinaria se iba poniendo en marcha, a pleno rendimiento, para ir dándole forma al atractivo e ilusionante proyecto de formar una txaranga. Los interrogantes que nos planteábamos eran la contratación de músicos, el diseño de la vestimenta, la compra y construcción de instrumentos...

Para la contratación de músicos profesionales, después de contactar con músicos de diversas poblaciones, se concretó la participación de músicos de Ordizia, Beasain, Tolosa, Billabona, y por supuesto, también de Hernani.

Como noticia triste de aquella primera txaranga, recordamos que entre los músicos llegados de Beasain se encontraba Miguel Angel Iriarte (clarinete), que en aquellos años ya estaba jugando en el Sanse, y a un paso de formar parte de la primera plantilla de la Real Sociedad. Falleció prematuramente en accidente de tráfico.



1966-06-26. La primera Txaranga Xalaparta a su paso por la Plaza de Los Fueros.

También queremos recordar con afecto a Txomin Kastro *Sietemesinos*, fallecido hace unos años, que, participando en aquellas primeras txarangas, nos ayudó en aquellos comienzos y nos contagió su alegría y generosidad.

Los primeros ensayos se realizaron en un garaje de la empresa Santiago Carrero S.A., nuestro centro de operaciones en época de las carrozas. Con el fin de “ponernos a punto”, colaboraron desinteresadamente en aquellos ensayos músicos hernaniarras, tales como Manolo Sagarna, Rafael Lekumberri, Xanti Caballero, Ramón Sarriegi y José Luis Fernández Fitero, entre otros.

Había que elegir el vestuario, los colores ya estaban definidos: azul y blanco, los colores de las camisetas de los equipos de fútbol de Xalaparta.

Se barajaron varios estampados de telas, y finalmente se decidió confeccionar las blusas con una tela a cuadros azules y blancos, comprados en “Pasiego”, en la antigua Calle Kardaberaz, hoy Andre kalea. El suministro de los pantalones blancos se le encargó “Confecciones Anboto” en la Calle Mayor (Kale Nagusia). En los años 60, a esta moda “a cuadros” se le llamaba “Op art”, geometrías de contrastes cromáticos. Uno de los mayores exponentes de este arte, entre otros, fue el artista húngaro Victor Vasarely.

Se completó con un gorro tipo marinero, forrado a juego con la tela de la blusa, y bordado con el nombre “Xalaparta”; y alpargatas azules con cinta blanca trenzada.

De confeccionar las blusas se encargó la modista Luisi Andonaga, y de bordar los gorros, Pepi Gereño.

En años posteriores ha habido cambios y renovación en el vestuario, pero siempre se han mantenido los colores originales.

La pancarta que acompañó a la Txaranga en aquella primera salida fue creada por Ramón San Emeterio, artista multidisciplinar. La conmemorativa de los 25 años fue obra del reconocido y polifacético artista local Luis Tellería.

La batuta en la dirección de la Txaranga ha pasado por varias manos. El primer director, y durante muchos años, fue Agustín Peña *Titín*, ataviado con su frac blanco y azul impecable y sombrero de copa a juego. Después cambió la batuta por el bombo. Otros directores han sido Joxan Ruiz *Potxolo*, director en la actualidad, Juanjo Zelaieta (+), Iñaki Apezetxea *Txatxon* (+), Mikel Ruiz, y Antonio Martín *Kaldo*.

Actualmente, componen la Txaranga, entre otros, Joxan Ruiz, Mikel Ruiz, Antonio Martín *Kaldo*, Boni Agirresarobe, Jesús Rodríguez de la Fuente, Miguel Montero, Iñigo Gorrotxategi, Eugenio Martínez, Julio Rubio, Andoni Urio y Ander Arabiatore, a los que se unen simpatizantes, además de músicos profesionales.

Como anécdota, recordar que en el año 1968, la Txaranga acompañó y animó al equipo de fútbol del C.D. Hernani en las míticas finales celebradas en el campo de Atotxa, donde consiguió el Campeonato Regional contra el Arretxabaleta



La Txaranga Xalaparta ante su sede social, la Sociedad Xalaparta, en los años 1982 y 1983.

Era una Txaranga diurna, pero, con el paso de los años, ante la “saturación” de txarangas, y con el fin de dejar espacio a otras, hacia el año 1979 se propuso a la Comisión de Fiestas el cambio de “horario”. Con la conformidad del resto de grupos, desde esa fecha la salida de la Txaranga Xalaparta es la noche del 24 de junio, animando el Zezensuzko en Zinkoenea, y finalizando con una kalejira.

Antes de fundar la nueva Sociedad Xalaparta (1982), al no disponer de local social, el día de actuación la Txaranga celebraba sus comidas en el Bar José Mari, regentado por la familia Zigaran, o en el Parador San Antonio, atendidos por Josefina Olazagirre, viuda de Antonio Duroudier.

Por motivos políticos, algún año la Txaranga no participó en las fiestas, como en 1973. A comienzos de aquel año se produjeron en el pueblo detenciones, encarcelaciones y salidas al exilio; entre los encarcelados, el miembro de nuestra Txaranga Mañel Olano (†), en solidaridad, se acordó no participar ese año.

Cuando la Txaranga conmemoró sus Bodas de Plata, en 1991, fuimos recibidos por el Ayuntamiento, que nos obsequió con lunch, y nos entregó una placa conmemorativa. En aquellos años el componente de nuestra Txaranga Juan Luis Zabaleta Baldo estaba encarcelado por motivos políticos. Iñaki Apezetxea Txatxon (†), director de la Txaranga, desde el balcón central del ayuntamiento saludó a las numerosas personas que se encontraban en Gudarien plaza, y envió un cariñoso saludo a nuestro compañero Baldo.



Ya que hemos citado a Iñaki Apezetxea Txatxon (†), queremos recordar sus emotivas actuaciones en la Txaranga, cantando el “Gu gera Euskadiko” en la clásica y obligatoria parada ante el Bar Onddi, acompañado únicamente por el bombardino de Jesús M^a Zalakain Pipar.

No podemos olvidarnos, a la vez que agradecer su participación, de aquellas personas que a lo largo de estos años han formado parte en esta Txaranga. Un entrañable recuerdo a nuestros compañeros fallecidos: Juan M^a Aurtenetxe y Juanjo Zelaieta, ambos alma mater en la puesta en marcha de la Txaranga, Mañel Olano, Carlos Palacian, Iñaki Apezetxea Txatxon, Miguel Urdangarin Amancio, Jon Flamarike...

Esta Txaranga quiere agradecer a las diferentes directivas que desde la fundación de la Sociedad Xalaparta en 1982, han apoyado y colaborado con esta actividad, y naturalmente, a la actual, presidida por Iñaki Prestamero Intxausti, que ha cooperado y contribuido en la organización de los actos que con motivo de esta conmemoración se llevarán a cabo.

50 años después, esta vez será un viernes 24 de junio (de 2016), en plenas fiestas de San Juan, a las 23:15 horas, bajo la firme batuta de Joxan Ruíz "Potxolo", y como siempre, a los sones de la Marcha "Kabi Alai", la Txaranga Xalaparta, atravesará el arco del ayuntamiento, cruzará Gudarien plaza, y se dirigirá a Zinkoenea para animar el Zezensuzko con la alegría, ilusión y vitalidad recibida de aquellos que a lo largo de estas cinco décadas han transmitido la esencia y filosofía de esta Txaranga. La fiesta continuará hasta la madrugada.

¡Ojalá que la nueva savia la siga manteniendo !



La Txaranga Xalaparta en la noche del día de San Juan de 1999.



Ante la iglesia de San Agustín, en 2007, a los 25 años de la fundación de la Sociedad Xalaparta.



La Txaranga durante los San Juanes de 2015.

Para terminar un saludo a todas las txarangas de Hernani, con las que en estos 50 años de actividad hemos compartido y animado las calles de nuestro pueblo, contribuyendo con nuestras melodías a transmitir sana alegría y diversión por todos los rincones del txoko. Larga vida para las actuales, bien sean aficionadas o profesionales.

Así mismo, agradecer a todas las personas que nos han ayudado en la creación de esta historia, y pedir disculpas si se ha cometido algún error u omisión, por otra parte, totalmente involuntario.

Bibliografía

- Revista XALAPARTA 1958 - 1983 . "25 Años de la fundación de la Cuadrilla Xalaparta".
- Anuario Hernani 2007/08. "25 años de la Sociedad Xalaparta, 1982 - 2007"

MENDIETAKO BUZOIAK HERNANIN

| **Inaxio Sanz Zalakain.**

Mendira gutxi edo gehiago joan den edozein hernaniarrek jakingo du gailurretan aurkitzen diren buzoiak zer diren. Izan ere, Euskal Herriko hainbat mendi puntetan forma eta itxura ezberdineko buzoiak ditugu, eta hauek bertan ikustea, dagoeneko, ez zaigu arraroa egiten. Euskal Herriko buzoiaren historia, ordea, ez da horren zaharra. Aurreko urtean, 2015an, bete ziren 100 urte gure inguruan lehendabiziko buzoiak jarri zela. Anboto mendian izan zen, hain zuzen ere. Ordutik hona Hernanin edo Hernanirekin muga egiten duten gailurretan ere jarri dira buzoiak. Aurreneko buzoiaren 100. urteurrenaz baliatuko gara gure inguruko mendietakoei buruzko ezagutza handitzeko.



1959-09-25. Herriko mendizaleak buzoi batekin, mendian jarri aurretik (Andres Olaondo, Joxe Joakin Esnal, Joxe Ramon Azkue, Jesus Arozena, Joxe Ramon Almarza "Atarrabiyo", Salvador Alvarez, Rikardo Goya eta Joxe Mari Gonzalez).

Mendizaletasuna eta mendi elkarteak Euskal Herrian.

Egun euskaldunon artean mendizaleatasuna oso errotua badago ere, mendira gailurra egitera joateko ohitura gure artean nahikoa gauza berria dela esan dezakegu. Euskal Herriaren industrializazioarekin batera Europarekin harremana estutzen hasi zen, eta honekin batera hasi ziren bertako ohitura eta kirol ezberdinak sartzen gurean: tartean mendizaleatasuna.

Ez da harritzekoa, beraz, Bilbon sortu izana mendiari loturiko lehendabiziko taldea: "Los Ganekogortos" izenekoa. 20 pertsonaz osaturiko talde hau izan zen 1870-71 inguruan lehendabiziko mendi irteerak antolatu zituenak. Taldeak, ordea, ez zuen jarraikotasunik izan, eta ez zuen mendi elkarte sortzeko indarrik izan.

1894an etorri zen *Gimnasio Zamacois* izenarekin, mendi irteerak antolatu zituen lehendabiziko elkarteak. Denborarekin *Gimnasio Zamacois* izango zen *C.D. Bilbao*-ri bizia emango ziona. 1912an sortu zen *C.D. Bilbao*.

Mendizaletasuna bultzatzeko lehen ahalegina: buzoiaren sorrera.

1913an *C.D. Bilbao* izeneko elkarte honetan bertan izendatu zuten presidente Euskal Herriko mendizaletasunaren aitaontekoa bezala hartua dagoena: Antxon Bandres Azkue. Antxonek ordura arte nahiko kirol elitista zen mendizaletasuna gehiago zabaltzeko nahi izan zuen, gizartearen beste eremuetara iritsi zedin. Gizarte industrialean zeuden bulegoetako langile, komertzioetako jabe, artisau etab.-engan jarri zuten amua.

Helburu hori lortu nahian sortu zen Euskal Herrian jarri zen lehendabiziko buzoia. 1915eko maiatzaren 30an, 1.331 metro dituen Anboto mendian jarri zuen buzoia *C.D. Bilbao*. Inaugurazio egunean idatzi batzuk sartu zituzten Bizkaiko Aldundiari, Udalari, kirol elkartei, Espainiako Club Alpinoari eta bertan ez zeuden bazkideei. Idatzi hauetan eskakizun bat egiten zen: Anboto igoko zen pertsona orok utzi zezala buzoian paper bat, izena, herria eta data jarriaz. *C.D. Bilbao* liburu bat ireki zuen igotzen zirenen kontrola eramateko, eta, bide batez, mendizaletasuna sustatzeko. Bitxikeri moduan, esan daiteke, garai hartan buzoiak 260 pezetako prezioa izan zuela.

Ekintza honetaz gain, ordea, Antxonek hiru zutabe proposatu zituen mendizaletasuna sustatzeko:

1. Euskal-Nafar mendi federazioa sortzea.
2. PYRENAICA boletina sortzea.
3. Mendi lehiaketak sortzea.

Beranduago hirurak bete ziren, eta hirugarrenarekin batera hasi ziren Euskal Herriko mendietan buzoiak jartzeko.

Mendi lehiaketak: buzoiak zertarako?

Antxon Bandres Azkuek proposaturiko hirugarren zutabea mendi lehiaketak sortzea zen. 1918an *100 Mendien* lehiaketa sortu zuten horrela, egun oraindik ere martxan dagoena. Hauek ziren lehiaketaren berezitasunak:

- 100 mendi igotzeko proposamena egiten zuten. Helburua 5 urtetan (20 mendi urteko) eta gehienez 10 urteko iraupenean (10 mendi urteko) 100 gailur egitea zen. Helburua mendiak eza-gutzea zen, ez ahalik eta azkarren egitea.
- Herrialde guztietako mendiez osaturiko katalogo bat osatu zuten. Mendi hauek ziren egin beharrekoak. Ez zuen edozein mendik balio.
- Mendi guztiek ezberdinak izan behar zuten. Ezin ziren mendiak errepikatu.
- Gailurreko buzoian txartela utzi behar zen, eta igotzen zen hurrengo mendizaleak aurrekoaren elkartera bidaliko zuen.
- Elkarteak egingo zuen mendizaleak mendi horiek igo zituenaren kontrola.

Hau da, lehiaketa honek mendi gailurretan buzoiak jartzea eskatzen zuen. Hori dela eta, azkar hasi ziren zabaltzen Euskal Herri osoan mendi gailurretako buzoiak. Bitxikeri moduan esan beharra dago 23 pertsona izan zirela lehendabiziko 100 mendien lehiaketa bukatu zutenak 1923an.

Euskal Herri mailan gertatu zen lehiaketa eta mendietako buzoiaren sorrerak honetan, Hernani ez da salbuespena izan, eta bi gauzak izan ditugu gurean XX. mendearen erditik aurrera.

Hernaniko mendi lehiaketak

Gure herriko mendi elkarteek (Mendi Gain eta Mendiriz Mendi, garai haietan) ere 1950-60 urteetan mendi lehiaketak antolatzen zuten. Mendi kopurua baino, igo beharreko metro kopurua hartzen zuten oinarritzat. Horrela, urte bakoitzeko igo behar zen metro kopurua zehazten zuten. Garaiak ere beste batzuk ziren, eta gaztetxo eta helduek egin beharreko metro kopurua ezberdintzeaz gain, emakume eta gizonek egin beharrekoak ezberdintzen zituzten. Hauek ziren urte bakarrean egin behar zituztenak:

- Gaztetxoek: 5.000 metro.
- Emakumeek: 15.000 metro.
- Gizonezkoek: 30.000 metro.

Mendiriz Mendi elkartearen 1959ko iraileko boletinan azaltzen denaren arabera, bazkideek zuten soilik lehiaketa horretan parte hartzeko aukera, eta gogorarazten zieten parte hartzaileei irailaren 30a baino lehen eman behar zizkietela delegatuei igo zituzten mendien partea. Ohartarazten zitzairen, era berean, egun horretatik aurrera, mendia igo eta 15 eguneko epea izango zutela partea eramateko.

San Inazio egunean, lehiaketako baldintzak bete zituzten mendizaleei domina ematen zitzairen Santa Barbaran. "Finalista eguna" ere ospatu izan zen beste mendiren batzuetan.



Santa Barbaran "Finalista eguna" 70eko hamarkadan (Antton Garin, Joxe Ramon Almarza "Atarrabiyo", Mikel Urruzola, Gema Izagirre, M^a Jose Ezeiza, Ixiar Laburu, Arantxa Rekondo, Koro Etxeberria, Ina Idarreta, Lurdes Arabaolaza eta Marimi Azkue).

Mendietako buzoiak Hernanin

Aurretik aipatu den moduan, Hernani ere ez zen atzera geratu lehiaketa eta buzoien kontuan. Horrela, Hernani eta Hernanirekin muga egiten duten gailurretan ere aurki ditzakegu buzoiak.

Horiek beti herritar bolondresek jarri ohi zituzten. Galdaragintzan lan egiten zuen jendea beti izaten zen kuadrila edo lagunartean, eta horiek izan ohi ziren buzoiak egiten, eta, askotan, diseinatzen zituztenak ere. Kasu askotan mimo handiz, eskalak mantenduz eta koloreak errespetatuz, zerbaiten erreplika bazen.

Jartzeko eguna, lagun artean, mendian igarotzeko egun berezia izaten zen normalean. Buzoiak konpontzeko prozesuan ere (izan baitira konpondu behar izan direnak) antzekoa izaten zen Mendiriz Mendi Elkartean, esaterako. Buzoia gaizki ikusten zutenean, kendu, menditik jaitsi, konpondu eta beste egun batean jartzen zuten. Askotan, elkartearen mendi irteera bat baliatzen zuten horretarako (Eulatz-, Aralar-, Guratz-, Gorriti- mendietan egin zen moduan) edo lagunekin egun pasa egiten zuten.

Hernaniko buzoiaren amandreak

Buzoiak jartzerako orduan, Hernanin ohitura izaten zen amandrea izendatzea buzoi bakoitzari. Ez dakigu Hernanitik kanpo ohitura bera zegoen. Amandreak ez zuen eginkizun berezirik. Mendi Elkartean ibiltzen zirenek bertako neska mendizale bat aukeratzen zuten, eta jarri beharreko buzoiaren amandre izendatzen zuten. 70eko hamarkadatik aurrera, ordea, amandreaken figura zuenik ez genuen ezagutu. Litekeena da urte horretatik aurrera galdu egin izana.

Zaburu mendiaren amandrea da, esaterako, Lupe Azpiazu. Zaburu, Hernaniko mendietan jarri zen lehendabiziko buzoi izan zen, 1954-04-18an eta Lupe izan zen aukeratua amandre izateko.


90.eko hamarkadan, buzoi oso hondatua zegoen, eta konpontzeko behera jaitsi genuen buzoi. Konpondu ostean, jarri zuen koadrilarekin hitz egin, eta denok elkarrekin joan ginen berriro jartzera. Egund berezia izan zen, alde batetik, egund bera errespetatu zelako, 1993ko apirilaren 18an jarri baitzen berriro. Bestetik, 1954an jarri zuten asko ere bertan izan zirelako. Baina, hori gutxi ez, hauen seme-alabak, suhiak etab. ere joan ziren egund hartan. Jartzeko prozesua, egund berezi bihurtuz.



1993-04-18. Zaburuko buzoi konpondu ostean, berriro jarri zen egund.

Buzoiak Hernaniko paisaia

Mapa honen bidez, Hernaniko mendietako buzoiak non dauden adieraziko da, irakurleak horiek kokatzeko erraztasuna izan dezan:



Egilea: Ana Felipe

Buzoi ezberdinei buruzko informazioa

AGIÑA

Altuera: 442 m.

Nork jarria: Ereñotzuko "Olak" Auzo Elkarteak eta Mendiriz Mendi Elkarteak.

Data: 1994-02-20.

Koordenadak: UTM 30T X: 0587680;
Y: 4787571 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez.

Bitxikeria:

Joxe Legarretaren oroimenez

*Mendiak asko maite zenittun
oietatik bat "Agiña".*

*Zure denboran amaika aldiz
igo ta jetxi egiña,*

Gure ingurugiroa zaintzen

egin zendun alegiña,

Ondorengoak izan zezaten

bizileku atsegiña.



AKOLATXARA

Altuera: 359 m.

Nork jarria: Ez du buzoirik.

Koordenadak: UTM 30T X: 0587118;
Y: 4789079 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez.

Bitxikeria: Club Vasco de Campingek jarritako buzoiak izan zuen denbora laburrez. Norbaitek kendu zuen, eta ordutik buzoirik gabe egon da.

AZKETA

Altuera: 834 m.

Nork jarria: Mendi Gain eta Mendiriz Mendi elkarteek.

Data: 1973-12-16 (2006-04-23an konpondua).

Koordenadak: UTM 30T X: 0586182;
Y: 4781398 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Bai.

Bitxikeria: Hernaniko gailurrik altuena. Mendi Gain eta Mendiriz Mendiko mendizaleek jarritako buzoiak.



IGOIN

Altuera: 457 m.

Nork jarria: Mendi Gain eta Mendiriz Mendi elkarteek.

Data: 1979-12-02.

Koordenadak: UTM 30T X : 0588822;
Y : 4789879 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Bai.

Bitxikeria:

Ildako mendizaleen oroigarria

*Usoa eskutan harturik
nahi zuten paketu,
Bainan usoa zegoen
piska bat elbarritu,
Ezkerreko egoa
zitzaion faltatu,
Orain ongi ikusten da
Euskadi ez dute askatu.*



MERKU

Altuera: 477 m.

Nork jarria: Ez du buzoirik.

Koordenadak: UTM 30T X : 0586515;
Y : 4784019 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez.

Bitxikeria: Hernaniko mendi ezezagunenetarikoa,
eta buzoirik gabea.

OINDI

Altuera: 545 m.

Nork jarria: Mendi Gain eta Mendiriz Mendi elkarteek

Data: 1975-12-21

Koordenadak: UTM 30T X : 0585115;
Y : 4787132 (WGS84)

Mendi Katalogoan: Bai.

Bitxikeria: Oindiko puntan hiru buzoi ezberdin daude.



SANTA BARBARA

Altuera: 240 m.

Nork jarria: Langaitz, Mogel, San Bartolome eta Landaberri ikastolek.

Data: 1998-11-15.

Koordenadak: UTM 30T X : 0582128;
Y: 4790758 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Ez

Bitxikeria: "EUSKARAZ BIZI, mendian ere euskara ezpainetan".



URDABURU

Altuera: 598 m.

Nork jarria: G.M. Urdaburu.

Data: Plaka kenduta dago.

Koordenadak: UTM 30T X: 0589264;
Y: 4787761 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Bai.

Bitxikeria: 2016ko urtarrilean atera zitzaion argazkia buzoia. Martxoaren 30an, berriro igo, eta dagoeneko ez zegoen. Itxuraz, ezezagunen batek kendu du, berriro ere.



ZABURU

Altuera: 778 m.

Nork jarria: Lupe Azpiazu (amandria), J. Garcia, F. Aranburu, J. Gonzalez, X. Sistiaga, A. Rodriguez, C. Gonzalez, J. Telleria. Mendiriz Mendi Elkartea.

Data: 1954-04-18 (1993-04-18an konpondua).

Koordenadak: UTM 30T X: 0584641;
Y: 4782361 (WGS84).

Mendi Katalogoan: Bai

Bitxikeria: Mendiaren puntak banatzen ditu Hernani, Elduain eta Urnieta udalerrien mugak.



*Emakume kuadrila bat buzoi baten inguruan.
(M^a Pilar eta Xatur Karrera, Konsuelo Oruezabala,
M^a Jesus Garcia, Flori San Jose eta Arantxa Goya).*

Buzoiak bai, buzoiak ez.

Buzoiak mendi gailurretan jartzeko ohiturak ere sortu ditu eztabaidak mendizaleen artean. Batzuen ustez, mendizaleasuna sortzeko oso erabilgarriak ziren/dira, eta merezi zuen/du gailurrean buzoiak jartzea. Beste batzuen ustez, ordea, "txatarra" mendian uztea da, eta mendizaleak mendia maite badu, ez du zergatik buzoiaren beharrik erakarria izateko.

Kontua da dagoeneko Hernani inguruetako mendietan badirela buzoiak jarriak, eta horren aurrean postura ezberdinak defentsa daitezkeela. Batzuek kentzeak merezi duela esango duten moduan, beste batzuentzat mendizaleasunaren historiaren parte ere badira, eta, beraz, zaindu beharrekoak dira, gazteenentzat oraindik ere motibagarriak dira, eta laino itxiko egunetan erreferentzia ona izan daitezke.

Honen harira, badira puntu batzuk, nire iritzia apalean adierazi nahiko nituzkeenak:

- Buzoiak arautu egin beharko lirateke; arautuz gero, gauza positibo asko ekar dezaketelako.
- Mendi gailur bakarrean buzoi bat baino gehiago egoteak ez du zentzurik, eta bakarra egotea arautu beharko litzateke.
- Buzoia jarri duenak hartu beharko luke berau mantentzeko ardura ere.

Lehiaketak eta buzoiak berreskuratu gure herria hobeto ezagutzeko.

Artikulu hau irakurri duzuen askok pentsatuko zenuten dagoeneko, artikulu honetan bertan aipatu diren mendietako batzuk ez dituzuela inoiz igo, eta/edo nahiz eta igo, ez dituzuela inoiz bertako buzoiaren erreparatu.

Esan beharrik ez dago, hernaniar askok, mendizalea izan edo ez, ez dituela gure herriko gailur txiki eta ederrak ezagutzen. Horretarako, modu polita litzateke lehiaketak berreskuratzea eta antolatzea, non proposatzen den buzoiak dituzten Hernaniko gailurrak igotzea eta bertan txartela uztea.

Mendiriz Mendi Elkartea bera izan daiteke gailurrak egin dituztenen zerrenda emango duena. Dinamika oso erraza izan daiteke:

- Zazpi txartel berezi aterako dira buzoiak dituzten 7 mendien izenekin.
- Jendeak izena eman dezake lehiaketan, eta 7 txartelak hartu izena ematen duenean.
- Bi urtetako denbora izango du, gehienez, 7 gailurrak egiteko.
- Egiten duenak gailur bakoitzeko buzoiaren dagokion txartela utziko du, eta buzoiarekin argazkia aterako du gailurrean bertan.
- Eguneko gailur bakarra egin ahal izango da.
- Argazkia 15 egun baino lehen Mendiriz Mendira bidaliko da, edo dagokion web orrian jarriko da.

- Utzi duten txartela mendira igotzen den hurrengoak hartuko du, eta Mendiriz Mendira eramango du.
- Zazpi gailurrak egitean Mendiriz Mendik antolatzen duen "Mendizale Astea"n dagokion erreko-nozimendua jasoko du.

Euskal Herriko buzoirik zaharrenak 100 urte bete dituen honetan, burnizko kaxa txiki hauek atzetik duten historia handia eta istorio txikiak beti izango dira gure mendizaletasunaren ondarearen parte. Artikulu honen bidez, Hernaniko kasua ezagutzera eman nahi izan da.



1992-06-14. Gipuzkoako eskolarteko mendi lehiaketako gaztetxoen Finalista eguna. Indamendi (Zestoa). Garikoitz Arruarte, Iñaki Sanz, Lander Fernandez, Julen Lopez, Garikoitz Iradi, Joanes Mathiuet, Izaskun Baro, Nerea Gonzalez, Leire Imaz, Irati Trantxe eta Idurre Sanz.

*Eskerrak, artikulu hau egiteko laguntza eman didaten guztiei,
Joxe Ramon Aizpuru eta Ane Feliperi, bereziki.*

APUSTUA HERNANIN

BIZIKLETA GIZONAREN KONTRA

| **Joxan Goikoetxea.**

Izenburuari kasu egiten badiogu segituan pentsatu dezakegu baldintza normaletan makina gizona baino gehiago izan beharko lukeela. Baina Hernanin 50eko hamarkadaren hasieran jokatu zen apustu honetan bazen baldintza bat bi hernaniar hauen arteko dema dezente berdinduko zuena.

Euskaldunok sarri izan dugu apusturako joera gure historian, bai kiroletan (herri kiroletan nahiz orokorretan) bai eta apropos sortutako erronka edo norgehiagoka xelebreetan. Euskal entziklopediak ere *apustulariaren* figura definitzen digu, eta ez bakarrik apustua egin edo sortzen duenarentzat, baizik eta baita apustua jokatzen duenarentzat ere. XIX. eta XX. mendeetan apustulari ezagun eta famatu asko izan dira gure inguruan, eta aski ezagunak dira jendearen memorian gelditu diren hainbat pasadizo, marka eta anekdota. Besteak beste, gure herrian oso famatua izan zen Isidro Ollokiegi *Eltzekondo* indartsua. Gaur egun ere iristen zaizkigu hainbat apustu bitxiren berri zeinetan kirola, indarra eta maltzurkeria ere beharrezkoak diren irabazle suertatzeko.

Gaur zuengana dakarguna Hernanin gertatu zen. Data zehatza ez badakigu ere, 1950. urte inguruan izan zela esan dezakegu. Apustuan parte hartu zutenak Arriatsu baserriko **Felix Zeberio** eta Txonkuanea baserriko **Jose Mari Garin**. Garin korrikalari ospetsua izan dugu gure herrian, eta aski ezagunak dira bere garaipen eta marka ugariak. Apustua Ugaldetxotik Hernaniko kaxkoraino lehia izan zen, baina zein zen dema hau berdinduko zuen baldintza? Felix Zeberio bizikletan joango zela, baina katerik gabe!

Han hemenka galdetuz jakin dut ba omen zela garai batean ohitura edo joera horrelako apustuak egiteko, bizikletari katea kendu eta manillarra eta eserlekua lotzen zituen barra azpitik zango bat sartuz, bestearekin lurrari eraginez. Esango dizuet probatu dudala, eta ez dela batere xamurra. Ugaldetxotik herrira, Ereñotzutik pasatuz, aldapa dezente igo behar dira gorantz, eta garai hartako bide eta errebueltak ez ziren gaur egun ezagutzen ditugunak, noski.

Argazkian ikus dezakezuen moduan, ikusmin handia sortu zen, eta lehia pentsa daitekeen baino berdintsuago joan zen. Jose Mari Garinek ez zuen errepidetik egin bere ibilbide guztia. Fagollagara iritsi zelarik zubia gurutzatu eta Usategietara igo zen. Handik Okendoeneatik barrena Elorrabira jaitsi, eta, bertako zubia gurutzatuz, Tartatzuko gainera (Andolako gaina) atera zen, eta zein izango sorpresa? Bi demalariak batera iritsi ziren puntu horretara.

Zikuñagan behera, Txatxutegiko kurbatik Karabelera bizikletak hartu zuen azkeneko abantaila definitibo. Balantxako aldapatik Zinkoeneara igotzen ikus dezakegu Felix Zeberio irabazle moduan. Bere aurpegiak azaltzen du egindako esfortzua ez zela batere makala izan. Argazkian hainbat herritar ezagun, eta, noski, gaur egun bizi direnak oraino. Ezagutzen al duzu baten bat?



“MAIALEN” TRAINERUA

| Iñigo Goñi Iradi.



2016. urtean, bigarren urtez, Hernanik nesken trainerua uretaratuko du. Eusko Tren Ligaren sailkapen estropadarako izena eman du jada, eta pasa den urtean hasitako ibilbide historikoari jarraipena emango zaio. Ez da ahaztu behar Hernanik 2015 urte arte inoiz ez zuela nesken trainerurik osatu, eta ordura arte mutilen traineruak bakarrik egin zuen arraun udarako denboraldietan. 2007. urtea izan zen azkenengoz mutilen txalupa uretaratu zena.

“Maialen” traineruak bigarren urtea betetzen du aurtengo denboraldian.

Zortzi urte beranduago nesken “Maialen” traineruak hartu zuen erreleboa. Trainerua bera, *Elorrabi* 1978 izendatu zena bere garaian, izenez ordezkatuta, Maialen Lujanbio bertsolariaren omenez. Dударik gabe indar handiko ikurra.

Hernaniko “Maialen” trainerua, eta nesken ibilbidea ongi ezagutzen duen baten bat baldin bada, hori Ainitze Kalonje da ezbairik gabe.

Batel denboraldian nesken entrenatzailea da, baita arraunlaria ere, eta traineruan Juanjo Etxarte entrenatzailearen laguntzaile lanetan aritzen da.

Neguko entrenamenduen egunerokotasunean koordinatzailea ere bada, eta berarentzat Elorrabiko Klubak eta nesken arraunak Hernanin ez dute sekreturik. “Maialen” traineruaren inguruan lau pertsona mugitzen dira batez ere: Juanjo Etxarte entrenatzailea, Jose Luis Perez “Koteli” laguntzailea eta Ainitze Kalonje koordinatzaile lanetan, Iñigo Herrero prestatzaile fisikoa ahaztu gabe.

Trainerua uretaratzeak klubaren lana egiteko modua guztiz aldatzea suposatu du. Pasa den urte arte irailetik ekainera egoten ziren klubeko ateak zabalik ikasturtea balitz modura, baina gauzak asko aldatu ziren 2015ean. Uda osoa ere hartu zuen denboraldiak, eta aurrekontua ere bikoiztea suposatu zuen Hernani Arraun Elkartearentzat. Jende gehiago eta prestatuagoa ere behar izaten da lanerako.

Entrenamenduak ere guztiz aldatu ziren Ainitzeren esanetan. *"Ordura arte lauzpabost egunetan egiten genituen saioak asteen zehar, eta trainerua uretaratzeak suposatu zuen asteen sei aldiz Pasaia joatea. Pentsa zer aldaketa. Elorrabin bateletan entrenatzenetik lau-bost egunetan, ia egunero Trintxerpera joan beharra izatera"*. Neguan zehar Hernanin geratzen ziren, gehienez asteburu batzuetan soilik irtenda, baina behin udaberrian sartu ondoren, trainerua atoi gainean ipini, eta Pasaia bidean jarri behar.

2015 urte hasieran aurkeztu zen trainerua publikoki lehen aldiz, eta bertan Tolosatik etorritako zazpi arraunlari eta patroiarren laguntzarekin, ontzia osatzea ahalbideratu zuen. Egun historikoa izan zen Iparagirre sagardotegian bizi izan zena. Baita lehen estropada jokatu zuten eguna ere. *"Hernanitik 12-13 arraunlari ginen eta 'Koteli'-ren eskutik Tolosatik zortzi neska etorri ziren"* gogoratzen du Ainitzek.

TRAINERU OSO GAZTEA

Ia denentzako lehen urtea txalupa handian, salbuespenak salbu. Adin aldetik, ere oso talde gaztea osatu zuen Hernanik, eta noski oraindik dauka. Nesketan 16 urtetik hasi daitezke traineruan arraunean, eta jubenil lehen urtekoak, hau da, 16 urtekoak, hamar arraunlari bazeuden taldean. Ia erdiak: *"17 urteko beste bost neska ere bazeuden, eta 18 urtekoak ere bazeuden. Beraz, hortik gorakoak salbuespenak ginen"* dio Ainitzek. Benetan talde gaztea.

Lehen helburua taldea aurrera ateratzea izan oi da, eta, alde horretatik, nahia guztiz bete zen, uretaratzea. Denboraldia aurea joan ahala, erronka desberdinak ipini zituen "Maialen" traineruak. Ainitzek argi dauka: *"Ikusirik talde berri gehiago bazeudela, berrien artean lehendabizikoak izatea nahi genuen, eta Gipuzkoako Ligan horrela izan zen"*. Kontxako sailkapen estropadan ere ahalik eta lan politena egiten saiatu ziren, baita lortu ere.

Lehen urtean helburuak bete ziren, eta aurten pauso bat gehiago ematea espero dute.

Arraunlariak ere gustura amaitu zuten denboraldia. Gogorra egiten da denboraldia askorentzat, baina ongi erantzun zuten Ainitze Kalonjerren hitzetan: *"Talde gaztea dugu benetan, eta uda guztia entrenatzen eta kirola egiten egotea ez da erraza. Oporrak nahi izaten ditugu, festa garaia ere bada... eta hori albo batera utzi beharra daukazu"*.

Aurten badira arraunlari batzuk batel denboraldira arte soilik arraun egingo dutenak. Traineruari uko egin diote, baina kopurua txikia da, zorionez. Bi-hiru guztira, eta *"ulertzekoa da, gazteak baitira eta konpromisoa hartzea zailago egiten zaie eskarmentu handiko kirolariari baino"*.

Lehen urtean gainera, urrian hasi ziren entrenatzen, eta denboraldia oso luzea egin zen. Ia urte osoa, ha-maika hilabete guztira. Aurtengo denboraldia, berriz, azaroan hasi dute, 2015 denboraldia irailean amaitu eta gero. Ohikoa izaten dena egin du aurten taldeak.

Arraunlari aldetik, Hernanik aurten blokea mantentzen du. Hiru baja izan dituzte, mailaz arraunlari bat igo da, eta berri bat ere hasi da. Urte bete gehiago du taldeak, eta esperientzi handiagoa. Behetik datozen arraunlari gazteak ere erreferentzi, jo muga bat badute "Maialen" traineruan, eta horrek lana errazten du modu batean. 16 urte betetzera doazen neskak ere traineruko entrenamenduetan parte hartzen dute noiz-behinka.

Aurtengo denboraldirako helburuak oraindik finkatu gabe ditu taldeak. Trainerua maizatzean hasi zen uretaratzen, ordura arte batelak eta trainerilak egiten baitituzte. Tolosarrekin egoteak, alde horretatik, mugatu egiten ditu beraiek bere kontutik egiten baitituzte batel eta trainerila denboraldiak. Jarraipena behar du traineruak, eta udara aurreko bi hilabeteetan lortzen da hori, batel denboraldia behin amaitu eta gero.

Batel denboraldia luze egin da aurtengoan. Inoiz baino estropada gehiago jokatu dira, 15 estropada, eta eguraldi nahiko ona egin duenez, bertan behera bi estropada besterik ez dira geratu. Ikasketak direla eta, jendea bidean geratu da, eta askok unibertsitatetako bidean arrauna utzi egiten dute. *"Justu iritsi gara batel denboraldi amaierara"* dio Ainitzek. *"Gaztetxoagoekin errazagoa da. Batelak behin amaituta denboraldia bukatu dute, eta helduek, berriz, irailera arte jarraitu behar. San Juan eta Hibaika bezalako taldeak maila altua dute, eta beraingana ez garela iristen ikusteak ere, kalte egiten du arraunlari askoren buruan".*

2016 Denboraldiko ARRAUNLARIAK, ENTRENADOREAK ETA PRESTATZAILEA



Ainitze Kalonje Estibariz
Amaia Larrarte Aginaga
Amaia Zuaznabar Izagirre
Andrea Zumeta Lakunza
Ane Sanchez Goyogana
Añarbe Kalonje Estibariz
Eider Barba Balda
Enara Villena Otaegi
Estitxu Zabala Odriozola

Maidar Perez Arzak
Maidar Zumeta Mujika
Maite Olano Alberdi
Malen Oyarzabal Arretxe
Mireia Vicente Arana
Miren Garmendia Moneo
Miren Urrutia Lopez
Saioa Txapartegi Frias
Uxue Alberdi Egaña
Uxune Urkia Sein

Juanjo Etxarte Urruzola (entrenatzailea)
Jose Luis Perez "Koteli" (entrenatzailea)
Iñigo Herrero Emezabal (prestatzailea)



ZAILTASUNAK JENDEA MANTENTZEKO

16-18 urte bitarteko lehia hori ere oso delikatua izaten da. Kirolari askok utzi egiten du bere aktibitatea, eta Kalonjeren esperientziaren arabera: *"Neskekin oraindik ere zailagoa izaten da taldea mantentzea. Atzetik ibiltzen bazara kirolaria aspertzeko beldurra izaten duzu, eta ez bazara atzetik ibiltzen, utzi egin dezake edo emaitzak kaxkarrak izaten dira. Askotan ez da jakiten nola jokatu egoera horien aurrean. Emakumeen arraunaren arazoetako bat da. Pixkana gorakada bizitzen ari den gauza bat da, baina momentu batetik bestera goitik behera etorri daiteke, oraindik ez baitago oinarri sendo bat"*. Beste talde batzuetan gertatu dena ikusi besterik ez dago.

Baina Hernanin horren arazorik ez da egon aurtan, eta "Maialen" trainerua, berriz ere, uretan egongo da. Iaz gertatu bezala, Hernaniko arraun zalean herriko trainerua animatzera joan daitezke kostaldeko herrietara. Herrian oihartzun sonatua izan du "Maialen" traineruak, eta arraun elkartetik lan franko egin dute hori horrela gertatu zedin. San Joanetan eta beste egun batzuetan postuak ipini dituzte herrian zehar jendeak laguntzeko, eta taldearen ekipamendua erosteko aukera izan zezaten.

"Jendea mugitu du traineruak, eta Kontxako sailkapen estropadan herritarrek Hernaniko koloreekin ikusteak zirrara sortu zuen. Gainera traineruko partaide gehienak herritarrek ziren, eta etxeok bertan ikustea berezia izan zen" gogoratzen du Ainitzek.

Hernani izena berriz ere udarako estropadetan entzungo da nesken eskutik.

Klub berria ere estreinatu da azken bi urtetan. Kluba osoagoa da foso eta guzti. Horrek ere laguntzen du. *"Toki aldetik aurrekoaren antzekoa da, baina gimnasioa hobea da, fosoak daukagu eguraldia ez bada lagun..."*. Entrenamenduetarako aukera gehiago eskaintzen ditu, eta etorkizunari begira elkarte gastronomikoa ere zabaltzeko, erakargarriagoa eginez Hernani Arraun Elkartea.



Nesken traineru denboraldia bi liga nagusik osatzen dute. Batetik, Gipuzkoako Liga dago, eta, bestetik, Euskotren Liga. Lehendabizi Gipuzkoako Liga hasten da, eta ondoren Euskotren Ligarako sailkapen estropada bat jokatzeko. 2016 urtean zazpi taldek hartuko dute parte, eta hiru sailkatuko dira Liga garrantzitsuenaren jokatzeko San Juanekin, iazko garailearekin, batera. Lau hoberenen artean sartzea oso zaila da, eta Hernanik oraindik ez du helburu nagusitzat Euskotren Ligan arraun egitea.

Gipuzkoako Liga ekaineko azken asteburuan hasiko da, eta Euskotren Ligarako sailkapena uztailaren 9 eta 10ean jokatu da. Hernanirekin batera Hibaika, Orio, Cabo, Donosti-Arraun, Getaria eta Hondarribia ariko dira lehian. Lau sailkatuak bi ligak jokatu dituzte, eta besteek Gipuzkoako Liga. Bi ligentzako puntuagarriak egiten diren estropadak ere badaude. *"Bestela oso motza geratzen da denboraldia"* ziurtatzen du Kalonjek.



DONOSTIAKO ESTROPADAN ARITZEA POSIBLE IZAN DAITEKE

Eta, noski, arraunaz hitz egitean ezin ahaztu Donostiako Estropadak. Pasa den urtean Donostiak ere lehen aldiz uretaratu zuen nesken trainerua, eta bi txanden eskaria egin zuen. Oraindik ez dago ezer zehaztua, eta txanda bakarra lehiatzen da oraingoz, baina Donostiako nesken trainerua egoteak bi txanden ateak zabaldu ditzake, eta horrek ere "Maialen" Kontxako estropadan ikusteko aukera zabalduko luke, parez pare.

Hori bai, Ainitze Kalonjek argi du askok eta askok ez dutela interes handirik nesken arraunaren zabalkunde. *"Pasa den urtean ikusi ziren diskriminazio zantzuak baino zerbait gehiago antolatzaile eta klubetako partaide batzuen aldetik. Zumaiaiko estropadan gertatu zena adibide. Itsaso oso txarra zegoen, eta nesken estropada bertan behera geratzea izan zen lehen erabakia. Azkenean estatxik gabe irten ginen, eta ondoren mutilak irten zirenean, bai dena ongi prestatuta zuten".* Adibide bat besterik ez da; oraindik emakumeen arrauna tratatu aldetik ez dagoela gizonen pare.



Hernaniko mutilen trainerua, berriz, uretan ikusteko oraindik zain egon beharko du hernaniarrak. Oso zaila da trainerua osatzea. Zazpi, zortzi, bederatzi mutil elkartu daitezke pausua emateko, baina trainerua ateratzeko gutxienez 20 arraunlari behar dira senior kategorikoak. Zazpi, zortzi, bederatzi... arraunlari jubenil mailakoetatik batzuk utzi egiten dute, eta horrek dena baldintzatzen du. Gaur egun Hernaniko mutilen sortzen zaien aukera Donostiarra taldera salto ematea da. Xabier Zabala Hernaniko entrenatzaileak Donostiako traineruaren ardura hartu zuen, eta hor bide bat zabaldu zen. Oraingoz hortik biderritzen dira herriko arraunlari batzuk, eta, bestetik, bere kabuz beste taldeetara joaten diren arraunlariak ere badira normala denez.

CRÓNICA 2015eko KRONIKA

URTARRILA / ENERO

- Hernani comienza el año con 1.312 parados, 26 menos (-1,9%) que el año anterior. A final de mes, son 1.338 las personas sin trabajo.
- Ohiko tasa eta zergak (ura, hondakinak, kontribuzioa...) mantendu egingo dira 2015ean.
- Etxebeste Farmaziak egingo ditu 2015eko gaueko guardiak.
- Hernaniko Jokalari Anonimoen Taldeak 25 urte betetzen ditu.
- DOBERA Euskara Elkartek antolatutako Negulekuak, Gabonetako oporretan, jarraitzen dute.
- Martxan dira Urumea ikastolako eraikina handitzeko obrak, 6 ikasgela berri eta jangela handiagoa izateko. Hamar hila-betea bukatuko dituzte obrak.
- Jon Zabaletaren obrak ikusgai Aieteko kultur etxeko "Ilustratzailearen Txokoa"n.
- Txotx garaia dela eta, denon arteko elkarbizitza ona izateko neurriak hartzeko deia egiten du KAXKO Elkartek.
- Varios colectivos hernaniarras (Sorgintxulo Auzo Elkartea, Goiz Eguzki, STOP Desahucios, PAUSOKA, AURRERA, HERNADES, KOXKA Elkartea y AMHER) critican las medidas adoptadas por KUTXA en su sucursal de Hernani al respecto de la atención al usuario.
- Saharara bidaltzeko janari bilketa martxan da, 2015eko urtarrilaren 10 arte.
- Culmina el proceso de elección de dirigentes del partido PODEMOS; David Guirado es su representante en Hernani.
- La Parroquia San Juan Bautista anuncia que tiene previsto construir una nueva capilla (Zikuñagako Ama) y un columbario.
- Importantes retrasos en la ejecución de las obras del TAV, en el tramo Hernani-Astigarraga, achacados a demoras en la concesión de licencias medioambientales, y a dificultades a la hora de llevar a cabo las expropiaciones necesarias.
- Txantxangorri Elkarteko II. Argazki Lehiaketa. Leire Manso y José Luis Manso son los ganadores.
- Adoptadas, y ya en practica, medidas para mejorar la accesibilidad al polideportivo; nacen de la colaboración entre el Ayuntamiento y KOXKA Elkartea.
- El "Plan Vasco de Inundaciones" identifica 38 zonas de riesgo en Gipuzkoa, entre ellas el Urumea entre Hernani y Donostia.
- Hernani Arraun Elkartek 2015 denboraldian nesken trainerua izango du.
- Hernaniko Institutuko batxillerreko ikasleek Liletak taldea sortzen dute.
- "Ametsen kriseilua" ekimenaren inguruan, argazki lehiaketa antolatzen du Hernaniko GURE ESKU DAGOK: Andoni Mateos da irabazlea.
- Arku tiroa. Nimesen (Frantzia) jokatzen den Munduko Kopan, 15 urtez azpiko mailan, parte hartzen du Aimar Machiok. Final laurdenetara ailegatzen da.
- ORONA compra dos empresas de elevadores en Londres y París.
- XVII. San Antontxu Bertsopaper Lehiaketa: Iñigo Legorburu irabazle ("Sanfilippo borrokatuz"), eta Aitor Albiztur, Errenteriako ereñotzuarra, hirugarren ("Bakarrik").

Urtarrilak 1 - 5 enero

- Elkartasun denda irekita, Kale Nagusia 10 zenbakian.

Urtarrilak 2 enero

- Haurrentzako zinema Lizeagan (Gibelalde Auzo Elkartea).
- Erroskila tailerra eta merendola Portu auzoan (Portu Auzo Elkartea).
- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Dispersioa stop, presoak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Urtarrilak 3 enero

- Pilota Eskolako Txapelketako finalak: Befa Garmendiak (benjamin maila) eta Oier Garaierrek (alebin) jantzen dute txapela.
- Pelota. El zaguero hernaniarra Aitor Gorrotxategi campeón (junto a Arteaga, Lasarte) del Memorial Antton Pebett (Villabona).
- Kontzertua Milagrosa kaperan: Hernaniko Otxotea, Transilvaniako Virgil eta Julian musikariek eta Goiz Eguzki Abesbatza.

Urtarrilak 4 enero

- Sakabanaketaren kontra, "sarea josteko" ekimena Plaza Berrian (Hernaniko SARE).

Urtarrilak 5 enero

- Erregeen Kabalgata.

Urtarrilak 7 enero

- Gabonetako oporretatik bueltan, kurtso eta ikastaroak martxan dira, berriro, KZ Gunean.
- Odol emateko hitzordua osasun zentroan.
- PLAX! Sexu eta Bikote Aholkularitza Zerbitzua martxan jarri du Hernaniko Udalak, Sandiusterrin.
- Aita Orkolagaren omenez, Ozenki Abesbatzaren emanaldia Donostiako Aquariumean.

Urtarrilak 7 - 21 enero

- Argazki erakusketa Biteri kultur etxean (Hernaniko Argazki Forum).

Urtarrilak 7 - 27 enero

- Herriko 24 preso txostena (dispertsioaren mapa, preso egoera, zigorren taula, osasun egoera... eta senideen aldarrikapenak) aurkezten da udaletxean (Udal Gobernu - Hernaniko preso politikoen senide eta lagunak). Udal liburutegian, Udaleko harreraren eta hainbat tabernetan eskuratu daiteke.

Urtarrilak 9 enero

- Arrestado en Hernani un joven de 17 años, acusado de llevar a cabo varios robos.
- Obrak bukatuta, Txillida pasealekua irekita. En adelante será vía de doble sentido.
- "Errepresaliatuak etxera" lelopean, kontzentrazioa Zinkoenean (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Urtarrilak 9 - 10 enero

- Meditazio saioak Anandamayi yoga zentroan.

Urtarrilak 10 enero

- Bigarren eskuko azoka Atsegindegin.
- Kalez kale kantari.
- "Mawlid" festa, Mohamed profetaren jaiotza ospatzeko, Sandiusterrin (ARRISALA Elkartea).
- Remonte. Final del Master Individual en Galarreta (Oriamendi): Uterga txapeldun.

Urtarrilak 10 - 11 enero

- Errugbia. Harrobiko 10 jokalarri hernaniar Kalatunian, Euskadiko Selektzioekin.

Urtarrilak 11 enero

- Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.
- Txotx eguna. 2015eko Hernaniko Txotx denboraldiaren irekiera Ana Urrutiak eta Andoni Aizpuruk egiten dute. Maiatzera arte: turismo informazio puntua, bisita gidatuak, pakete turistikoa eta esperientzia ekimenak martxan. Baita sagardotegietara joateko autobus zerbitzua ere. La Guardia Municipal duplica su servicio durante la temporada; y se forma a sidreros y hosteleros ante posibles agresiones sexuales.
- Erromeria Plaza Berrian (San Joan Konpartsa).

Urtarrilak 12 enero

- "Mate" operazioa. Aiert Larrarte eta beste 11 preso en abokatu atxilotzen ditu Guardia Zibilak, baita HERRIRAKO lau kide ere. Antzitolako abokatu en egoitza miatzen dute. Kontzentrazioak operazioa salatzeo. Epailaren aurretik pasa ondoren aske geratzen dira abokatuak, karguekin.
- Sumario 04/08. Suspendido hasta el 29 de enero, el juicio contra dirigentes de la izquierda abertzale a celebrar en la Audiencia Nacional (entre las/os acusadas/os: Alazne Arotzena y Nekane Erauskin); la causa es la detención en el marco de la operación "Mate" de varios de las/os abogadas/os defensores que debían tomar parte,
- "Dolu-bidetik" zineforuma Biteri kultur etxean (Bidegin): "Aulki hutsak" dokumentala (heriotzaren ondorengo dolu-garaia bizi izan duten pertsonen testigantzak, besteak beste Ion Andoni Martinez eta Bega Gamino hernaniarrenak).

Urtarrilak 13 enero

- Lana bilatzeko, giza trebetasuna eta komunikazioa lantzeo ikastaroa Gabriel Celayan (DAITEKE).
- Auzitegi Gorenak Kepa Pikabearen kasua aztertzen du, eragina izan dezakeena 56 euskal preso politikoen zigorren zenbaketan; erabakia kontrakoa da.
- Literatur solasaldia udal liburutegian: "Fikzio izterrak" (Ur Apalategi).
- "Mate" operazioa. Ez ohiko plenoa, sarekada salatzeo eta adierazpen instituzionala onartzeko. Oposizioa ez doa.

Urtarrilak 14 enero

- Literatur solasaldia udal liburutegian: "Autorretrato" (Édouard Levé).

Urtarrilak 14 - 15 enero

- Audientzia Nazionalera deklaratzera deituta 2013an HERRIRAREN kontrako operazioan atxilotuak, horien artean, Amaia Ensal ereñotzuarra.

Urtarrilak 15 enero

- Hernaniko Hezkuntza Plataformak, Euskal Herrian hezkuntza propio baten aldeko plataforma, Orion martxan duten hezkuntza curriculum, Orioko eredu, aurkezten du udaletxean.
- Emakumeentzako Jabetze Eskola: "Zaintza partekatua gurasoak banatzean, zertaz ari gara?" ikastaroa Biteri kultur etxean (Lur Etxeberria Iradi).
- La asociación de víctimas del amianto, ASVIAMIE, denuncia el fallecimiento de un hernaniarra, trabajador de IQE Industrias Químicas de Urumea, afectado por un cáncer de pulmón. La empresa había recurrido el reconocimiento de la incapacidad absoluta por enfermedad profesional, recurso finalmente no atendido por el TSJPV.

Urtarrilak 16 enero

- "5.000 sinadura baietz!" Hernaniko KRONIKAK sinadura biletta jarri du martxan, urtarrilaren 31 arte, Eusko Jaurilaritzak ematen dituen diru-laguntzak ziurtatzeko (2014. urtean %20 gutxiago eman zion): 5.015 sinadura biltzen dira. DOBERAREN errekurtsoa ukatzen du Jaurilaritzak, bere horretan mantenduko da diru-laguntza.
- Detenido en Hernani un varón de 31 años, acusado de conducir con carné falso.
- ORONA Fundazioa se suma a los patrocinadores del proyecto de construcción de la nao San Juan (DONOSTIA / SAN SEBASTIA 2016 - Factoría Marítima Vasca ALBAOLA).
- Gaztetu Hernani. Lau hilabete iraun duen prozesuaren azken saioa Biteri kultur etxean; ondorioak aurkezten dira: Gazte Kontseilua sortzea da horietako bat.
- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Gaixotasun larriak dituzten presoak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideak).

Urtarrilak 17 enero

- Hurrengo lau urteetarako programa finkatzeko asmoz, herriaren diagnostikoa egiteko topaketa (EH Bildu).

- Eskualdeko txotx denboraldia bultzatzeko asmoz, azoka antolatzen du Behemendi-Donostialdea Turismoguneak Donostiako Bulebarrean; Hernaniko sagardoak bertan dira.
- Emakumeentzako Jabetze Eskola: "No quiero ser como mi madre... ¿O sí?" ikastaroa Plaza Feministan.
- Bertso saioa Oialumen: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Jone Uria.

Urtarrilak 17 - 18 enero

- Cauteretsera eskiatzera (Mendiriz Mendi).

Urtarrilak 18 enero

- Futbol 7 - DV Torneo. Borussia (Hernaniko taldea) azken partida irabazita, ohorezko mailara. Taldeak 2013an hasi zuten ibilbidea, 2. mailan, eta hiru igoera segidan lortu ditu.

Urtarrilak 19 enero

- XXI. Tabernetako Bertsolari Txapelketa, Garinen. Mikel Lujanbio "Xapo" txapeldun.

Urtarrilak 19 / 26 enero

- AEK - Zilegi Eskola: "Bizikleta puntu-puntu" Patxi Minerrekin (eta otsailaren 2an).

Urtarrilak 20 enero

- Audientzia Nazionalak 15 urteko espetxe zigorra ezartzen dio Beñat Aginagaldi, 2009an PSE-EEren Lazkao egoitzan lehergailu bat jartzea egotzita.

Urtarrilak 20 / 27 enero

- "Haurren garapenaren alderdiak eta oinarritzko beharrak. Etapa bakoitzeko hezkuntza estrategiak" ikastaroa gura-soentzat Ereñotzun.

Urtarrilak 21 enero

- Euskara modu informalean praktikatzeko hitzordua Gunea garagardotegian (Udal Euskaltegia), astean behin izango da, asteazkenetan.
- Hernaniko Gizon Taldearen bilera Plaza Feministan (hilean behin biltzen da taldea).

Urtarrilak 21 enero - otsailak 21 febrero

- "Zikuñagako Ama" kapera berriaren proiektua ikusgai Biteri kultur etxean (San Joan Bataiatzailea Parrokia).

Urtarrilak 22 enero

- 380 zaku konpost herritarren artean banatzeko.
- Hurrengo lau urteetarako programa finkatzeko asmoz, kirolaren inguruko batzarra Biteri kultur etxean (EH Bildu).

Urtarrilak 23 enero

- Gay Murreko obrak direla eta, Victor Hugo eta Larramendi kaleak itxita.
- Fallece a los 55 años, la exatleta hernaniarra Susana Irazusta Adarraga.
- Aerorumba saioa doan, Sasoiko zentroan.
- Izaskun Bilbao europarlamentariaren hitzaldia Biteri kultur etxean (Hernaniko EAJ/PNV).
- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Gaixotasun larriak dituzten presoak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak).

Urtarrilak 24 enero

- Ereñotzun wifi sarea nola hedatu azaltzeko bilera auzo etxean.
- 2015eko udal hauteskunde en programa osatzeko bigarren asanblada Biteri kultur etxean (PSE-EE): enplegua sortzeko eta politika fiskalaren inguruan hitz egiten du Julio Astudillok (Batzar Nagusietako PSE-EEko batzarkidea). Guztira 60 proposamen baino gehiago jaso ditu PSE-EEK programan sartzeko.

◦ Hernaniko GURE ESKU DAGOK batzarra antolatzen du orain arteko balantzea egiteko eta datozen ekintzen berri emateko. Ekainaren 20an egingo den ekimenerako (hautestontzi erraldoiak Euskal Herriko hiriburuetan) 3.000 atxikimendu lortu nahi da Hernanin.

◦ Presentación en Iparragirre sagardotegia de "Maialen" (en homenaje a la bertsolari hernaniarra Maialen Lujanbio), la trainera femenina de Hernani: 21 arraunlarik osatzen dute trainerua, gehienak hernaniarrak.

◦ Esku pilota. Suhari Rodriguez Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finalean, Iruran.

◦ Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak Zikuñagan eta Ereñotzun. Ereñotzuko "Tutu" eta Julian otsailaren 21ean Alegian jokatuko den Gipuzkoako finalean.

◦ Kontzertuak Kontraktantza gaztetxean: "Buhos Euskal Herria" (Katalunia) eta "Dejota Bull eta Bakailua Sagardotegietan".

Urtarrilak 24 - 25 enero

◦ Errugbia. Neguko Torneoko txapelduna da Hernaniko taldea (sub'14); Erik Fernandez, torneoko jokalaririk onena.

Urtarrilak 25 enero

◦ "Hernani ezagutuz": Latsen barrena ibilbidea gazteentzat (Mendiriz Mendi).

◦ Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.

Urtarrilak 26 enero

◦ Karabeleko etxe berriak egiteko obrak berehala hasiko dira, hori dela eta bertako aparkalekua itxita.

◦ Pilastes probatzeko, klasea doan Masusta ekondendan. Klaseak otsailetik ekainera bitartean izango dira.

◦ El Tribunal Supremo, tras revisar la absolución de Beñat Aginagalde, por falta de pruebas, por el asesinato del concejal socialista de Arrasate Isaias Carrasco (2008-03-07), ordena dejarla sin efecto y que se repita el juicio.

Urtarrilak 27 enero

◦ Ipuin kontaketa udal liburutegian (Maite Franko).

◦ Hassanna Aalia Hernanin bizi den sahararraren aldeko kontzentrazioa plazan; asilo politikoa ukatu baitio Espainiako Gobernuak (Marokoko Epaiaketa Militarrek bizi osorako kartzela zigorra ezarri zion 2013ko otsailean). Azkenean, Auzitegi Nazionalak onartzen du aurkeztutako kautelazko neurria.

Urtarrilak 28 enero

◦ La Ertzaina detiene a un ciudadano francés de 36 años, con carné falso y material ilícito para perpetrar robos de vehículos de alta gama.

◦ Tras la firma del protocolo de actuación entre KOXKA Elkartea y el Ayuntamiento (diciembre de 2014), protocolo por el que el Consistorio se compromete a tener en cuenta el informe de la asociación al inicio de cualquier nuevo proyecto, fotografía publica entre la asociación y todos los partidos con representación municipal.

◦ Buruntzaldeko Udalek eta autoeskolet gidabaimena euskaraz atera duten herritarren artean zozketa egiten dute Biteri kultur etxean: Maddi Aranburu, Irati Zelaia eta Oihane Zalakain, Hernaniko saridunak. Gidabaimena euskaraz atera duten hernaniarrak 56 dira.

◦ "Herrien garaia al da?" hitzaldia Biterin (Galiza Sempredo Alba Nogueira, Amaiurko Sabino Cuadra eta Ciemeneko Carles Riera / NATJA).

◦ Gizarte laguntzei buruzko ("Derecho a las prestaciones sociales") hitzaldia Biteri kultur etxean (AMHER - SOS Arrazakeria).

Urtarrilak 29 enero

◦ Sumario 04/08. Nuevo aplazamiento, "sine die", del juicio contra dirigentes de la izquierda abertzale (Alazne Arotzena y Nekane Erauskin).

◦ COMINTER Tisu enpresak "GUREOLA" enpresa berriro mar txan jartzen du, bi urte eta erdi geldirik egon ondoren. Langileetatik batzuk prejubilatatu edo jubilatatu dira, beste batzuek lana aurkitu dute; gainerako guztiak ari dira "Gureola"n lanean.

◦ KORRIKA 19, Urepeletik Bilbora. KORRIKA Kulturala: artista eta artisauen lanak ikusgai (eta enkantea) Andre kalea 25eko lokalean, martxoaren 12ra arte.

◦ Mozorro trukea Berrerabilpen zentroan.

◦ Herri programa osatzeko "Puntuz puntu" dinamika, eta datorren legegintzaldirako hautagaiak aukeratzeko herri batzarra Biteri kultur etxean (EH Bildu). Egungo alkatea, Luis Intxauspe, alkategaia.

Urtarrilak 30 enero

◦ "William Shakespeare. Sonetoak" liburu - CDaren aurkezpena Donostian. Shakespeare-ren obrei musika jarri die Joan Goikoetxeak. Proiektuan Iosune Marin, Ion Mari Beasain, Juan Otxandorena, Roberto Yaben eta Amaia Azkue hernaniarrek ere parte hartzen dute.

◦ Urumea bazterrak, urak hartuta. Gainezka egin du ibaiak Zubipe eta Landareko zelaian.

◦ Kontzentrazioa plazan: "Gaixo larritasun larriak dituzten presoak etxera" (Hernani preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak).

◦ Dardo Txapelketa Atxur tabernan.

◦ Haida Tabernako Banda Lehiaketa. Irabazlea Meltdown taldea da.

Urtarrilak 31 enero

◦ Chillida pasealekua bi norabidekoa izanik, autobusen ibilbideak aldatzen dira: Latsunbeko errotondatik Antziolara joango dira, eta Elkano kaletik Atsegindegira; Kiroldegi ondoko geltokia desagertzen da. PSE-EEk kritikatzeko du alkateak informazio hori plenoan ez eman izana, eta "aldaketa horiek ez direla nahikoak".

◦ "Ziraba" proiektua. "Putzuzar" iturria eta putzua berreskuratzeke auzolana.

◦ Hernani Eskubalo Taldea. Foto en apoyo al jugador Julen Mendizabal, operado de urgencia de meningitis.

OTSAILA / FEBRERO

• Udalak bi etxebizitza alokatzen ditu Oartzu eta Larramendi kaleetan; interesdunek eskaera aurkezteko epea irekita dago, otsailaren 20ra arte.

• "Gure artean euskaraz" egitasmoa aurrera eramateko laguntzailea behar du DOBERA Euskara Elkartek.

• "Bota bertsoa!" egitasmoa martxan jarri du DOBERA Euskara Elkartek, sagardozaleek bere bertsoak idazteko eta sagardotegietan egoten diren kaxetan uzteko (Txotx denboraldian): "Hau egarriya!" da gaia. Lehiaketako sari banaketa (26 sari) apirilaren 17an izango da, Biterin: 200dik gora bertso jaso dira.

• Ereñotzu ekinez Plataforma: udal hauteskunderako hautagaiak aurkezteko deia egiten du Olak Auzo Elkartek (otsailaren 15era arte).

• Eskualde mailan, langabeak kontratatzeke diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago, martxoaren 1era arte (LANBIDE).

• Aitor Ruiz de Eginoren aluminiozko 12 obra ikusgai Senpereko Larralde kultur etxean (otsailaren 21era arte).

• Miguel Usabiaga hernaniarrak "Ciudad Ducal de Loeches Saria" jasotzen du, El sueño de Nicolás Colberg liburuagatik. Lana argitaratuko da.

• Sendotzako sakramentua egiteko deialdia 18 urtetik gorako herritarrei; apirilaren 25ean izango da.

• Hernaniko Udala (alkatea eta ingurumen teknikaria) Europa mailako ECOWA Kongresuan; Hernaniko hondakinen sistema bilketa azaltzen dute.

- Fagollagan egin diren obrak bukatu dira: espaloiak eta oinezkoentzat zebrabideak.
- Ertzainas dan consejos a personas mayores de cómo evitar robos; inician una campaña en el área de influencia de la comisaría de Hernani.
- El Ayuntamiento recibirá de Diputación 109.426,81 euros adicionales, como liquidación positiva del Fondo Foral de Financiación Municipal.
- Hernaniko Udalak eta Gipuzkoako Aldundiak Donostialdeko jendartearen etxebizitza beharrak ezagutzeko asmoz ikerketa abiatzen dute; AZTIKER Kooperatibak inkestak egiten ditu Hernanin.
- El Tribunal Supremo rechaza el recurso interpuesto por el asesino de Charo Román, condenado a 26 años y 6 meses, por el crimen cometido en Hernani el 3 de julio de 2011.
- #ESKUTIKeskura kanpaina, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza eta nekazariak laguntzeko kanpaina, martxan da: oliba olioaren erosteko eskaerak martxoaren 4ra arte egin daitezke.
- Igeriketa. Neguko Espainiako Master Txapelketa Pontevedran: Iñigo Goñik hiru domina lortzen ditu.
- El Gobierno Vasco acuerda la construcción del nuevo Instituto de Educación Secundaria de Hernani (IES Hernani). Destinará 5,7 millones para ello.

Otsailak 1 febrero

- Dultzaina kontzertua Milagrosa kaperan (Hernani Musika Eskolako ikasleak).
- Voleibol. La hernaniarra Esther López (Naturhouse - Ciudad de Logroño) campeona de Copa.

Otsailak 2 febrero

- 2015/16 ikasturterako aurrematrikulazioa martxan: 390 herritar egitera deituta.

Otsailak 2 - 7 febrero

- Patchwork erara egindako lanak ikusgai Biteri kultur etxean (Hernaniko Patchwork Elkarteak).

Otsailak 2 / 9 / 16 febrero

- AEK - Zilegi Eskola: "Sukaldaritza begano eta begetaria-noa" ikastaroa Biteri kultur etxean.

Otsailak 3 febrero

- Pala. Umeentzako pala ikastaroan izena emateko epea irekita (saioak astearte eta ostegunetan).
- Accidente de un camión en el nuevo acceso de Karabel auzoa.
- Odola emateko zita anbulatorioan.
- Hernaniko GURE ESKU DAGO. Solasaldia Gaizka Garitano (Eibarko entrenatzailea) eta Mikel Labakarekin (Realeko jokalaria ohia): erabakitzearen eskubideaz, independentziak, herrigintzaz eta... futbolaz ari dira.

Otsailak 4 febrero

- Alerta elurra, izotza eta hotzagatik.
- Santa Ageda bezpera. Convocatoria especial, en su 25 aniversario, de Kantuz Abesbatza, dirigida a todas y todos las y los que han formado parte de la agrupación durante esos años.
- Santa Ageda bezpera kantuan Ereñotzun, Ur Mia Elkartearekin (50. urteurrena).
- Santa Ageda bezpera (Ohitura Zaharrak).
- "Zinegoak" emanaldia Biteri kultur etxean: bederatzi film labur (jatorrizko bertsoak, euskarazko subtituluekin) ikusgai.

Otsailak 5 febrero

- Nork bere burua ezagutzeko, lana bilatzen laguntzeko, tailerra (DAITEKE Enplegu Zentroa, Gabriel Celayan).

- Gala del Remonte en Galarreta. Oriamendi 2010 hace entrega del "Remonte de Oro" y de los premios a los mejores remontistas de su ranking. La empresa extiende el galardón a toda la plantilla, en reconocimiento a su actitud y proceder: "Zuei esker erremontea bizirik".
- ORAIN AHAL DUGU / EUSKAL HIRIA (PODEMOS): udal hauteskundeetarako hautagaien aurkezpene Biteri kultur etxean.

Otsailak 6 febrero

- Herido tras sufrir una caída en las obras del TAV, en Hernani.
- www.gikuzkoairekia.eus plataformaren aurkezpene (Gipuzkoako Foru Aldundia). Gipuzkoarrak informatuta izatea du helburu, eta Hernaniko Udalak da plataformara atxiki den aurreneko udalerria.
- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Euskal presoak etxera" (LAB).
- KORRIKA 19, Urepeletik Bilbora. KORRIKA Kulturala: bertso afaria Santa Barbara elkartean (Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze).
- Amaia Azkue kantari hernaniarra Kixkal tabernan.

Otsailak 6 / 13 febrero

- Gazte batzarra Biteri kultur etxean (ERNAI): "Denak ala inor ez" Eguna eta "Preso bat 24 lagun" dinamika.

Otsailak 7 febrero

- Liletak taldeak deialdia berezia egiten du: bilioi bat besarkadaren argazkiak jasotzea du helburu ekimenak, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzat.
- Kaldereroak (Elur-Txori Elkarteak).

Otsailak 8 febrero

- "Hernani ezagutuz": Oindira bira helduentzat (Mendiriz Mendi).
- Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.
- Iñude eta Artzainak (Urumea Ikastola).
- Inauterietako kontzertua udaletxeko arkupetan (Hernaniko Musika Banda).
- Tutan come on musika taldea Goiz Argi tabernan.

Otsailak 9 febrero

- Trafikoaren norabide aldaketak Latsunbe eta Latsunberrin.
- Ciclista herido al chocar con un turismo en la carretera GI-3410.

Otsailak 9 - 11 febrero

- Antzerki zikloa Biterin: "Ruz / Barcenak" (Teatro del Barrio), "Pankreas" (Tartean teatroa) eta "Polotogak" (Txintxeta Teatroa).

Otsailak 10 febrero

- "Denbora libre eta aisialdi aktiboaren garrantzia, bizitzan eta osasunean" hitzaldia Goiz Eguzkin.
- Bizkarrezurra zaintzeko gomendioak Xabier Mendiaraz kiropraktikoak eskaintako hitzaldian.

Otsailak 11 febrero

- Baietz gurean! lan munduan euskara gero eta gehiago erabiltzeko egitasmoa (Buruntzaldeko Udalak): PERFYDE enpresak eta Hernaniko Udalak hitzarmena sinatzen dute "euskararen erabilera sendotzeko eta normalizatzeko".
- Encuentro literario en la biblioteca municipal: "La vida de las mujeres" (Alice Munro).

Otsailak 11 - 17 febrero

- Etxebizitza arloa lantzeko mintegiak Biteri kultur etxean, herri programa landu eta osatzeko asmoz (EH Bildu).

Otsailak 12 febrero

- Hernaniko Hezkuntza Plataforma. Tratu onei buruzko Hernaniko esperientzia (Edurne Mendizabal eta Ibon Arrizabalagak, Arremanitz kooperatiba).

Otsailak 13 febrero

- Concierto "Tropicana" (Cuba y sus diferentes ritmos) en La Milagrosa (Hernaniko Musika Banda).

Otsailak 13 - 17 febrero

- Inauteriak. El cartel anunciador es obra de Rubén Lucas García (Murcia). El 6 de marzo se da entrega de los premios Carnaval 2015: Maite Amondarain y Rafa Rekalde, Marijo Mendiola y Marijo Aierbe, y Maritxu Arregi y Martín Fernández.
- Enkartelada herrian barrena: "Errepresaliatuak etxera!" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak).

Otsailak 13 febrero - martxoak 4 marzo

- Exposición de un colectivo de artistas de Biarritz en Biteri kultur etxea (pintura, diseño, escultura...).

Otsailak 14 febrero

- Ehiza jardunaldia Zanbranan (Txantxangorri Elkarte).
- Behemendiko azoka Plaza Berrian.
- Kalez kale kantari.
- Erromeria (San Joan Konpartsa).
- DJ Black Jiko eta lagunak musika jartzen Itxaski tabernak.

Otsailak 15 febrero

- L.I. Adarraga Memoriala, Sagastialdeko atletismo pistan. Joxe Mari Garin gogoa.

Otsailak 16 febrero

- Iniciación cristiana para mayores de 18 años, en la casa parroquial.

Otsailak 17 febrero

- Literatur solasaldia udal liburutegian: "Haur besotakoa" (Jon Mirande).
- "La casta vasca" liburuaren aurkezpena Biterin (Ahoztar Zelaia).

Otsailak 18 febrero

- Urteko batzarra Goiz Eguzkin. Paco Goya lehendakari izendatuta, berriro ere.
- Beterriko Garapen Plana: Hernanikidetu proiektuaren aurkezpena, gizarte kohesioan eta garapenean eragiteko.
- Trantsizio energetikoa (hondakinak, energia, ingurumena...), lurralde antolaketa eta hirigintza arloak lantzeko mintegia Biteri kultur etxean, herri programa landu eta osatzeko asmoz (EH Bildu).
- "Indarkeria politikoaren eragina Hernanin (1936 - 2013)" lanaren aurkezpena udaletxeko areto nagusian (Euskal Memoria Fundazioa). EAJ-PNV eta H1! kritiko dira txostena-ekin: "Ez dugu konfiantzarik Euskal Memorian", eginiko lana guztiz partziala delako.

Otsailak 18 febrero - martxoak 4 marzo

- Erakusketa Biteri kultur etxean: "Les artistes de les serres de la Milady".

Otsailak 19 febrero

- "Lana zure eskuetan dago" tailerra (DAITEKE Zerbitzua).
- Kurdistango bi emakume aktibistei harrera udaletxean.
- Hernani'n Musik: Fadoa eta "Subita" diskoaren aurkezpena (Maria Berasarte, ahotsa; Jose Luis Montón eta Joxe Peixoto, gitara jotzaileak; eta Fernando Judice, baxu akustikoa) Biteri kultur etxean.

Otsailak 20 febrero

- PODEMOS Hernani AHAL DUGU: asanblada herrikoia Biteri kultur etxean, udal hauteskundetarako herri plataforma sortzeko. Firma bilketa egingo da.
- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Gaixotasun larriak dituzten presoak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak).

Otsailak 21 febrero

- Bigarren eskuko azoka Atsegindegin.
- Hurrengo lau urteetarako programa finkatzeko asmoz, Hernaniren lehentasunak finkatzeko topaketa ("Puntuz Puntu" Dinamika, EH Bildu).
- Ereñotzun sare telematikoa edo wifi sarea instalatzeari buruzko bigarren bilera auzo etxean.
- Saharako kanpamenduetara XI. Euskal Karabana abiatzen da. Hernanin 3.000 kilo bildu dira. Hassanna Aaliaren aldeko kontzentrazioa.
- Andre kalea, izen berria ospatzeko festa: bertsolariak, batukada... (Berdintasun Kontseilua - Udal Berdintasun Saila).
- Pilota. Urkizu eta Lizeaga Malerreka Txapelketako finalean.
- "Todas las horas cuentan" hitzaldia, etxeko langileentzat eta kontratatzaileentzat, Biteri kultur etxean (AMHER).
- KORRIKA 19, Urepeletik Bilbora. KORRIKA Kulturala: Gipuzkoako Mus txapelketako finalerdiak Landare elkarte.

Otsailak 21 - 22 febrero

- Iraupen eskiko eta eski alpinoko ikastaroa (Mendiriz Mendi).
- Gipuzkoako Ehiza Txikiko Txapelketa, Andoainen: Ekaitz Cisneros (junior) eta Juan Pedro Yeregi (beterano), txapel-dunak.

Otsailak 21 febrero - martxoak 18 marzo

- Exposición "Mendia" en San Telmo (Donostia). Entre los objetos expuestos, el rosario que en mayo de 1980 Martín Zabaleta encontró en la cima del Everest.

Otsailak 22 febrero

- Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.
- Bola. Bikotekako Txapelketako azken tiraldia Ereñotzun. Emakumeetan, txapela irabazteko aukera dute hernaniarrek.
- Duetloia. Ibai Alba Espainiako txapeldun, taldeka, Orihuelan (Alacant) jokaturako proban.
- KORRIKA 19, Urepeletik Bilbora. KORRIKA Kulturala: "Bertsolaritzaren sekretuak. Isilarazitako emakumeen historia" ikuskizuna Biterin.

Otsailak 23 febrero

- AEK - Zilegi Eskola: batukada ikastaroa.
- Feten Feten bikotearen kontzertua Bodega tabernan.

Otsailak 23 - 24 febrero

- Mantentze lanak direla eta, Atzietako igogailua itxita.

Otsailak 24 febrero

- "Siete días en PAH Barcelona" dokumentala eta solasaldia Biteri kultur etxean (Kaleratzeak STOP).
- Ipuin kontaketa udal liburutegian (Lur Korta).
- Hondakinen ordenantzaren aldaketa onartzen da Udal Batzarrean: obrako hondakinak ez botatzeko kamarak jarriko dira larrialdi guneetan (etxeok ez diren hondakinak botatzea saihestu nahi du Udalak); el PNV denuncia el "estado policial" creado por Bildu, y PSE-EE también se posiciona en contra de esa medida, y eleva una consulta a la Agencia de Protección de Datos. La Consejería de Seguridad del Gobierno Vasco desestima la solicitud del Ayuntamiento para su instalación. Los socialistas denuncian el uso partidista de la página web del Ayuntamiento. Beste puntu batzuk: Ereñotzu Auzo Udalariei mailegua ematen dio Udalak (2016ko aurrekontuaren kontura), ur zikinak jasotzeko proiektuaren bigarren faserako; eta GOIENER Kooperatibako bazkide-laguntzaile izateko onarpena, energia berriztagarriak komertzializatzen dituen kooperatiba bat da, irabazi asmorik gabekoa.

Otsailak 24 febrero / martxoak 6 marzo

- Urbietako igogailuaren obrak direla eta, zenbait kale itxita, garraio berezi bat pasatu behar baitu.

Otsailak 25 febrero

- Hernasax taldearen kontzertua Biteri kultur etxean.

Otsailak 25 - 27 febrero

- Alerta euriagatik. Portu eta Karabel arteko bidea, Ereñotzurakoa eta Osñagakoa itxita. Zubipe eta Landare urpean. Problemas en los polígonos industriales. Desalojado el campamento rumano de Txoritegi. Finalmente se presentan 46 solicitudes de indemnización en la localidad. No habrá más fútbol en el campo de Zubipe en lo que queda de temporada.

Otsailak 26 febrero

- KUTXABANKi buruzko hitzaldia Kontrakantxa gaztetxean (Julian Txiki Zapiain).
- ElkarBizi programa (elkarbizitzaren zoru etikoa eraikitzen): Jose Maria Setien Donostiako gotzainaren hitzaldia Biteri kultur etxean: "Elkarrekin bakean bizi, gaur eta hemen" (GANBO ITURRI).

Otsailak 27 febrero

- "Udalek sekulako erasoak jasan ditugu Carlos Urquijoren eskutik", errekurtsioen bidez, "instituzioen funtzionamendua baldintzatu" nahi duela salatzen dute EH Bilduko 40 alkatek, tartean Hernanikoak.
- Pala. Emakumeen Elite mailako finalean bi hernaniar, Amurrión: Amaia Irazustabarrena eta Ariane Arrieta. Ariane Arrieta (Aristorenarekin), txapeldun.
- KORRIKA 19, Urepeletik Bilbora. KORRIKA Kulturala: "Maitasun eta erromantizismoa, auskalo" (Teatro Que Madura) antzerkia Biteri kultur etxean (Bilgune feminista).
- Kontzentrazioa Gudarién plazan: "Dispersioari stop, euskal presoak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak).

Otsailak 27 febrero - martxoak 1 martxo

- Hernani Musika Eskola Publikoko piano-joleak Andoaino X. Jaialdian. Maddalen Otaegik eta Endika Bengoetxeak jotzen dute irekiera kontzertuan. Hiru aipamen berezi eta 25 domina lortzen dituzte Hernaniko ikasleek.

Otsailak 28 febrero

- Ehiza jardunaldiak Zanbranan (Txantxangorri Elkarteak).
- Zuhaitz eguna Aparraín (Hernaniko Udala - Mendiriz Mendi).
- IX. Sagar lasterra herri krosa.
- Itziarko herritar talde bat Ereñotzura, Auzo Udalaren sorrera eta ibilbidearen berri jasotzera.
- ORONA IDeO (Mondragón Unibertsitatea): ate irekien saioa.
- "Duintasunez lan egin!" Lanaren inguruko jardunaldia Kontrakatxa gaztetxean (ERNAI).
- Independentziari buruzko hitzaldia Biteri kultur etxean: Gillian Martin eskoziarra eta Alfons Bach kataluniarra (Hernaniko GURE ESKU DAGO).

MARTXOA / MARZO

- En 2015 Hernani recibirá 161.994,00 €. para ayudas de emergencia social (AES).
- Abiadura moteltzeko, konkorrak jarri dira Ereñotzun.
- Erabilitako xiringak farmazietan uzteko kanpaina martxa jarri du Udalak.
- Ipuin faktoria jarri du martxan DOBERA Elkarteak, urtean hiruzpalau ipuin argitaratzea du helburu ekimenak.
- Hernaniko zortzi enpresek sagardotegi, jatetxe eta tabernek (Iparragirre, Itxas-Buru eta Zelaia, Aralar eta Kixkal, eta Errioguarda, Iturralde eta Saretxo) kalitatearen diploma jasotzen dute (Eusko Jaurlaritza, Turismo Saila).
- Hernaniko Argazki Forumaren argazki erakusketa Orion (martxoaren 20 arte).
- Ereñotzun egiten ari diren urbanizazio lanen lehenengo fasea bukatu da.

- Reducido a la mitad el asentamiento rumano de Txoritegi (del Urumea); de las 150 personas asentadas inicialmente, restan en el mismo 60 (23 familias), quince de ellas menores.

Martxoak 1 martxo

- Zubietara martxa, errauskailuen kontra (Hernanin Zero Zabor).
- Donostiako Lilatoia: 87 hernaniar.

Martxoak 2 martxo

- Solasaldia eta merienda Plaza Feministan Aberdeeneko Emakumeen Taldeko kideekin (Gillian Martin).

Martxoak 3 martxo

- "Sagardoaren lurraldea"ko parte da Hernani; Hernaniko Udalak hitzarmena sinatzen dute Sagardun Partzuergoarekin.
- Odola ematek zita osasun zentroan.
- Gazte bat atxilotuta beste gazte bat laban batekin erasotzeagatik.

Martxoak 3 - 10 martxo

- AEK - Zilegi eskola: "Lanbideen eta lan munduaren errealtate sexista aztertzen".

Martxoak 4 - 5 martxo

- Etxe hutsak alokairura bideratzeko kanpaina: stand bat udaletxeko arkupetan (Eusko Jaurlaritza, Alokabide).

Martxoak 4 / 6 / 25 / 27 martxo

- Nerabeen gurasoentzako tailerra(k): "Belaunaldien arteko komunikazioa eta sexualitatea".

Martxoak 5 martxo

- Gazte Txokoa: Sexu aholkularitza buzoiauren aurkezpena.
- Fabrikazio Mekaniko tituluari buruzko bilera informatiboa Hernani BHI.
- Harremonak. "Hezkuntza, berdintasunean hezten" hitzaldi - tertulia Ereñotzun.
- El PSE-EE hace balance de la gestión de EH Bildu durante la legislatura a punto de finalizar: critica la gestión que ha llevado de su mayoría absoluta, subrayando el ninguneo a la oposición.

Martxoak 5 martxo - ekainak 4 junio

- Emakumeentzako Jabetze eskola. Redefiniendo la cultura: "Literatura de mujeres del mundo" en Plaza Feminista (primeros jueves del mes)

Martxoak 6 martxo

- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Euskal presoak etxera" (LAB).
- Eskolarteko Bertsolari Txapelketako saioa didaktikoa Biteri kultur etxean (Eli Pagola eta Agin Laburu).
- EH Bildu: "Elkarrekin Hernani eta Gipuzkoa hobetzen (h)ari gara". Gipuzkoako eta Hernaniko hautagaiak (Xabier Olano eta Luis Intxauspe) solasean Biterin. Diputatugaik Garapen Agentzia, Karabelgo zubia, Oronako parke teknologikoa, Plaza Feminista eta hhz Zerbitzua ezagutzen ditu.
- Kontzentrazioa Plaza Berrian, Baionako bi emakumeren erailketa salatzeke (Bilgune Feminista).
- Kontzentrazioa Zinkoenean: "Gaixotasun larriak dituzten presoak etxera" (Hernaniko preso politikoen senide eta lagunak).

Martxoak 6 - 7 martxo

- Stock azoka Atsegindegi plazan (BERRIAK Elkarteak).

Martxoak 6 - 8 martxo

- Atletismoa. Espainiako Beteranoen Pista Estaliko Txapelketa, Donostian. Sergio Román 3.000 eta 1.500 metroko probetako podiumetan. Udaberriko Lasterketan, Sergio Román eta Maitane Guerrero, podiumetan; Maitanek errekorra hausten du 10 km-ko proban (37:20); eta Espainiako Txapelketara joango da.

Martxoak 7 marzo

- Epeleko poxpolinek bazkari batekin ospatzen dute Emakumearen Nazioarteko Eguna.
- Pelota. Ojuel y Lizeaga en la final del Torneo Euskal Herria, en Sestao. Agirre y Gorrotxategi vencen en el Memorial Miguel Soroa - Ogi berri.
- Lan eskubideei buruz ari dira gaztetxean: "Gazteria, lana eta prekaritatea" (ERNAI).
- Judoa. Beñat Maiz judoka hernaniarra (55 kilo azpikoa), Espainiako Txapelketako azken fasean.
- Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, kale antzerkia: "Atsoak dantzari. Desagertutako emakumeak" (Pikor Teatroa, Hernaniko Udala - Berdintasun Kontseilua).
- Francisco Escudero Musika Kontserbatorioko bi orkestraren kontzertua Milagrosa kaperan.
- Molotoffesta gaztetxean, zazpi talde ari dira.

Martxoak 7 - 8 marzo

- Igeriketa. Hiru hernaniar Espainiako Igeriketa Egokituko Txapelketan, Madrilén: Kerman Urreta, Garoa Etxabe eta Iñigo Llopis. Hiruren artean 12 domina lortzen dituzte.

Martxoak 7 / 14 marzo

- Ehiza jardunaldiak Zanbranan (Txantxangorri Elkarte).

Martxoak 8 marzo

- Eskualdeko eskoletako ikasleen ibilbidea Hernanin (Mendiriz Mendi).
- Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.
- Emakumearen Nazioarteko Eguna: Marijira (Berdintasun Kontseilua - Bilgune Feminista).
- "Hernani" Musika Eskola Publikoko txistularien kontzertua, udaletxeko arkupetan.
- Gazte Txokoa: bideo emanaldi feminista (Emakumearen Nazioarteko Eguna).

Martxoak 9 marzo

- El presidente de la Mancomunidad de San Marcos acusa a los Ayuntamientos de Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia y Usurbil (municipios en los que se lleva a cabo el sistema de recogida puerta a puerta) de arrebatar competencias a la Mancomunidad, al presentar una demanda contra los presupuestos de la misma correspondientes a 2014.
- Kiroldegian egingo diren obren (aldageletan eta igerilekuan) aurkezpena. Ekainaren 23tik irailaren 14ra egingo dira, eta 3 aste soilik itxita izango da instalazioa: el polideportivo ahorrará un 30% de energía tras las obras.

Martxoak 10 marzo

- "Gatazkak nola konpondu" hitzaldi-solasaldia Goiz Eguzkin.
- Josu Landa idazleak Miguel Hernandezen poemak errezi-tatu eta kantatzen ditu Bodega tabernan.

Martxoak 10 - 11 marzo

- AEK - Zilegi Eskola (AEK): "Lanbideen eta lan munduaren errealtate sexista".

Martxoak 10 - 13 marzo

- Tilosetako pilotalekua garbitu eta margotzen dute.

Martxoak 11 marzo

- "Olatua" proiektua (belaontzia alokatu; eta, udan, barnetegi gisa erabili) ezagutzeko aukera AEKn.
- Epaketa eta kontzentrazioa Donostiako epaitegian (ASVIAMIE Amiantoaren Euskadiko Biktimen Elkarte). Pedro Orbeagoz/Acenor enpresako langile ohi batek, amiantoak eraginda, gaixotasuna du, eta epaitegira jo du. Kalte ordaina aitortzen dio epaileak. Únicamente cuatro municipios vascos disponen de un mapa de lugares donde existe amianto, entre ellos Hernani.
- Iñaki Antigüedaden hitzaldia Biterin: "Iraunkortasunerako trantsizioa" (Hernanin Zero Zabor).
- Encuentro literario en la biblioteca municipal: "La novela luminosa" (M. Levrero).

Martxoak 11 - 25 marzo

- José Luis Yanciren margoak ikusgai Biteri kultur etxean: "Argitasun zabalean".

Martxoak 12 marzo

- GARAPEN Integralerako Agentzia, ekonomia eta enplegua sustatzeko agentzia, martxan. Beterriko sei udalerrietarako zerbitzua eskainiko du, eta Hernanin du egoitza. Los dos primeros proyectos ya están en marcha; Innoforo y Koope-ratzen.
- Erremontea. Sagardoaren Txapelketa martxan Galarretan.
- "Komunikazioa eta asertibitatea (nola jarri bestearen lekuan?)" hitzaldia Biteri kultur etxean (Urumea Ikastola).
- Gazte Kontseilua biltzen da udaletxean. Aurreneko bilera da, eta estatutuak eta gazteen alokairurako laguntzen baldintzak dira lantzen diren gaiak.
- "Boluntariotza eta gizartearen parte - hartzea" hitzaldia Biteri kultur etxean (AMHER Elkarte).
- Hipoteketako gehiegizko klausulei buruzko hitzaldia Biteri kultur etxean (Kaleratzeak STOP).
- Eskola kirolaren azken urteetako bilakaera aztergai udaletxeko areto nagusian.
- KORRIKA 19, Urepeletik Bilbora. KORRIKA Kulturala: zortzi film laburren emanaldia Biteri kultur etxean (DOBERA Euskara Elkarte - AEK).

Martxoak 13 marzo

- Hernani'n Musik: "Lachrimae" Agustindarren elizan (Secretum antzinako musika taldea).
- Enkartzelada: "Errepresaliatuak etxera" (Hernaniko preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak).

Martxoak 14 marzo

- Pipaon - Puerto de Urzate - Eskamelo - Samaniego irteera (Mendiriz Mendi).
- Bigarren eskuko azoka Atsegindegi plazan.
- Haurrentzako antzerkia Biterin: "Pirata garrapataren abentura" (Patata tropikala).
- Aerorumba klase berezia IkusiTikasi zentroan.
- Gazte langileen solasaldia gaztetxean (ERNAI).
- Kalez kale kantari.
- Babarrun jatea Goiz Eguzkin.
- Ciclismo. Premio Hernani, en categorías infantil y alevín, desde Urbietakalea.
- Erromeria (San Joan Konpartsa).
- Eraso sexisten aurka gaueko manifestazio - okupazio feminista (Berdintasun Saila).

Martxoak 14 - 15 marzo

- Judoa. Gipuzkoako Txapelketa (infantil maila) eta Euskadiko Txapelketa (kadete mailan) Hernanin.
- Eneko Sota hernaniarrak aurreneko saria lortzen du IX. Musikari Gazteen Txapelketan, Gasteizen.
- "Brain gym" ikastaroa, haurrei eskola porrota saihesten laguntzeko (Lurreko denda).

Martxoak 15 marzo

- Gipuzkoako Lourdeseko Ospitalitatearen Boluntarioen urteko batzarra Sandiusterrin.
- TOLARE Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiaren XIX. Kapituluak: Ozenki Abesbatza, Maria Jesús Iturbide, Eva Esnaola eta Ainhoa Arteta dira kofrade berriak.

Martxoak 17 marzo

- El Tribunal Supremo confirma la pena de 26 años de prisión para el asesino de Charo Román (asesinada por su compañero sentimental en 2011).
